

ARGIA


**EREGOA BAT
DENON
TXAROPENERAKO**



Usabiaga:
«Eguraldia
epe motzean
asmatzeko
probabilitatea
%85a da»

Mikel Lejarza:
ETBn
inprobisaziotik
ihes egitea da
gure desafioa

**Banco
Bilbao-Vizcayak
Estatuko banka
dantzan ipini**





EKO

EKO ALTZA

Larratxo Ibilbidea, 96 zbk. ALTZA

S. Juan Bautista Koperatiba

Villas auzoa. Tel. 55 01 99 HERNANI

SUPER AMARA

Isabel II.a, 16 zbk. Tel. 46 11 77
DONOSTIA

EKO ASTEASU

Keelavite Poligonua, z/g. Tel. 69 25 26
ASTEASU

EKO AIETE

Grupo Etxadi. Tel. 21 14 88 AIETE
(Donostia)

Gure elektragailuak



JATA

EIBAR ELEKTROGAILUAK L.E.A.
Telex: 38533 — Telef.: (943) 71 82 43 (3 linea)
195 Postakutxa. EIBAR (GIPUZKOA)

1.184. zenbakia

4.— Astegiroa.

POLITIKA

- 13.— Tregoa eta negoziaketa abertzaleen itxaropenerako. **I. Zubiondo.**
 15.— BB-V dela eta. **B. Bakaikoa.**
 16.— ASK ere fase politiko berri-rako prestatzen. **I.Z.**

NAZIOARTEKOA

- 18.— Alemaniako diplomaziak boom egiten du. **P. Sastre.**
 19.— Hawai-Samoa-Guam: inperio-rik zabalena. **P. Sastre.**

ERREPORTAIK


- 21.— «Banco Bilbao-Vizcaya S.A.»k Estatuko banka dantzan. **N. Arrastoa.**
 24.— Mikel Lejartza: «Inprobisazio-rik ihes egitea da gure desafioa». **I. Uria.**

TXT komikia

- 35.— Usabiaga: «Eguraldia epe motzean asmatzeko probabilitatea 85%a da». **J. Landa.**
 40.— UBA, heziketari atekak zabalik. **L. Aristi.**
 43.— Emakumeen erasoaldien lehen Topaketak Iruñean. **E. Madariaga.**
 44.— Irakurleak mintzo.

KULTURA

- 45.— Kultur ataria.
 46.— Hirugarrenez Txillardegiri euskaltzain aulkia ukatu. **G. Arrese.**
 49.— Fermin Valencia: «Orain erdaraz kantatzea onartuago da-go». **I. Camino.**
 50.— «Mugre» bigarren diskoa prestatzen ari da. **M. Diez.**
 51.— Leitzarango autobiaeren kontrako maskarada. **J. Petrikorena.**
 52.— Kulturaren Aste Borrastea.
 54.— Mundu zabaletik kultura. **J.M. Heritz.**



ASTE honetan ETAk hartu du euskal politikako protagonismoa, BI HILABETETAKO TREGOA ESKAINIZ. Euskadiko politikagintza fase berri batean sartzen dela dirudi, azken hilabeteko zenbait gertakizun —biolentziaren kontrako hitzarmena, adibidez— beste irakurketa batez aztertu behar dira, eta zalantza guztien erdian perspektiba berriak zabaltzen dira. Auzi horretaz Iñaki Zubiondok bere interpretazioa ematen digu **13. orrialdean**. Bestetik, aste honek beste berri bat eman digu: Koldo Mitxelenak utzitako euskaltzain-oso aukian Ibon Sarasola eseriko da. Azkeneko hiru bozketetan **TXILLARDEGI HAUTATU NAHI EZ IZATEAREN ARRAZOIEN BILA** abiatu gara **46. orrialdean**.

Jabea: Zeruko ARGIA S.A.L.

ARGIA egiten dugu:

Donostian: Mikel Antza, Jon Mikel Arano, Jon Barandiaran, Txumai Iturria, Gorka Izeta, Josu Landa, Xabier Lekuona, Juan Jose Petrikorena, Pablo Sastre, Iñaki Uria, Xalbardin, Pello Zubiria, Joxemi Zumalabe.

Bilbon: Jesus Artetxe, Arturo Izarzelai, Luis Fernandez, Ermife Madariaga, Laura Mintegi, Imanol Murua, Jon Sarasua, Iñaki Uriarte, Pello Urzelai.

Gasteizen: Txotxe Andueza, Irantzu Iriondo, Pablo Ruiz de Aretxabaleta.

Iparaldean: Isabel Etxeberria, Tala.

Iruñean: Jon Alonso, Iñaki Camino, Marta Diez, Joxe Martin Gogortza, Imanol Haranburu, Iñaki Mendibe.

Kolaboratzaileak: Gemma Agesta, Xabier Agirre, Agus, Martxel Aizpurua, Itziar Alkorta, Joseba Alvarez, Enrique Amonarriz, Mikel Arrieta, Ladix Arrosagarai, Antton Azkargorta, Joxe Azurmendi, Balere Bakaikoa, M.J. Barandiaran, Amaia Elosegi, Xabier Erro, Xarlot Etxezaharreta, Joxean Gezalaga 'Zaldubi', Mielanjel Harana, Mikel Hernandez, Ostaiska Irastortza, Iñaki Irazabalbeitia, Mikel Iribarren, Gure Irratikoak, Irulegi Irratikoak, Koldo Izagirre, Kanko Izpizua, Edorta Jimenez, Karmelo Landa, Asun Larrañaga, Lurdes Larrañaga, Loren Loidi, Emilio Lopez Adan 'Beltza', Alfontso Martinez, Xabier Mendiguren, Mikel Mendizabal, Bego Montorio, Morau eta Txeroki, Josean Oiz, Eneko Olasagasti, Koldo San Julian, Andoni Sarriegi 'Muru-mendi', Joseba Sarrionandia, Allande Sokarros, J.L. Alvarez 'Txillardegí', Urederra, Aitor Zabalgobeaskoa.

Diseinu eta montajea: Jon, Eneko.

Azala: Joxemi.

Publizitatea: Maximo Aierbe, Joxe Mari Ostolaza.

Administrazioa: Jon Barandiaran.

Ardura teknikoa: Simeon Barroso, J.Jose De Marcos.

D.L.: 80—1963.

Helbideak: ARGIA, Ametzagaña 19 Behea. 20012 Donostia./ Diputazio kalea, 3, 1-ekz. Bilbo. 48009 Bilbo.

Telefonoak:(943)283399, (94)4248012.

Inprimategia: Gráficas SEMI.

1988. urterako harpidetza sariak: (BEZ barne)

Hego Euskal Herria.....	6.000 pezeta.
Ipar Euskal Herria.....	400 libera.
Estatu Espainola.....	6.000 pezeta.
Beste atzerriak.....	8.000 pezeta.
Airez.....	12.000 pezeta.

Instituzioek bi urtetan subentzioa erdira jeitsi diote ARGIAri,

13 milioitik 6.700.000ra. Zer inpresio sortzen dizu horrek?



KORO GARMENDIA
(Eeko parlamentaria)

Horretaz arduratzen dena Jaurlaritzaren Kultur Saila da; nik alde batetik ez dakit zer asmo dituzten, eta besteetik dirulaguntzak denak batera, osotasunean aprobaten direla esan behar da. Hau da, ez da aprobaten edota ez da eztabaidatzen honoko aldizkari honentzat hainbeste eta beste harentzat beste horrenbeste etab, etab. Esan nahi nuen nik ez dakidala erizpideak zeintzuk izan diren dirulaguntza horiek banatzeko eta azkeneko urteotan ARGIAri diru gutxiago emateko.

Orduan erizpide posibilitateri buruz esan nahi nuen —nere ustez eta zuek eman duzuen informazioari jarraituz gehienbat, bai aldizkarian bai eta ere Durangorako atera zenuten ale berezia kontutan hartuz—, nolabait interpretatu dudala halako zentsura ideologiko antzeko bat egon dela honetan. Beraz, hori horrela balitz neri ez zait inolaz ere onargarria iruditzen.

Subentzioak banatzeko eta aldizkari bati diru gehiago / gutxiago emateko izan behar dira politika kultural batetik eta hizkuntzaren normalkuntzarako politika batetik abiatutako erizpideak beti.

Pentsaten dut baitaere, ailegatu dela momentua (hor nolabait ere tartean dago Jaurlaritzak hartu zuen erabakia euskarazko egunkari bat egiteko. Azkenean egun-

karia egitearen erabakia, bihurtu zen astean behin ateratzen ziren bi egunkari indartzearena) balantzea bat eta ebaluapena ere egiteko. Momentu honetan euskaraz kaleratzen direnen artean hiru publikazio daude, ARGIA eta astean behineko «Eguna» eta «Hemen» eta datorren urteari begira eta subentzioak banatzeko erizpideak hobeto finkatu beharko dira, egon den praktikaren ebaluapena egin beharko da eta horren araberrako justifikaketa.

TXEMA LARREA
(Idazlea)

Ez dut datu zehatzik eta ARGIAk berak ere ez ditu eman. Badirudi halere Mendebaldeko Gobernuak jarrera alderdikoiak erabili dituela, eta horrelakoak ARGIAk egin baditzake ere, Gobernu batek, guztion botuz eta diruz sortzen den Gobernu batek ez daukala egite-rik, noski.

Zernahi gisan ez naiz akort ARGIAren salaketa kanpaina guztiarekin. Lehenik ARGIA ez baita euskal astekari bakarra. «Herria» ere hor dugu eta euskara aldetik, bestalde, ARGIA bezain espainola gertatzen ez dena.

Bigarrenik «Eguna» —inork lutzen ez duena— eta «Hemen» —ez zait piperrik ere gustatzen informazioari ematen dioten tratamendua, informazio onena «Egin»era doa— eta «Nafarroa Gaur» eta «Zabalik» hor ditugu. Azken bi kasutan bederen ez dut uste inongo subentziorik, edo halamoduzko subentziorik behintzat, jasotzen dutenik.

Eta ARGIAko kanpaina guztian inork inondik ere erasotu ez duena: jakin gogo nuke zein den «Vasco-Press» agentziak —opustarra porrokatua dena hain zuzen— berriak euskaraz ematearren zer diru jasotzen duen Eusko Jaurlaritzaren aldetik.

Galdetzekoa da, edozelan kuestionatzekoa, ez Jaurleri-

tzak ARGIAri dirulaguntza ez emateaz, baizik eta prentsari buruz orokorki duen politikaz eta politika horretan noraino lehenesten duten ala funtsgabekotzat jotzen duten euskarazko prentsa. Euskal agerriari eta euskarazko prentsa oro bat.



IMANOL ELIAS
(Antzerki idazlea)

Parregarria dela. Oker ez banago, aldizkari on asko ez dauzkagu, baina horien artean bat bada merezi duena, ARGIA. ARGIAri laguntzak gutxitzeko dena esaten du, Eusko Jaurlaritzak euskararen alde ezer gutxi egiten duela, hori da Eusko Jaurlaritzaren pekaturik haundiena.

Baina hori ez da geratzen bere horretan nire eritziz, bizi dugun mundu honetan denok bat gatoz, ez zaigu haintzakotzat hartzen, ez aldizkari, ez euskara irakasten, ez antzerkian ari garenoi, ez eta ere...

Hau horrela, iruditzen zait kanpotik ez digutela lagunduko, guk egin beharko dugula egin beharrekoa, egin beharrekoa gure lana dela.

Beraz, frogaturik dagoenean sei mila etxetatik gorara iristen dela ARGIA, lan ederra zabalitzen ari dela hainbat eta hainbat tokitara, zer lortu nahi dute erabaki horrekin?

KARLOS ARGUÑANO
(Sukaldaria)

Zer inpresio sortuko ote lieke beraiei —Jaurlaritzakoei— soldatak erdira jeitsiko balitzaizkieke?.

Nik konparazio hori jartzen dut. Eta «Volvo»a dutenei «Ford-Fiesta» txiki batean ibiltzea egokituko balitzaieke, zer moduz? Hor al dago aurrerakada? Hortik aurrera bakoitzak ikus dezala zertan dabilen, allakuidaus! Badirudi euskara defendantzen eta euskaraz lan egiten ari direnak hiltzera kondenaturik daudela. Sufrimenduen artean hil behar ote dituzte? Hori ez da posible.

Eutsi horri!

SAGRARIO ALEMAN
(«Arturo Campion» euskaltegiakoa)

Inpresio txarra esango nuke, eta nolabait etsipenezkoa. ARGIAk gora behera guzti hauek argi eta garbi haizatu ditu eta horrek esan nahi du, nire ustez, gauzak ez direla aldatu —ez gehiegi behinepein— euskarari dagokionez, lehen bezala segitzen dugula.

Gainera, euskararen alde eta euskaraz lan egiten duten erakunde eta taldeak baztertu eta ordezkakoak sortuz, itxurak betetzeko ahaleginak besterik ez dira egiten gehienetan.

ARGIA dugu euskara hutsez ari den astekari zaharrena —eta aldi berean berriena—, eta orain arte egin dituen lanengatik besterik ez balitz ere, uste dut instituzioek —Euskal Herria euskalduna egitearen alde baleude behintzat— laguntza bereziak eta geroz eta haundiagoak eman beharko lizkioketela, ARGIA orduan eta hobea eta gero eta jende gehiagongana iritsi dadin.


Ondo dago beste batzuri dirulaguntza ematea, eta berriak sortzea ere, baina iruditzen zait lehenak lehenak direla, orain eta beti.

Oraindik ere euskaldunok gure Herrian arrotzak bagina bezala gaude, euskaraz lan egiten duten guztiek zor zaiena jaso beharko lukete instituzioetatik, nahiz eta etsaiek (Juaristitarrek, Bermejotarrek...) bestelakoak esan.

ALEJANDRO TAPIA
(Pintorea)

Ez da esperantzarria 13 milioetatik zazpita mozteko izenik ez duen hori. Etorkizun iluna espero dio bai ARGIAri eta baita euskarari horrelako postura hartu badute. Kultur alorrean hobetzen joan beharrean atzeraka goazen seinale. Ez da esperantzarria ez.

ARGIAren gainean zer esan? Ez dut beti irakurtzen baina itxurosoa, kuriooso iruditzen zait, eta kendu beharrean dirulaguntza gehiago behar lukeela uste dut.



BERNARDO IBARRA
(«Arrate Irrati»ko arduraduna)

Hasteko, arazoaren muina: ez dakit zelakoak diren Eusko Jaurlaritza eta ARGIAren arteko elkar hizketak, zer argudiatzen duten edo argudiatzekorik baduten.

Hortik aparte, euskaldun naizen moduan, euskararen egoera oso larria ikusten dut. Horregatik euskara hutsean digharduen astekari batek dirulaguntza behar du orain eta hemen. Behar bada, normalena ARGIAk bere burua autofinantziaztea izango litzateke, baina zoritarrez gure Euskal Herri honetan eta euskara hutsez hori lortzea ezinezkoa edota oso zaila da.

Esperientziaz diost. Adibidez, gaur bertan etxe komertzial batetik deitu digute irrati honetara, eta —euskaldunak zirenez— euskaraz aritu ondoren, publizitatea erdaraz eskatu dute (!). Ezinezkoa zela esan

diegunean, euskara hutsean egiten dugula, ez zitzaien burutik ere pasatzen eta ez zaiela interesatzen esan eta atzera bota dute. Lotsagarria. Triste da, baina hala da, badira euskaldunak ez euskaltzale ez eta ezer ez direnak.


Arrazoi horregatik behar ditu euskarak, dagoen egoeran dagoelarik, dirulaguntza ugariego. Eta, baldin ez badiogu eusten, bakarrenetakoa den berteko horri —ARGIAri—, geureak egin du.

JON BASTERRA
(«Egin»eko erredakzioburua)

Euskara ikasteaz gain, euskal kultur mundua ere ARGIAko orrialdeetan ezagutu dugun euskaldun berriok ondo dakigu jakin zer garrantzi aparta duen aldizkari honen iraupenak.

Gasteizko Gobernutik garatu den dirulaguntzen politika diskriminatzailea ez doa bakarrik ARGIAren aurka, euskaldun guztion aurka baizik.

Beraz, denon artean eman beharko diogu eraso horri mezezi duen erantzun kontundentea.



IÑAKI AIZPURUA
(Bideo eta Zine eskolako zuzendaria)


Zuei ere! Iruditu, sarreratik gaizki iruditu. Ez alferrik da ARGIA, berez, aspaldiko urtetatik euskaraz soilik datorren errebista. Suposatzen dut sekulako kolpea izango dela mozketari hori zuentzat.

Dena dela, ez dakit zer arrazoietan oinarritzen diren, ez dute esplikatzen; hortaz, arazo hau kalibratzerakoan gertatzen da nahiko salduta gelditzen gara. Esan dudana hasiera hasieratik, gaizki iruditu zaidala.

**DISKRIMINAZIOAREN
AURREAN
HERRIAREN LAGUNTZA**

**Harpidedun bakoitzak
beste bat lortu**

Diru-laguntzen murrizketak direla eta, kinka nahiko larrian jarri dute ARGIA. Ixteko arriskurik ez badago ere, aurreko urteetan eragindako hobekuntzak (gehiagarriak, orrialde-gehikuntzak, papera...) bertan behera gelditu daitezke. Hori dela eta, harpidedun andana berri bat egitea ezinbestekoa zaigu, larritasun berri honetatik ARGIA indartsu atera ahal izan dadin. Horregatik harpidedun bakoitzari, bere ingurukoren bat harpidetu dadin esfortzua egitea eskatzen diogu. Behoko txartela bidali eta ARGIAra bidali: Ametzagaña, 19 behea. 20012 DONOSTIA. Edo are errazago: telefonoz deitu (943) 28.33.99 edo 28.36.78 telefonoetara.



**NIK ERE HARPIDEDUN
IZAN NAHI DUT**

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

TLFOA..... HERRIALDEA.....

KOBRAKETARAKO DATUAK


Bankua/Aurrezki Kutxa.....

Sukurtsala.....

Kontuaren zenbakia.....

ARGIA

Ametzagaña, 19 behea
20012 DONOSTIA
Tfnoa: (943) 28.33.99



OTSAILA

7

OTSAILA

13


otsailaren 10ean ilbehera

eguzkia: (otsailaren 7an)
irten: 08.19
sartu: 18.39

mareak: (otsailaren 7an)
gora: 06.47 eta 19.05
behera: 12.58

LIBURUAK

XABIER MENDIGUREN



ZOPERNA
JENERALA

Titulua: Zoperna jenerala
Egilea: Luis Berrizbeitia
Argitaletxea: Pamiela
Ezaugarriak: 102 orri, 400 pta.

Liburu miragarria honakoa, eta miragarriak bertako poemak. Alta, utz iezadazue liburuz aritu aurretik beste zerbaitez mintzaten, *Txistu y Tamboliñ* aldizkariak hain zuzen. Azken garaiotan jende mordoxka dabil gure Euskal Herri honetan biktimismoaren zama bizkar gainera altxatu nahian, buruan ohore gisa ezarritako erramu bone-ta bailitza. Idazle maldito izateko izugarrizko gogo da, eta malditismo guzti ho-

riek itxurazkoak baino ez dira, ez gaitzen engaina, ez dago holakorik, edo izatekotan nik ezagutzen dudana kasu bakarra horixe litzateke: *Txistu y Tamboliñena*.

Durango aldeko gazte zenbaitek martxan jarri eta lau ale atera zituzten, denak ere mundialak nere ustez. Gero, halabeharrezko sakabana-tzea eta jasotako oihartzun eskasa zirela medio agortu egin zen, bukatu. Aldizkariak, bizi zela ez zuen ia aipamenik izan, eta izandakoren bat edo beste ez goraipame-nezkoak portzierto. Zaila zen sailkatzen, identifikazio erra-zetarako oztupo nabarmenak zituen. Ezin euskaltzale batzuen gustoko izan, erdarazko eta bizkaierazko zerak ere sartzen baitzituzten tarte-ka; baina erdaltzaleek ezin ontzat eman erdara horren proportzio erridikuloan erabili-ta (ohizkoaren alderantzizko) ezta bizkaierazaleek ere bizkaiera ez-literarioa baitzerabilten. Eta gero gainera lotsagabekeria galanta... Baina guzti horren gainetik literatur kalitate bikaineko lan asko eta asko, harrigarria benetan eskualde bakar bati mugatuak izaki.

Eta Luis Berrizbeitiak leku nabarmena zuen aldizkari hartan, ezizenez sinatu arren estiloagatik suma dezakegu-nez: Egia esan, bagenituen geure zalantzak, abadiñotar honen idazkerak beste du-rangotar batenaren antz haundia baitu sarritan, Jose-ba Sarrionandiarena alegia. Antzekoa batzutan lexikoa, oso antzekoak gustoko idaz-leak, eraginak, poemetan agertzen diren gai eta kez-kak. Lagun batek zera esaten zidan, hots, epaimahaikoek ez ote zioten Jauraritzaren Lizardi Saria Berrizbeitiari eman Sarri saritzen zutela-koan. Nolanahi ere den, on-do merezia du Luis Berrizbei-tiak saria.

Poemen nolakoaz hizketan hasten bagara, egilea bide bat baino gehiagoren aurrean dagoela esan behar, aukera kontrajarriak dituela agian. Kopla eta balada zora-garriak burutu ditu batetik,

elaborazio izugarrikoak, Be-he Nafarroako eta Zuberoako apokrifotzat eman litezkeenak. Bestetik, poema libree-tan metaliteraturari buruz di-hardu batzuetan, eta zenbaitetan aztarna antintelektua-listaren bat erakusten badu ere literaturan soka luzeko diren gaiak dira nagusi, Bor-gesen kutsu nabarmenez, egileak aitortzen duenez.


Bi tradizio beraz, eta bie-tan maisu. Denbora aurrera joan ahala bien arteko sinte-sia egingo digu agian Berriz-beitiak.

Titulua: Salome
Egilea: Oscar Wilde
Itzultzailea: Inaxio Mujika
Argitaletxea: Baroja
Ezaugarriak: 58 orri, 600 pta.

Salome antzerkia izan zen Oscar Wilde irlandarrak fran-tsesez idatzi zuen lan baka-rra. Parisen idatzi ere, denok ezagutzen ditugun arrazoiengatik gartzelara joan aurretik. Bere bihotzeko Bosiek itzuli zuen ingelesera eta ge-roztik batipat hizkuntza honetan argitaratu eta ezagutu izan da.

Gaur, ia ehun urte pasa eta gero, Inaxio Mujikak itzulita eta Barojaren eskutik euska-raz dastatzeko aukera dugu, Wilde beti baita mokadu go-zoa.

Obra honetaz zer esan? Pertsonaiak eta egoerak Bi-blian agerturikoak ditugu. Hizkuntz sujerikorra, errepi-kapenen bidez eritmo bere-zia lortzen duena, Itun zaha-rraren oihartzuna dakarkigu-



la. Dotoreziaren amoreaga-tik, lapurterarako ixuri na-barmena ezarri dio Mujikak bere itzulpen honi.

Ilustrazio modura, ingele-sezko lehenbiziko argitaral-dian ezarritako marrazki ber-berak sartu dira hemen, Aubrey Beardsleyrenak hain zuzen, *art nouveauren* giro elegante eta dekadente guzti horrekin. Harritzekoa da, edo bitxia behintzat, zenbat eta zenbat pintore eta eskri-tore erakarri zituen hemere-tzigarreneko bukaera hartan Salomeren gai honek.

Gure teatro produzioaren egoera kaxkarrak ikusita, zail da horrelako obra bat taula gainean ikus ahal izatea. Are gehiago antzele eta hornidu-ra dexente eskatzen duen an-tzezlana izaki. Dena dela, li-teratur lan ederra jarri digute esku artean.



Aldizkariaren izena: Maiatz
Ezaugarriak: 14. alea, 87ko Abendua, 60 orri, 25 libe-ra-500 pta.

Txintxo-txintxo segitzen dute Maiatz batasunekoek bere aldizkari txuri-beltz hau ateratzen, Iparraldeko litera-turgileen erakusgarri eta sos-tengu. Hamalagarren hau ale beteaz dugu hau ere, bai edukiz bai egilez.

Izan ere, idazle berriak plazaratzeko leku izaten jarraitzen du Maiatzek. Poeta berriak batez ere. Horiatarik anitz bada ale honetan, beste zenbait arituagoren aldame-nean. Aipatzea behintzat me-rezi dutelakoan, ekar ditza-gun hona bere izenak (eta barka tartean nik ezagutzen

ez dudana famaturik baldin bada): Josiane Valencia, Amaia Lafitte, Nora Peña, Andoni Lasa, Frédéric Nepriar, Sesmero-Cutanda, Xabier Conbelet, Patxika Etxalai, Jon Arzallus, Ellande Arandia. Gehienek poema solte bakarren bat dute, xumeak sarritan, idazten has-tean egin ohi diren horietakoak; beste batzuei berriz nabari zaie anbizio suharragoa.

Idazle berrien estrenaleku izateaz gainera ohizko beste hainbatek ere ez dio utzi bere lan eta lantxoak argitaratzeari, eta izen ezagunen artean hementxe kausi ditzakegu Auxtin Zamora, Amaia Iturbide, Jean Louis Davant, Koldo Ameztoi, Aurelia Arcocha, Itxaro Borda, Eñaut Etxamendi, Lucien Etchezaharreta. Ipuin eta olerkiak tartekatuz doaz, azken hauek nagusi baldin badira ere.

Sortze lanekin batera bada itzulpenik ere. David Mourao Ferreira portugaldarrarena bat eta beste zenbaitenak: Anne Delage, Daniel Filipe eta Margerite Duras ezagunarenak. Dena den, ale honetako bereizgarri nabarmena gaurko poeta senegaldar batzuen itzulpena du. Arras interesgarria iruditu zaigu, gure artera usu agertzen ez den gizarte, literatura eta kultura baten berri ematen digulako. Frankofoniak dakarren neokolonialismoaren iruzurraren arriskua ere hortxe dago noski, Itxaro Bordak argi ikusten duenez (idazle guzti horiek literaturarako behintzat frantsesa erabiltzen dutela esan behar). Sarrera, antologia eta itzulpenak Itxaro Bordak egin ditu, ohi bezain langile. Hamabost dira aukeratutako poetak eta bakoitzaren poema xorta-labur bat eskaintzen zaigu, aho gozagarri, paraje berrietara zabal ditzagun gure begiak eta leihoak.

Aipatzea ahaztu zaigun besteren bat ere bada: Betizu izeneko baten lan bitxia, eta bukaeran Mari Manddolinaren kritika lan bizi eta interesgarria: bertan han eta hemen, euskaraz eta erdaraz azken aldian kaleratutako hainbat

libururen berri ematen digu, eritziarekin batera. Eta guk ere bukatu behar, dena sartuko bazaigu.

Titulua: Zure argi kliskak
Egilea: Felix Zubiaga
Argitaletxea: Euskaltzaindia—B.A.K
Ezaugarriak: 56 orri

Aurreko batean Jon Kortazarrek Patxi Ezkiagari buruz ari zela holako zerbait zioen, alegia, badela Lizardigandik eta datorren tradizio bat, eta soka eten gabe tradizio hori gaurkotzen, berritzen diharduten poetak ere bai.

Zer dela eta diot nik hori? Hain zuzen ere horixe etorri zaidalako burura Zubiagaren azken poesi lan hau irakurtzen ari nintzela. Izan ere, Euban bizi den pasiotar honen poemetan ere nabari da olerkariarengandik datorren katearen jarraipena; kasu honetan olerkari bizkaitarrak agian giputzak baino iturburu zuzenagoa. Ez dira kasu bakarrak bi hauek gainera: hortxe baititugu esate batera «Oleri» aldizkariaren inguruan ibilitako guztiak, ahaztu samarturik baldin badauzkagu ere.

Kokagune orokor horren barnean ordea, baditu Felix Zubiagak bere bereizgarriak, nortasun sendoko olerkikera. Horien artean panteismo indartsu bat azpimarra liteke, edo egokiago litzateke agian Eguzki=Jaungoiko identifikazioaz berba egitea. Horrekin batera, nabaria da oso bibliaren eta orohar literatura erlijiosoaren eragina.



Lan honek 1986ko Euskaltzaindiaren «Arrese y Beitia» saria eskuratu zuen. Bestalde, badirudi Zubiagak indartsu segitzen duela lanean, nahiz narratibari emanago ari den: joan den urte hondarrean *Espedientea* izeneko nobela bat kaleratu zuen (oraindik orriotara ekarri ez duguna), eta oraintsu Bizkai-ko Diputazioaren elaberri saria eskuratu berri du.


Titulua: Bertso bilduma (Zuberoera-batua)
Egilea: Piarra Topet Etxahun
Prestatzailea: Xipri Arbelbide
Argitaletxea: Elkar
Ezaugarriak: 207 orri

Aurreko batean, Etxahunen biografia nobelatuaren iruzkina zela eta, iragarri genuen bezala, kaleratu berri da bertsolari barkoxtarren bertsoen bilduma. Prestatzailea, biografia haren egile bera du; Xipri Arbelbide langile fina. Bi lanak liburu bakarrean emateko asmoa omen zuen, baina lodiegi suertatuko zen bildurrez, azkenean banatuta eman behar.

Izan ere, elkarren osagarri eta edergarri baitira Etxahunen bizitza eta bere kantuak. Batak bestea gabe, galdua luke bere xarma eta indar guztia. Poztekoa da beraz, elkarren segidan etorri izana.

Xiprik berak aintzin solasean aitortzen duenez, bere lan hau Jean Haritschelhar irakaslearen tesiaren zordun da, hura gabe ezinezkoa baitzatekeen hau agertzea. Eta honakoa zabaltze eta ezagutarazte lan den aldetik, bertso hauetan sakondu nahi duenak iturri hartara edota Yon Etxaidek egindakoetara jo beharko du.

Liburu honetan ez zaigu inolako azterketarik egiten, ez hizkuntzazko ez historikorik, ezta oharrik ere. Etxahunen kanta ezagutaraztea du helburu, eta kontuan izanik zuberera beste euskalkietarik aski desberdina dela eta joan den mendetik gizarte bera ere arras aldatu dela, zuberazko bertsoen aldamenean



Xiprik batuaz egindako moldaketa dator. Gogora dator-kigu aspaldi batean Etxaidek gipuzkeraz jarri zituela.

Beraz bada, hementxe duzue liburua. Garai batekoak bezala gaurko gogoak ere bortizki inarosten segituko dute Etxahunen kantuek, irudi duenez.

Martxelo Otamendi «Aste ero»aren erresponsibleetakoa da, nahiz eta ez izan ETBko plantilakoa beste asko bezala mundu honetan.



«Aste ero»: martxorarte, gero... agur Martxelo

Lehen «Txoria dut maite», zena gero «Aste ero» bilakatu zen. Igandero, asteko telebistako programazio interresgarrienaren iragarlea berririo birmoldatuko omen dute inziditu ez duen 'ente'lekiaren arduradunek. Etxeak dituen mugak kontutan harturik (Martxeloren hitzetan, ikuslegoena, egileen kapazitate edo maila eskasa, ofizioa ikasi beharra, eta guzti honen berritasuna), ETBren programazioa polita omen, zuzendu beharreko akats haundiak dituen arren. «Ez naiz sartuko informatiboekin, hori beste da. Hizkuntz kontrolik ez dago batere, hori landu beharko litzateke, akats galanta da hori».

«Halere inoiz izan duen programaziorik onena» —dio Martxelok—, «baina, bata hutsa baino gehiago da, bosta baino gutxiago». Zenbait programen presuposuoen murrizketa horiek zertan ote daudeken galde-tu diogu. «Erantzuna guk baino dexente gastu gehiago duten programa arduradunei eskatu beharko». Amatiñoren programa eta.

«Ezbaian» da laudorio eta mimo gehien jasotzen duena. Kanpotik ere antzeman daiteke. Bere eritzia eskatu diogu etxekoak jakiten baitu etxeko berri. «Zaila da esaten zein den onena zein txarra. Lankidea zara... nere uste apalez, txarra geurea». Kritiko txartzat dauka bere burua.



Larunbatez «Cassandra-ko zuba». Polizia eta lehergailu jartzaileen arteko afera.

Bata kendu, okerragoa ipini, ez goaz ondo, ez

Aurreko asteazkenean amaitu zen «Jainko Zaldu-nak» telesaila eta honen orde, beti bezala, errazanera jo da oraingoan ere; beste telesail bat iragarri digute. William Tell edota Guillermo Tell deritzana eskeiniko da 24 astez, saioek 30 minututako iraupena izango dutelarik. Denok, ederki asko ezagutzen dugu heroi honen istorioa baina, txoritxoak, bada ez bada ere, leiendei eutsi nahi die.

ETBn abentura arinzale egongo denik ez dago zalantzarik eta ikusle hauek honelako telesailak ikusteko aukera eduki behar dutenik ere ez, baina horiek bezalaxe beste era bateko telebista nahi dugunon aukerak ahaztu egin dira dirudi. Une honetan eskeintzen diren telesailen errepa-soa emanez gero, erizpide oso zabalak jarri beharko lirateke bati bakarrik onspena emateko.

Bestalde, telebista kate ugari ikus dezakegu, gehiago iragartzen digute. Nolatan eutsiko dio gure txoritxoak hainbestetan iragartzen digun teleikuslego majiko kopuru izugarri horri?

Sarriegitan iragartzen dira aldatetak ETBn, baina noiz aldatuko da onerako? Telesail bat kentzen eta okerrago bat ipiniz ez gara oso urrutira joango. Nahiz eta ikuslego kopurua beti handiagotzen doala iragarri eta iragarri.

Abentura eta kalitateak berriz ere behera jo

Antzesle sonatuko luze bakarra dugu oraingoan. Burt Lancaster eta Sophia Loren izango dira «Cassandrako Zuba» antzestuko dutenak. Bestalde, gai erakargarrikoa ere izanen dugu «Titanic Untzia», abenturazalee atseginerako. Bestea, alemandarrek Suizatar izatearen arazoaz pentsatzen dutenaz jardungo da.

Igandez, «Titanic Untzia». 70 urte pasa dira Titanic untzia istripua jazo zela eta EEBB eta SESBetako gobernuek munduko byzanio erreserba guztiak untzian daudela uste dute, bi potentziek untzia eskuratzeari ekingo diote. Zuzendaria: Jerry Jameson. Antzesleak: J. Robards, R.Jordan eta D.Selby.

Asteazkenez, «Suitzargileak». Max Bomer eta Moritz Fischer dira komedia eztenkari honetako protagonistak. Suizatar nazionalitatea lortu nahi duten atzerritarrek egin eta jasan behar dituzten sufrimendu eta egoerak azalduko zaizkigu. Zuzendaria: Rolf Lyssy. Antzesleak: W.Luond, E.Steinberg eta B.Kessler.

Larunbatez, «Cassandra-ko Zuba». Genovako laborategi batetan lehergailu bat ipini nahi dute, tiroketa bat suertatu ondoren lehergailu jartzaile batek tren geltokira ihes egin eta izugarriko sarraskia jazoko da. Zuzendaria: Pan Cosmatos. Antzesleak: B.Lancaster, S.Loren eta I.Thulin.

musika

'Oskorri'ren ikuskizuna

Aste honetan **Oskorri** taldeak bere "Hamabost urte... eta gero hau" ikuskizuna, zenbait herritan kaleratuko du. Bere musikaz aparte eta ohi dugunez, Kukubiltxo antzerki taldea, Kepa Junkera trikitilaria, Iruñeko Gaiteroak eta Burdinezko gizona bertan arituko dira. Kantaldiak honako hauek izango dira: Otsailaren 7an Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan, ilunabarreko 8,00etan, hilaren 12an Zarautzen polikiroldegian gaueko 10,00etan eta Bermeon, berriz, pilotalekuan otsailak 13an gaueko 10,00etan.

"Zubipeko

Swing"

Markinan

Markinako 'Xemein Eskautak' elkartearen 10. urtemuga dela eta, jai egitarau bat eratu dute. Egun osoaren zehar bai ekintza kulturalak bai jai ikuskizunak burutu eta gero, gauz eta herriko pilotalekuan jazz kontzertua 'Zubipeko Taldea'ren bitartez eta erromeria 'Akelarre' taldearekin ospatuko delarik.



Ruper eta Hertzainak European zehar.— Baita aste honetan ere gure musikariak hortik dabiltza, beraz, Italia edo Suizarantz joateko asmoa baduzue gogora itzazue data eta leku hauek: Otsailak 7, 9 eta 11 Italiako Montebelluna, Torino eta Genova; Suizara igaroz otsailak 12 eta 13 Neuchatel eta St. Gallen dira adiguneak.

antzerkia

"Trapu Zaharra" antzerki taldeak, otsailaren 11an, Donostiako Altza auzoaren kaleetan zehar bai goizez bai arratsaldez, bere ikuskizuna zabalduko du.

Karraka taldearen "Okupado"

Erandio Udaletxearen kultur egitarau berriari hasiera emateko, otsailaren 13 eta 14ean Karraka antzerki taldeak, "Okupando" bere lan berria, Erandioko udaletxearen areto nagusian taularatuko du.



OTSAILA
7
OTSAILA
13

Jantzi beltza

Estudioko mahaiaren aurrean, gehienbat, duela kasik bost urte buruturiko lehen LP hartatik, oraintsu M-ak taldeak kaleratu duen «Zuloa» izeneko hirugarren diskora tarte handi samarra dago. Hiri galduaren bila, basamortuan zehar doan esploradorearen antzera, bakardadean (bidexidor hōrietatik ez bait da beste inor ausartu) burutu du bere ibilbidea. Apurka, apurka, M-ak taldea —neurri batetan egungo musikaren olatuaren gailurraren berri duelako— beltzuz joan zaigu. Mundu osoan, rock, pop, soul edo funky musika moietetan nagusitzen ari diren musikari beltzen aurrean ezin daiteke geldirik gera. Hortik, denak ari dira heltzen moduak eta ideiak «kopiatzek» edo behintzat saiatzek dira. M-ak taldearen kasuan, eta oraingo LPan nabariago, beltzek sortutako musika eta erritmoak bereganatzeko saio bat dago, baina askoz gehiago ere bai. Zenbait ahots-joku, erritmo eta moldaketak («egunero zortzi ordu», «Aukera nazazu» edo «Urteurrena» kantuetan ikus daitekeen bezala) kolore beltzezko azala dute baina beltz kolorea jantzietan da nabarmenagoa azalean baino. Jantzi beltzak aipatzerakoan, 80ko hamarkadako belau-naldiaren jazkerari buruz azken urteotan barreiatutako kolorerik gabeko estetika-filosofiari buruz ari naiz. Beste beltzawun moeta horretan kokatu behar dira gitarra garratzak, erritmo laburrak, testu ironiko, eskeptiko edo mingotsak. Esate baterako, amodioa («Negoziketaren beharra», «Aukera nazazu») egunerokotasun zentzugabea («Egunero zortzi ordu») sinismenak, politika, (erreintserzioaren kontrako («Sugearen intaldi berria», «Milenioa», «Kantu borobila»)...) Ikuspuntu ilun horretatik heldurik daude. Aurreko diskotik (M-ak eta Arrak) kantuak laburtu dira, arintasun eta kontudentzian irabaziz (begibistan dago Irazoki anaien sartzea). Aurrekoaren monotonia apurtu da, produzio on eta efikaz bati esker (Aizea sartzean beldurti agertu arren) osotasuna galdu gabe, talde doinua lortu dute. Ideia musikalak kasu guztietan «distiratsuak» ez diren arren, musikarien fintasuna agerian gelditzen da diskoan zehar. Xabier Montoiaren ahotsa, gehienetan sententia espresabide baliotsua baldin bada ere, batzutan mugatua dakusat, musikaren beharretan egokitasunez moldatu ezinik. Zulo iluna, M-ak taldeak sorturikoa, beltzaren estetikarekin eginda, euskal musikan beste kolore bat jarritz. Azken batean, belarri konformistentzat (eta Euskal Herrian asko dira) ez den disko bat.

PELLO URZELAI

□ «Zuloa». M-ak. IZ.

zinema

Donostiako Nazioarteko Zinemaldia

otsaila

7 Joan den astean eratu zen zinema suizarraren zikloari bukaera emateko, eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren ekitaldien barne, datorren igandez F.M. Murerek egindako "Hohenfeuer" (1985) eta D. Schmidek "Il bacio di Tosca" (1984) saio bikoitza batez, arratsaldeko 7,00etan eta gaueko 9,00etan, kaleratuko dira Donostiako Amaia zineman.



Fas zine kluba

otsaila

8 Matthew Chapman, EEBBetan finkatuta dagoen zuzendari britainaren hirugarren fimea eskainiko dute astelehen honetan Fasekoek. Pelikularen izenburua "Stranger's kiss" (Arrotz baten musua) dugu bere sortze urtea 1983 delarik. Pelikula honek, zinema munduari ezustaketa bat eskaintzen digu. Komedia ezaugarriez osatua, filme honen istorioa kameraren bi alderdietan gauzatzen da, alegia, erroldari baten mamitzea aurkezten zaigu. Emanaldi honen ordua, ohi denez, arratsaldeko 7,30ak izango da. Lekua berriz, Bilboko San Vicente kaleko 2. atariaren zine kluba.

Zarauzko zine kluba

otsaila

11 Bakartasuna, homosexualitatea, nazismoa, burgesiaren ajeak eta abar nahasten dira datorren asteoko ostegunean eta gaueko 10,15etan Zarauzko zine klubak eskainiko digun fil-



mean; Luchino Visconti zuzendari italiarraren "La caída de los dioses", hain zuzen ere.

Donostiako kultur etxeetan

'Urteko Zinearen Zikloa' sailaren barne eta P.M. Unzueta-
ren eskutik Okendo eta Alzako kultur etxeetan bi filmeak izango ditugu ikusgai. Alde batetik Alzakoan eta otsailaren 9an Wim Wenders zuzendari amerikarraren "Paris Texas" filmea arratsaldeko 7,00etan izango delarik. Bestalde Okendokoan eta hilak 10, Willy Wilder egindako "Traidor en el infierno" filmea baita 7,00etan ere ikusgai izango dugu. 'Haur Zinema' sailan berriz, hilaren 12an Loiolakoan "Los Goonies" eta Okendokoan "La Historia inateterminable" filmeak, ikusgai izango dute etxeko txikiak.

Lasarteko Okendo zine klubak bi emanaldi eskainiko ditu aste honetan. Alde batetik otsailak 7an Richar Donnerrek egindako "Goonies" filmea eta bestaldetik, hilak 11, Tobe Hopper zuzendaritzapean egindako "La casa de los horrores" eskainiko dute. Emanaldiak arratsaldeko 7,30etan eta gaueko 10,00etan; filmeak Teodoso Zineman izango direlarik.

bertsoak

□Oiertzungo bertso-pa-per lehiaketa.— Joan den astean kaleratu genuen bertso gehiago zabalduz, lehiaketa honen beste xehetasun batzuk emango ditugu. Argitu genuen bezela, lehiaketa hau On Manuel Lekunaren omenez eratuko den VII. bertsolehiaren asteko esparruan kokatzen da. Lan-araudian adigunea ezarritik, baldintzak honako hauek ditugu: — Lehiaketaren partaide bakoitzak gutxienez sei bertso idatzi beharko ditu (12 gehienez). —

Partaide bakoitzak ez ditza-
ke lau lan baino gehiago bi-
dali. — Gai askea izango da.
— Bertso berriak izan be-
harko dute, hots, kaleratu
gabeak. Berri hau datozen
asteetan zabalduko ditugu
baina xehetasun guztiak (sa-
rien kopurua, sailak, adin
mailak, e.a.), jaso nahi di-
tuenaren hemen du Girizi El-
kartearen txfk:
(943)491130-628300. Azke-
nik gogoratu, lanak bidal-
tzeko epea martxoaren
31an bukatzen dela.

ihardunaldiak



Emakumea eta literatura.— "Jakin" aldizkariak antolaturik eta Eibarko udaleko euskara batzordea babesle delarik ospatzen ari da dagoeneko euskal literaturaren III. astea Eibarren. Aurreko bi astealdietan euskal literaturari loturiko bi gai aztertu zituzten: euskal antzerkia alde batetik eta haur eta gazte literatura bestetik. Urte honetan aztertzen ari diren gaia ordea emakumea eta literatura da, arazoa zer den eta zertan datzan aztertu nahi da hitzaldi hauetan. Euskal literaturaren aste honi bukaera emateko astearte honetan Nerea Azurmendi Zabaleta arituko da gai honi buruz. Jorratuko duen gaia "Emakume idazleak euskal literaturan" izango da. Hitzaldia arratsaldeko 7,30etan ospatuko da.

"Zertan garen"

"Zertan garen" izenburupean zenbait hitzaldi antolatu dituzte bilboko kultur aretoan. Honela, otsailaren 10ean U.Z.E.I.ko zuzendaria den Alberto Agirreazaldegik hitzaldi bat eskeiniko du arratsaldeko 7,30etan, gaia U.Z.E.I. bera izango delarik. Hitzaldi hauekin jarraituz, otsailaren 16an, nahiz eta oraindik egun hau

pixkat urruti geratu, ARGIAko kazetaria den Josu Eandak Euskarazko prentsari buruzko hitzaldia eskeiniko du. Azkenik, otsailaren 23an kultur bultzatzaile eta Udako euskal inbertsitarean zuzendari ohiak E.K.B.ri buruzko hitzaldia eskeiniko du. Gogoratu arazi hitzaldi guztiak arratsaldeko 7,30etan ospatuko direla kultur aretoan, Elkano,20.

arte

Araba pinturaren bidez ikusita

Gazteizko Artelarre ikustaretoaren eskutik kaleratzen da 'Araba bere margolarien ikuspegiatik' deritzan erakusketa. Otsailaren 8 bitartean bilduma hau ikusgai izango direlarik.

Ohizko bustingintza Tolosan

Euskal Bustingintzari buruz zenbait xehetasun eta argibide bai teoriko ki bai praktika mailan ikusteko aukera ezin hobea dugu hilaren 14



arte Tolosako kultur etxean eratu den erakusketan.

Donostian zenbait erakusketa

Aurrezki kutxa municipalaren kultur aretoan, Mikel Munarriz Ilzarbe nafarraren 39 koa-droak zintzilikatuko dira hilaren 7 arte. Altxerri gale-rian, berriz, Javier Baldaren azken margo-lanak aurkeztuko dira erakusketa baten bidez otsailaren 15 bitartean. Loiola-ko kultur etxean Joaquin Garrido eta Santi Ruiz artisteen pintura eta

esku-lanak otsailaren 12 arte. Azkenik, Txuri Beltz pubean Jose Criadoren 'Cibachrom' argazki bilduma ikusgai izango du-gu hilaren 12 arte.


Margo eta marrazkiak Bilbon

Gran Vía kalean Bizkaiko Aurrezki Kutxak duen erakusgelan Jorge Garcíaen marrazki eta margoak hilak 7 arte ikusgai izango ditugu. Bestalde, Windsor Kulturgintzan, Bonifazioren hilaren 7 arte bere margoak ikusgai izago ditugu. Azkenik, Paco Cuadrado otsailaren 9ra arte zintzilikatuko ditu bere margo eta marrazkiak Caledonia aretoan.

ikastaroak

● **Argazki ikastaroa.**— Soralezeko "Kontrargi" argazki taldeak argazki ikastaro bat antolatzeko asmatan dabil. Ikastaro hau oinarriko mailan eskainiko da eta bertan parte hartuko duen jende kopurua mugatua izango da. Ikastaroaren hasiera Otsailaren 8an izango da eta bukaera berriz 19an, ordutegiari buruz esan behar da egunero ordu bateko klasea izango dela asteen bost egunetan. Beraz ikastaro honetan parte hartu nahi dutenak bere izena ematera azaldu daitezke bai elkartearen lokaletan eta bai Juanma argazki dendan. Kontutan eduki behar da bertan parte hartuko duen jende kopurua mugatua izango dela. Ikastaroaren balioa, bertan erabiliko diren materialeak barne direla, 1000 pezetakoa izango da.

● **Euskal kulturaz ikastaroak.**— Uribe Kostako A.E.K. ari da ikastaro hauek antolatzeko asmatan. Aspal-danik dabilta ikastaro hauen antolaketa lanetan baino badirudi ez dela jende gehiegi animatu. Euskal kulturaz ikastaro hauen barruan, bertolaritza, literatura, euskal geografia eta historia, mitologia, bizkaiera... eta beste gai batzuei buruzko ikastaroak nahi dituzte antolatu Uribe kostakoak. Beraz animatu zaitezte Uribe Kosta aldekoak eta hor daukazue ikastaro polit batzuk. Matrikula egiteko Leioa, Erromo, Areta eta Algorta-Getxoko euskalkietan egin dituzkazue, eta matrikulazio epea jendearen arabera luzatuko dela adierazi digute.



● **Euskara ganoraz.**— Bilbo aldetik datorkigu kasu honetan euskararen aldeko ikastaro berri bat. Ulibarri euskaltegia da ikastaro honen antolatzailea. Eskeiniko diren mailak, euskalduntze, E.G.A. prestatzeko, euskara sakontzen eta itzulpengintza izango dira. Informazio eta matrikula: Ulibarri euskaltegia, Tf.444-19-41.

lehiaketak

□ **Iruñeako Sanferminetarako kartel lehiaketa.**— Iruñeko udalak zabaldu du honez gero aurtengo Sanferminetarako kartel lehiaketarako orijinalak aurkezteko epea, horretarako azken eguna otsailaren 15a izango delarik. Lehiaketa aberriko nahiz atzerriko artistek parte hartu ahal izango dute, beraien lanak Iruñeko udaleko alkate Txit goiari bidaliz,

Hiritar-Zutapen arlora. Aurkeztutako lanak 100 zentimetrotako altuera eta 70tako zabalera dunak izango dira. Lehiaketaren lehen saridunak 300.000 pezetako dirutza bereganatuko du, obraren jabe udala egiten delarik. 75.000 pezetako bi akzesit banatu daitezke, kasu honetan ere obrak udalaren eskuetan geldituko direlarik.

kirolak

Idiazabaleko VIII. herri krosa

otsaila

7 Idiazabaleko kirol elkartek antolatzen duen herri krosak zortzigarren urtea bete du. Maila desberdinak ezarri dira aurtengo ere eta honela goizeko hamaiketan benjaminak, alebinak eta infantilak ate-


rako dira, bai neskak eta bai mutilak, eta eguerdiko hamabietan helduak aterako dira, azken hauentzat ibilbidea 10 kilometrotakoa izango delarik. Izena emateko epea, irteera baino ordu laurden bat lehenago amaituko da. Beraz badakizue korrikalariak, heldu den igandean Idiazabalen festa egun polita.

Legutianon arraun probak

otsaila


7 Igandez beste proba bat ere, izan ere Euskadiko arraun federakuntzak antolatzen duen lehen arraun proba ospatuko da. Proba hau Legutianoko aintziran ospatuko da eta bertan Bizkaia eta Gipuzkoako arraunlariak parte hartuko dute. Bertan parte hartzeko, aurretik arraunlariak klasifikatoria proba bat egin beharra izan dute beraien probintzietan, beraz pentsatu daiteke proba honetan azalduko den maila nahiko altua izango dela. Bertan parte hartuko duten untxiak, outrigger-eko modalitate guztiak izango dira, beraz badute nora joan heldu den igande honetan kirol honetako zaleek.

IRUDIEK BADUTELA ZER ESANIK ? ! ...



Tregoa eta negoziaketa abertzaleen itxaropenerako

ETAk hartu du euskal politikako protagonismoa, bi hilabetetako tregoa eskainiz. Euskadiko politikagintza fase berri batean sartzen dela dirudi, azken hilabeteko zenbait gertakizun —biolentziaren kontrako hitzarmena, adibidez— beste irakurketa batez aztertu behar dira, eta zalan-tza guztien erdian perspektiba berriak zabaltzen dira.



Tregoa espektatibak biztu dira; orain nola zehazten ikusi beharko da.

Politikariek bezala kazetariak, ETAk urtarrilaren 28an zabaldutako agiriari komentario bera egin diote: abagadune hau ezin dela alferrik galdu. Interpretazio ezberdinak egin dira —asko edo gutxi aldatu dela ETAREN hizkuntza, ahuldadez edo irtenbide bat eman nahiz ari direla horrela ETAtik, bere eskakizunek leku handiagoa edo tikiagoa dutela gaurko legedian, legedia aldatu daitekeela edo ezin dela aldatu, negoziaketa politikorik izan daitekeela edo ezinezkoa dela...— baina gauza batean denak

zeuden ados: eseri behar dela, hitzegin behar dela eta irtenbide posibleak aztertu behar direla.

Tregoareen berria: bonba bat

Urtarril honen hasieran **Jose Antonio Ardantzak** bere inguruan bildu zuen hitzarmenak markatu du urte honen hasiera. PSOE, AP, CDS, EA, PNV eta EE ados jarri zituen prozesotik aspaldi kanpora gelditua zen HB. Euskal Telebistaren bigarren katean, Eugenio

Ibarzabalen saioan, **Iñaki Esnaolak** gainerako seiei aurre eginaz erakutsi zituen beste kontakto batzuen arrastoak: **Aulestia**k mespretxuz aipatzen zion «**Aljerreko bazarra**» bazegoela aitortzen zuen, kontaktoak edo negoziaketak alegia, eta Aljerretik aterako zenaren arabera ez HBk bakarrik baizik eta indar politiko guztiek beharko zutelako mugitu.

Urtarrilaren 27ko «Diario 16»ean aurrerago zihoan Esnaola. Negoziaketa KAS alternatiba mahai batean lortzean baino, lortzeko bidea emango zuen marko aldaketan zentratzen zuen. Bixikeria bat: Gasteizko azken hitzarmenak PSOERI negoziaketa baterako eskuak libreago uzten zizkiola zioen. Ordurako, negoziaketen afera mugitzen ari ote zenaren zenbait susmo bazen, eta urtarrilaren 28an albiste agentziek aurreratzen zuten ETAREN eskaintzaren baten berria. «Egin» egunkariaren 29ko lehen orria bonba bat zen: ETAk Madrilgo gobernuari tregoa eskaintzen zion, negoziatzera esertzekotan.

Urrats berri bat da ETAREN proposamen hori 1984etik gaur arte luzatuz joan diren kontakto, elkarrizketa eta zurrumurruen bidean. Urte horretan **Txomin Iturbe** Andorran Guardia Civileko komandante batekin elkarrizketatu zenetik, kontaktoak ugariak izan dira, presioak oso gogorrak, zurrumurruek asko eta beti bukatu dira hutsean, antza. Oraingoan zerbait aldatua da.

Aspaldiko proposamenak

«Egin» egunkariak ETAREN agiria plazaratzeko bezperatan, Gipuzkoako komunikabideetan —irratian batik bat— galdera bat zebilen ahoz aho: Iñaki Esnaolaren hitzetan ez al dago aldaketa bat? Herri Batasuna ez al da aldatu? Hori ETAREN aldetik aldaketaren bat ote datorren seinaleztat ulertu behar al dugu?

Esnaola azken urteotan asko ez dela aldatu aitortu beharko da. Azken delatant berarekin egindako elkarrizketak segitu dituenak badauki orain mundu guztiak eztabaidatzen duen proposamenaren antzekoak defenditu dituela. Aspaldi aipatuak zituen Nafarroa —Hego Euskadirentzako marko politiko bateratua— eta Autodeterminazioa KAS alternatibaren funts bezala.

1986ko azaroan, hauteskunde bezperatan, honela mintzatu zitzaion «El Diario Vasco» egunkariari: **«Nuestra propuesta es el replanteamiento del actual marco político y la negociación entre ETA y el Estado»**. Abenduaren 21eko zenbakian, ARGIAri honela erantzuten zion: **«Une historiko importante bat alferrik galtzeko arriskua dago»**. Eta elkarrizketan zehar: **«...bakoitzak dauka eskubidea bere proposamenekin joateko mahai batera, gero handik aterako dira gauzak, nork bere emaitzak hartuko ditu, baina akordioa hor egongo da»**. Eta bukaeran: **«Aldatu dezagun markoa. Noraino, guk esaten dugun bezala ala bestela? Hori mahaitik aterako da»**.

Laburtzeko, ETaren eta Madrilgo agintearen artean ados jarri daitezela aurrerantzean funtzionatu behar duen markoan. Eta bi horien akordioa eta negoziaketa bidea martxan doan heinean, paraleloki, indar politikoei beren lana egin dezatela. Proposamenak eta hitzak HBren aldetik ez direla aldatu dirudi, beraz. Urte beteren buruan hori baldin bada denen ahotan dabilena, zerbait pasea da tarte horretan.

1986ko abuztuko berriak

ETaren agiriak berak ematen du goeraren aldaketaren berri. 1987ari hasiera (urtarrilaren 11ean) Txomin Iturbek **Julian Sancristobal** eta **Manuel Ballesterosekin** izandako elkarrizketarekin eman zitzaion, oso kontakto mugatuekin, beraz; eta bukaera aldiz **Julian Elgorriagarekin** **Antton Etxebestek** edukitako elkarrizketekin iritsi da, eta gaitzat negoziaketa mahaia osatzeko prozesoa eta tregoa zirela. Aldaketa nabarmena zen.

Aldaketak, hala ere, askoz lehenagotik ziren martxan. 1984ean izan ziren lehendabiziko kontaktoak. **Kepa Ordoiki** gudari zaharra, **Juan Félix Eriz** eta orduan Madril enbaxadore frantsesa zen **Guidoni** izan ziren bitartekoak. Ez zen adostasunik iritsi. Frantsesek estradizioak jarri zituzten martxan eta espainolek bitartean kontaktotan segi nahi zuten. Urriaren bukaera aldera bukatzen dira harremanak, eta azaroaren 20an asesinatuko dute HBko gizon klabe bat: **Santi Brouard**.

1985ean hasten dira berritua batera eta besterako enkarguak. 1986an zehar

mamitz joango dira, eta uda horretan ezagutaraziko ditu prentsak. Hor jakin go da Gasteizko Gobernua ere saiatu dela bitartekotza lanetan, besteak beste Txomin Iturbe Estatu Frantsetik kanporatu ez zezaten. Informazio asko abuztuan argitaratu zen —PNVren zatiketaren bezperatan— eta zenbait sektoretatik «udako sugea» deitu zitzaion bezala, komentaria politiko batek baino gehiagok idatzi zuen sozialisten aldetik irtenbide negoziatu baterako eritzi publiko prestatu nahiz ari zirela.

Barrionuevok eskaintza bakarra reintsertzioa zela deklaratzearan bukatutzat eman zen polemika, baina prozesoa martxan zegoela inork gutxi ipintzen zuen zalantzan.

Errepresioa beti goraka

Herri Batasunako buruzagien deklarazioak kasualitatezkoak ez direla pentsatuta, garbi dago ETatik eta HBtik etengabeko saioa egon dela negoziaketaren aldera, eta aipatzen ziren «erdibideak» zenbait liderren txepelkeriak ezin zitezkeen izan. 1987an zerbait gertatu da lehen ezinezkoa zena orain posible izateko.

ETaren eta bere inguruaren kontrako eraso gogorra izan da azken hila-beteotan. GALEk isurierazitako odolak txukatu ahala, ehun eta hirurogeitik gora iheslari espultsatu ditu Estatu Frantsesak, hogeitamar —horien artean batzuk oso ezagunak— sozialisten denboratik deportatuta daude, beste berrogei bat inguru Aljerian. Hori gutxi balitz, errefuxiatu baten babestaile izatea bera espetxera joateko hainako delitu bihurtu da. Itotzeko moduko egoera.

Hegoaldean presoek sakabanaketa eta kartzeletako bizimodua gogortzea batetik, eta Herri Batasunaren isolamendua bestetik. ETaren inguru gogor kolpatuz «beratu» nahi izan da hila-beteotan. Aski «bigundua» ikusten duenean al dago prest PSOeren gobernu urrats berriak ematera? Justu azken bi hiru urteotako desgasteak al darama ETA tregoa aipatu dituen baldintzetan onartzera?

ETaren eta KASen analisiak besterik dio. Madril eta Parisko gobernuak ikusia dukete, analisi horren arabera, beren artsenal errepresiboa agortzen ari direla, neurri ilegalak erabiltzera behartuta daudela... eta hala ere ez dutela ETA desegiten. Ez bait da ahantzi behar Hipercor eta Zaragozako koartelaren kontrako atentatuak aurten gertatu direla.

Zaragozako bonba hura

Bartzelonako Hipercor petto bat bezala aitortu zuen ETak baina penintsulan sekulako zirrara eragin zuen. Zaragozako koartelaren kontrako erasoak,



aldiz, ETA eskalada batean murgiltzeko prest zegoela esan nahi zuen. Bere ahludadea ezkatatzeko sarraskia izan zela ere esan da. Baina Madrilgo gobernuarentzako ere koste gogorra ekarri du. Erakunde armatuak bere mugimendu ahalmena erakusteaz gain, irteerarik eskaini nahi ez zain bidea noraino iritsi daitekeen erakutsi nahi zuela dirudi.

Zaragozakoaren ondorengo errealizazioek nahiko garbi adierazi zuten «zerbait bazebilela». Prentsan, artikulu oso gogorren aldamenean, komentaria politiko askok lasaitasuna eskatzen zuten, holakoak gertatu behar zutela baina gertakizun baten gogortasunak ez gintuela eraman behar horiek behin bertirako mozteko bidea galtzera. Jakina.



1987an izan diren gorabehera askoren klabeak orain hasi dira argitzen.

kontaktoak bazirela udan Mitterranden aurrean Felipe Gonzalezek berak aitortua zuen publikoki.

ETAk bere indarra badauka, min asko eta koste gutxirekin egiteko. (Horra beste ebidentzia prentsa espainiarrentzako: eraso zenik gogorrena izanda ere Espainian eta polizien kontra izatekotan, Euskal Herrian zirrara gutxi sortzen zuela kalean). Eta Herri Batasunak aldi berean bototan gora egin du azken hauteskunde guztietan, hegemonikoa zen PNV zatitu eta PSOErekin elkartzera behartuta aurkitu zelarik.

Gasteizko paktoarekin zer?

ETAren agiriaren argitara, Gasteizko azken akordio berriak ere beste itxura

bat hartzen du. Zenbait politikariek argudiatu du ETAren proposamena korrika eta presaka heldu dela, Gasteizko hizarmeneko partiduek protagonismoa hartzen zutela ikusita. Kronologikoki posible dena logikak gezurtatzen duela dirudi: ETAk ezin izan du proposamen hau hain azkar pentsatu, erabaki, kontsultatu eta argitaratu.

Tregoa proposamenak, aldiz, Gasteizko akordioa premisa berrietan aztertzerantz behartzen gaitu. Kepa Aulestiak: «Urtarrilaren 12an akordio hura sinatu genuen alderdiok, orduko sintonia berreskuratu behar dugu, negoziaketak politikoa gure eskuetatik kentzea galerazteko». Inaxio Oliberi: «Ezin dira partiduen ahotsaren ordez ETAren eta Estatuaren arteko

elkarrizketa batzu —gertatu behar zutela denok genekien— ipini».

Efeko kolpe ederra dela idatzi da. Hori baino gehiago ere bada: ETArekin edozein gai politiko negoziatzeko nor-tasuna ukatzen zion akordio bat zintzilik ezartzen du. Hasteko, Gasteizko akordioa partiduek beren protagonismoa ez galtzeko egindako joko bezala ikusten dute askok gaur. Eta gero, orduko unanimitatea deusetan gelditu daiteke: ETArekin negoziaketak nola ikusten ditu partidu bakoitzak? Hori da galdera berria, eta PSOEek zer esaten duen beharko ikusi.

Kolperik okerrenea Eusko Alkartasunarentzako izan da. Inaxio Oliberiik urtarrilaren 12an alde egin eta gero sinatu zuenean, partidu estatutisten eta HBren arteko erdibidea ito zuen era grafiko batean. Orain, sinatzean kide zituen partiduek ostikada eman diote: telebistan Artzalluzek agindu zuen bezala, Estatutoaren garapena aztertzeko batzorde berezirik ez da izango. Egun beltzak Karlos Garaikoetxearentzako, eta bere espazio politikoa berriz definitu beharra.

Esperantzari leiho bat

Kronika honetan garrantzizkoena gertatzen zaigu aztertzeko: zein etorkizun espero dezake tregoa eskaintza honek? Proposamena hor dago, eta prentsak egin dituen sondaketek ederki erakutsi dute Euskadiko populazioak bere gehiengoan itxaropen handiz hartu duela berria. Publikatu direnetatik aparte, gauzak asko aurreratu direla kalkulatzeko askok, ETAk bere tregoa eskaintza publikoki adieraztea hola interpretatuz.

Noraino iritsi daiteke? Tregoarekin ondotik akordiora heltzea posible al da? Posizioak ez al daude urrunegi? Aldaketa bat gertatu da, eta lehen eztabaidagai zirenak orain gutxienik posibilitate zehatz bezala ikusten dira. Horrek sortzen du itxaropena abertzaleen artean, tirabira politikoaren gainera preso eta errefuxiatuak etxeratu eta Hego Euskal Herrian minimo batzuetara iritsi beharrean sinesten duten abertzaleetan.

Bide politiko ezberdinak eta etenak ez dira kasualitatez sortu, zatiketarik sakanak dira. Baina egoera berri baterako bideak itxaropen argi bat bizten du. Ez al da konponketaren etsai ezkuturik izango? Antzeko beste esperientzia gehiago izan da munduan, eta gerra zikinak holakoetan egiten dituzten triskantzarik beldurgarrienak. Baina hainbeste sofritu eta sofrizten duen Herri honek itxaropenerako eskubidea bada.

INAKI ZUBIONDO

ASK ere fase politiko berrirako prestatzen

Gipuzkoan ospatu zuen joan zen igandean ASKk (Abertzale Sozialista Komiteak) bere aparteko Nazio Batzarra. KASeko erakunde horretako lauhun lagun inguru bildu ziren koiunturaren analisisa eta barne-estatuen azterketa burutzeko, eta Nazio Batzorde eta Nazio Kontseilu berrien hautapenerako.

Joan den asteburuan ospatu zen «Gipuzkoako herri batean»—Abertzale Sozialista Komiteak (ASK) erakundearen aparteko Nazio Batzarra. Horren berri jakin nahian bozeramale batekin hitzegin dugu eta aipatu digun lehendabiziko gauza batzarrak izan zituena partaidetza eta euskararen erabilera handiak izan dira.

«Igandean ospatutako Nazio Batzarra 1986ko Azaroaren lehen ospatutakoaren segida izan da. Bi izan dira ikutu ditugun gaiak, koiunturaren analisis bat KASek 1987ko udaberrian egindakoaren gehigarri gisa alde batetik, eta bestetik gure barne-estatuen egokitzeta» laburbildu digu ASKren bozeramaleak. Koiunturaren analisisa hiru mailatan eginga dago eta mundu, estatu eta Euskadi mailako azterketak egiten ditu.

Begiak 1992.ean jarrita

Nazioarteko azterketa alde batera utzita estatu espainol eta Euskadi mailan honako puntuak nabarmendu ditu ASKren koiuntura azterketak. «Estatu mailan, Erreforma politikoaren asentamendu dextentekoa aztertzen da. Euskal Herri mailan eman ez den asentamendua. PSOE ikusten dugu botere errearen eta estatu espainolaren jettore moduan. Horrez gain ikusten da PSOE botere arloak ere lortzen ari dela estatuan bertan. Aztertzen dugun beste puntuetako bat Askapen Mugimendurikiko duela bi urtetik ona PSOEk hasitako eraso da, kontutan hartuta estatu mailan Erreforma asentatzeko eta Europako egituretan sartzeko 'problema vasco' deitzen duten horrekin buka-

Negoziaketa hotsak dabilzan garaian, ASKk ere egokitze lan bat egin nahi izan du.

tu behar dutela. Politika mailan hartutako neurriak, informazioaren intosikazioan, errepresioan, arlo ideologiko, juridiko eta nazioartekoetan hartutako neurriak Askapen Mugimendua desegitearen aldetik doaz, horretarako ezarri duten epe baten barruan: 1992.aren inguruan».


Gasteizko azken hitzarmena nola aztertzen duten eta horretaz daukaten balorazioa ere eskatu diogu bozeramaleari Euskadi mailako azterketarekin batera. «PSOEk lortu egin du azkenean hemengo partiduak ere estrategia horretara makurtzea. Madrilgo eta Gasteizko paktoen bidez ez dute bakarrik ETArekin aurka joan nahi, Askapen Mugimendua osoaren kontra baizik, PSOERI kobertura politikoa ematen diotelarik aurrera daraman eraso orokorrekin jarraitzeko. Dena dela, garbi eduki behar da, eta PSOEek ere halaxe dauka, errepre-

siorearen bidetik ez duela Askapen Mugimendurik amaituko, eta negoziazio politikoa emango denez PSOE ahaleginduko dela Askapen Mugimendua ahalik eta ahulena irits dadin negoziazio horietara. Gure lana da ideologikoki eta politikoki indartzea Mugimendua; egiturak indartzea; lan gaitasuna handitzea eta lan gehiago egitea herri sektoreetan, hain zuzen, negoziazioa iristeko gure indarra ere mahai gainean egon dadin».

Herri mugimendua indartu

Azken aste hauetan askotan agertu izan da ASK prentsa espainolean nahiz Euskal Herrikoan. Intosikazio edo ez, ASKk eragiten dituen zenbait mugimenduri buruz hitzegin da, beti ere ETArekin loturak bilatu nahian, ezota mugimendu horiek, ekologista-antinklearra esaterako, KASen barruan daudela esanaz. Mundu guztiak gogoratuko du delako 'i' hori. Zer egiten du ordea ASKk? Zertara dedikatzen da?

«ASK eta KASi buruz orokorrean ate-



ratzen ari den informazio intosikazio guztia poliziaren iturrietatik dator. Egia dena, eta guk ez dugu inoiz ukatu, da ASKren militantzia Mugimendua ezberdinetako erakunde herritarretan ari dela lanean. KAS blokearen barruan daukagun lana horixe delako hain zuzen. Errepresioaren aurkako mugimenduan, Euskalduntze Mugimenduan, Hitar Mugimenduan, Drogomenpetasunaren aurkako Mugimenduan, eta Antinklear eta Ekologistan. Mugimendua hauek Euskal Nazioaren Askapen Mugimendua ireldean joatea da gure lana. Horregatik gure militanteek proposamenak aurkezten dituzte. Batzutan onartu egiten dira eta beste batzutan ez. Baina horretatik esatea Herri Mugimendua horiek KAS blokearen barruan daudela... Intosikazioa. Gezurra da».

Garbi utzi nahi izan digu KAS blokearen barruan ASKk jokatzeko duen papeira bloke horretako beste erakundeen



ondoan: langile mugimenduan egiten du lan LABek, gazteen mugimenduan Jarrai-k eta herri mugimenduan ASKk. «ASK erakunde iraultzailea du gu eta KASen helburu estratejiko berak dauka. Horrek izaera berezi bat ematen digu. Gure papera KASetik herri mugimenduan eragitea da, mugimendua globalizatzeko. Uste du gu sektorialki mugimendu bakoitzak ez duela aurkituko planteatzen dituen arazoetarako solidarik, ez bada KAS alternatiba lortzearen markoan. Herri Mugimenduetan lan egiten dugunean hori ikustarazi nahi izaten dugu, baina Herri Mugimendu bakoitzak bere bidea erabakitzeko nortasuna dauka, gurekin bat etorri ala ez».

Estatutoak egokitu

1983. urtean ospatu zen ASKren IV. Nazio Batzarrean ezarri zituzten erakunde horren estatutoak. «Erakunde estatikoa ez garen neurrian, prozesu dialektiko batean egonda, estatutoak egokitu nahi izan ditugu erakundearen errealitateari gehiago hurbiltzeko. Bost urte hauetan aurrerakada handia izan du gure eraginak Euskal Herri Mugimenduan eta hein berean koantitatiboki eta koalitatiboki asko hazi da gure militantzia. Bestalde, datorren fase politikoa aurreikusiz, negozioazio politikoa-aren ataria, ASKk KASen orokortasunean jokatu beharko duen papera kontutan hartuta, beharrezko ikusi dugu estatutoak fase politiko horretarako egokitzea».

Azken puntu hau azpimarratzen ahalgindu zaigu bere ustez orain irekitzen den faseak daukan garrantzia dela eta. «Hobeto antolatu behar gara, Herri Mugimenduan daukagun eragina egokia goa izan dadin, eta Herri Mugimenduak etapa honetan behar duen garrantzia izan dezan. Gaitasuna baldin badaukagu mugimendu hauek antolatzeko eta indartzeko, helburuak lortzeko posibilitatea orduan eta hurbilago egongo da Askapen Mugimenduen orokorretik gobernu behartuz negozioazio politikoa eseritzen».

ASKren estatutoetan emandako aldaketak ez omen dira egitura aldaketak, baizik eta egitura bakoitzak ASK barruan bete behar dituen lanak betetzeko egokitze bat. HASI alderdiaren azken kongresoaren ondorioekin zerikusirik ba ote duen galdetu diogunean, «Ez dauka zer ikusirik. Koiuntura analisia egitea eta gaurko errealitatea ulertzen saiatzea izan daitezke antzeko gauzak. Baina alderdiarena Kongresua izan zen eta orain guk ospatu duguna aparteko Batzar bat» erantzun digu.

I.Z.

D iruaren hotsa



BB-V dela eta

Lehenago asteko berririk garrantzitsuenetakoa, ETAre eskaintza kenduz gero, Banco de Bilbao eta Banco de Vizcayaren arteko fusio edo elkartzeari buruzkoa izan zen. Zalantzarik ez. Azkenik, Banco de Bilbaoren aurreko saioak porrot egin bazuen ere, oraingoan, badi-rudi, bere buruek nahi duten eran amaituko dela. Orduko saiakerari buruz zertxobait esan genuen astekari honetan eta aitortu ere beste saiakerak izango zirela eta honela gertatu.

Hori esmatzea ez zen batere zaila. Duela ehun urte baino gehiago Marx zaharrak argi eta garbi ikusten zuen kapitalismoaren garapenean nahitanahiezkoa zela kapital-elkartek egitea, kapitalak konzentratuz eta zentralizatuz joango zirela. Prozesu hau honela izan da eta hemendik aurrera ere honela jarraituko du.

Askotan ez gara konturatzen baina Espainiar Estatuan zazpi banku handienek banku txiki pilo bat irentsi edo elkartu dute azken hamarkada honetan. Ez bakarrik hori, enpresa mordo bat ere banku hauen pean ezarri da: elektrikak, aseguruak, etab. Hots, irabazi handiak dituzten enpresetan sartu dira bidez irabazien arriskuak ezberdin daitezzen.

Elkarte honi buruz gauza asko entzun da. Batzuk, politikari ofizialak, ekonomilariak, elkarte profesional eta merkatalak (Merkatal Ganbarek, etab.) guztiz txalotu dute. Besteek, sindikatuek edo langileen ordezkariak beren zalantzak

azaldu dituzte. Normala. Baina harritu gaituena zera izan da, alegia, komentaria 'abertzale' batzuen ustetan BBk eta BVk izugarriko ongizatea ekarri diotela Euskal Herriari eta fusio honen bidez, hemengo egoera hobetuko dela edo onuragarria izango dela euskaldun gutxiontzat. Benetan txundigarria. Ai, Sabino Aranak burua jasoko balu!!

Zalantzarik gabe, bi banku hauek Hego Euskal Herriko garapen ekonomikoan zerikusia izan dute. Baina zein izan dira kostuak? Nerbioiko ezker-aldeko kuxidarea ikustea nahikoa da; edo Lemoizko zentrallea toki horretan ezartzea; edo populazioaren %25a lanik gabe uztean ere erresponsable dira, beraiek paregabeko irabaziak dituzten bitartean; edo enpresak berrituzko gogorik ez izatean, gero birmoldaketa basati bat ezarri digutelarik; edo aberastasun hori sortzerakoan hemengo langileriak jasan duen zapalkuntza basatia. Beraz, aberastasuna eta ongizatea norantz izan da?

Eta zer egin dute BBk eta BVk Euskal herriaren nazio-erakuntzan? Aurreko mendearen argi definitu zen Bilboko burjeseria, 'burjeseria saltzailea' deritzana, salbuespen batzu eginez gero, Euskal Herri eta bere nazio-kulturaren aurka eta beti Espainiar monarkiaren alde jokatu zuen, Espainiar Familia Handienekin bat egiten zuen bitartean. Gero, badakigu, jakin ere, Francoren alde egin zuela apostua, Errepublika eta Euskal Estatuaren aurka. Gerrate ostean, Francorekin bat eginik euskal aztarna guztiak desegiten saiatu ziren, beraiek izugarriko irabazi ekonomikoak eskuratzen zituzten bitartean. Orain ere, bost axola Euskal Herria, irabazia bait da hauen helburu sakrosantua. Besterik ez.

Bestalde, banku hauen administrazioak Madril alderantz doaz emeki-emeki eta egiten dituzten inbertsio gehienak Euskal Herriatik at egin ere. Honek ez gaitu harrituko, baina bai ordea esaten denean Euskal Herriari ongizatea ekarriko diotela. Kapitalak eta kapitalistek, gauza guztien gainetik, ez bait dute aberrikerik eta hori, batipat, aski ongi erakutsi digute BBk eta BVk.

Are gehiago, azken finean, BBk eta BVk edo hauen jabeek «euskal arazoa» sortu dutenak dira eta inola ere ez aberrikeria. Politikoen metamorfosiak!!

BALAREN BAKAIKOA



Hango politikoen prezenterik gabeko joan-etorriak

Alemaniarako diplomaziak boom egiten du

Europako Ekonomi Elkartearen lehendakaritzan Errepublikan Federaleko gizon bat dagoelarik (sei hilabetez aritzeko da bertan), historian lehenbiziko aldiz, beste alemandar bat izendatu berri dute OTANen buru izan dadin. Kasualitatea?




Helmut Kohl Frantziar izan berri da, aldebaitako hiru batzorde (militar, ekonomikoa eta kultural) osatu dituztelarik.

Kasualitate ez dena munduan zehar alemandar diplomaziak aurrera darman ofentsiba diplomatikoa da. Alderdi askotara jotzen du ofentsiba horrek. Lehenik eta behin, ekialdera, batipat «perestroika» hasi zenez geroztik biziki azkartu dena. Betidaniko joera bat da hori, beste alde, komentaria frantses baten ongi gogoratu berri duenez, Frantziarentzat Afrika izan dena izan bait da Alemaniarentzat ekialde sozialista: «presentzia natural»eko eskualdea; atze-

kaldeko patioa, bestela esateko —jaki-na, errusiar potentziarekin konpartitu behar dena.

Bere intentsitateaz nobedosoagoa dena hirugarren munduari buruzko politika da. Alemandarren tradiziozko inbertsio lekuak Argentina, Brasil, Chile eta Paraguay izan dira, orain berriz Erta-merikan ere badute bastanteko indarra, eskualdeko erregimeneke oro (Honduras, Costa Rica eta El Salvador-ekoek batipat, baina gainerakoek ere bai, Ni-



caraguakoa salbuespen ez izanik) aski lotura estuak dituztelarik, zeintzuk sozial-demokratekin, zeintzuk kristau-demokratekin, noski.

Espektakularragoa da Ekialde Erdian emaniko jauzia: azken lau hilabeteetan Hans-Dietrich Genscher kanpo arazotarako ministraria Saudi Arabia, Irak, Jordania, Egipto, Siria eta Israelen izan da, denekin ere munta bateko akordioak burutuz.

Horratio, harrigarriena parte horretan zera da, Iran eta Irakekin, biekien batera ongi konpontzen zelan asmatu duen Bonnek: biezat bait da hornitzaile garrantzizkoa. Alderdi horretako erregimen-giltz batek, Saudi Arabiak, alemandar bat, Ulrich Wegener aukeratu du bere sekuritate indarrak formatu ditzan.

Helmut Kohl kantzilerra Kamerun, Mozambique eta Kenian izan zen azaroan. Baina Afrikaren baitan hegoaldean dauka Alemaniak benetako pisua. Ez ahaztu Namibia berena izan zutela aldi batez; Hegoafrika eta Zaireko gobernuen oso lagun ona da, eragin handikoa alegia. Bestalde, egunotan ibili da Franz-Joseph Strauss azken muturreko eskuindarra, Maputon eta Pretorian, hari batzuk lotzen dudarik gabe.

Hans-Dietrich Genscher-en estiloak fruituak ematen ditu

Alemandarrek ekonomiaren alorra lantzen dute beti aurrea: «banderaren

aurretik merkantziak» eramaki. Izan ere, beren jarrera politikoak baino, munduan zehar beren maxinak, autoak, beren teknologia eta negozioetarako beren seriotasuna dira ezagunagoak. Horri kultur politika burutsu bat erantsi behar zaio, *Goethe* institutuen bitartez, orobat eliz-jendearen bidez dararamaten «garapenerako laguntza» plan-gintza, eta azkenik partiduen «Fundazio»en lana: bai SPDk (*Friedrich Ebert Stiftung*-ekin) eta bai CDUk (*Konrad Adenauer Stiftung*-ekin) euskarri logistiko eta finantzieroa eskaintzen dietelarik munduan barrenako hainbat eta

hainbat alderdi eta sindikaturi.


Lanbide hoietan hamalau urtez aritutako Hans-Dietrich Genscher pozik egon daiteke. Alemaniako produkzioa —eta produzitzen onak zirela aski ongi forogatu ziguten alemandarrek aspaldian— bideratu egin du. Txiki-txiki eginda gelditu zenetik berrogei urte pasa direlarik, Alemaniak (kolonialismo tradizioz ez daukan Estatuak, bestalde) hirugarren munduko herriak zeinek-hobeto-hurruapatuko lasterkan oso antzatsua erakutsi du bere burua.

PABLO SASTRE

Pazifikotar nazioen xedeak bazter batera utzita

Hawai-Samoa-Guan: inperiorik zabalena

Estatu Batuen zabaltzearen historia, Pazifiko itsasoan, lehengo mendearen erdialdean hasi zen. Pazifikoranzko orduko hedatze horrek bi bide izan zituen: batetik Mexicoren aurkako gerrak, Guadalupe-Hidalgo-ko tratadiaz amaitu zirenak (1848); horretan Mexicok «bere» lurren erdia galdu zuen, estatubatuarrentzat Californiarako bidea libre gelditzen zelarik; geroxeago Oregon harrapatuko zioten Inglaterrari, eta Alaska erosiko Errusiari (1867); Far-Westeko abentura guztiak tarteko.



Nicaragua ikusmiran

Aste honetan Nicaragua berriz izan dugu ikusmiran bata edo bestearen aitzakiz. Gaurkoan contren hegazkina bota dutelako, biharkoan Esquipulasko ituna sandinistek betetzen ote dutenez, etzi Ortega datorkiela agintari madrildarrei, bestean Estatu Batuetako legebiltzarreak ebartziko duelako contrentzako 36 miloi dolarretako laguntza, eta abar luzea. Mendebaldeko aztertzaileek egiten duten galdera honako hau da: noraino daude sandinistak prest Nicaragua des-sandinistatu eta EEBBen lagun eredura itzultzeko?

Gure politikari liberal, sozialdemokrata eta bestek nazio subirano baten eraikitzean aurkitzen dute arazorik larriena. Herri txiki bat menpeko izateko; kolonia ekonomiko, politiko eta kultural izateko sortua ei dena askatze bidean jartzen denean, bere burua gobernatu nahi duenean da arazo. Eta dudarik ez, sandinistak lehenengo eta behin, beste edozein kontsiderazio ideologikoren gainetik, Nicaragua eraikitzen ari dira.

Amnistia irekia dago armak lagata bizitza politikora itzultzen direnentzat; La Prensa —erabat insurjentea— zabalik dago eta beste hamaika irati pribatu ere bai, bi aldezkarri berri dago; Kostalde Atlantikoan autonomia handia eskuratu dute; alderdi politiko guztiak legeztatu daitezke; negoziaketa zuzenak hasi dira gobernu eta contren artean... Zer gehiago eskatzen zaie Esquipulasko ituna bete dezaten? Agintea EEBBri uztea agian?

Nicaraguako kasua hortxe utzita, oso guttitan aipatzen dira Hondurasko desagertuak eta populazioaren miseria gorria, Guatemalako milizia zibilak eta armadaren sarraskiak, El Salvadorreko heriotzaren batailoiak, populazio zibilaren bonbazketak, atzerrian dagoen milioi bat lagunena, eta abar luzea. Aipaturiko hiru herriak —esaterako— Nicaragua bezain demokratiko ote dira? Horieta ezagunak diren giza eskubide ezak eta genozidio etnikoak ez ote diote kalterik egiten askatasunari ikurra diren EEBBen atzeko atariari?

Iñaki Goitioitza

Anartean, Estatu Batuak Txinan ageri ziren, eta Japonen; «amerikar la-ku»ren terminoa garai haietako da, Pazifikoari buruz alegia. Aldiz, Amerika eta Asia bitartean ozeano izugarria dago, kontrolatu beharreko hainbat irladiz txikiz.

Hawai aukerako lekuan dago. Erresuma independentea zen, amerikarrek berek ezagutua. Baina 1874ean marinak Honolulu iritsi ziren, eta Hawaiko azukrea zergarik gabe sartzen ahal da EEBBetan. Bertakoek independente nahi dute segitu, horretaz 1893an atzerako marinoak heldu ziren eta «Herri Segurtasun Batzorde» bat ipini zuten, bertako monarkia deuseztuz. 1898an, «hawaiar herria» anexionatu egin zuten iparramerikarrek; 1950.enetan Estatu gisa ezagutzen dute.

Guam-en hasi zen Micronesiako okupatzea

1898. hartan bertan, hamaika gauza gertatu ziren bazterretan. Cuba «independizatu» zen, eta aldi berean Filipine-

tan independentzia gerra bat gertatzen ari zelarik, Washingtoni zer okurritu eta irla haiek EEBBenak izan behar zutela: hala aldarrikatu ere, Parisko abenduaren 10eko trataduan.

Horietaz gain, Ozeanian, Espainjarenak ere baziren «Marianas» edo «Ladronas» direlako irlak. Espainiak hasteko horietako bat zeditu zien EEBBei: Guam. Horrek egundaino kolonia izaten segitu du, amerikarrek beren base-rik inportanteenetako bat dutelarik bertan. Nazio Batuen Erakundeak hamaika aldiz esan izan du, bertakoek autodeterminatzeko eskubidea daukatela (azkenekoz, 1983an), estatubatuarrek ordea gorrarena egiten.

Mariana irlak Micronesiakoak dira. Micronesia ekuadorretik iparraldera dago, Pazifikoaren mendebaldera. Micronesia osatzen duten beste bi irladiak honako haiek dira: Carolinak eta Marshall irlak. Guztira ere 2.000 bat irla, superficie eskasekoak (1.854 km²), baina itsasoaren parte zabal bat kontrolatzen dutenak.

Munduko bigarren gerra amaituta-

koan, 11 territorio zenbait potentziaren esku gelditu ziren, «aldi baterako». Horietatik bat bakarra ez da independizatu oraindik: Micronesia, hain zuzen ere. Menpekotasuna iraurarazteko, EEBBek zatitu egin dituzte, irladi horiek, administrazioz autonomo direlarik, kanpo harremanak eta defentsa amerikarren esku daude.

Rarotonga-ko akordioari amerikarrek ezetz

Azkenik, Samoa-ko irladian ere badute hanka bat ezarrikerik amerikarrek. Samoa-ren parte bat independente da (1976tik), beste parte berriz EEBBek kontrolatzen dute —berriz ere, NBEaren aholkuei jaramonik egiteke. Eta, koadroa osatzearren, hegoaldeko Korea, Taiwan, Japon eta Filipinetan ere amerikar baseak badaudela aipatu behar da.

Indepiente diren edo aurki izango diren Pazifikoko nazioek (Fidji, Tuvalu, Niue, Kiribati, Tonga, Nauru, Vanuatu...), Australiarekin batean, joan den urtean Rarotonga-ko akordioa sinatu zuten, zeinaren arabera ezin bait da eskualdean arma atomikorik fabrikatu, gorde edo erabili. Sobietar Batasunak bat egin zuen, «Pazifikoko foruma» osatzen duten nazio horiekin, Estatu Batuek aldiz ez zuten sinatu nahi izan. Zelanda Berriko gobernuarekin ere pikatu ei dira iparramerikarrak, estatu horrek bere portuetan armamentu nuklearra gelditzerik ez du nahi eta.

Pazifikoko bere jabego horiekin, Puerto Rico eta Virginia irlekin bezala Kariben, badirudi EEBBen helburua puska horiek Batasunaren Estatu bilakaraztea dela. Jomuga horrekin, lege guztien gainetik salto egiteko ere prest dagoela ematen du.

PABLO SASTRE



Munduko bigarren gerra aprobetxatuz,
Micronesiako lurraldeak okupatu zituzten Estatu Batuek.

Arma kimikoei buruzko akordiorik aurtzen?

Nazio Batuen desarmarako batzordeak arma kimiko guztien debekatzea erabaki lezake aurtzen. Batzorde horren buru dagoen Rolf Ekeus suediarrek esan berri duenez, «akordio hori lor

dadin ez dago dagoeneko oztopo militar edo politikorik», traba tekniko batzuk besterik ez. Industria kimikoarekin gogoratzan ari zen Ekeus, obserbatzaileen ustetan.

Urtarrilak 27an sinatu zen Banco Bilbao eta Vizcayaren arteko ezkontza

'Banco Bilbao-Vizcaya S.A.'k Estatuko banka dantzan ipini

Abenduaren 5ean zapuztu zen azkenik, Banco de Bilbao-k Banesto zurrupatzeko eginiko entseua. Ez da apaldu, ez, BB, eta Banco de Vizcaya-rekin hasitako harremanak segituan borobildu ditu; 1.992. urterako bankaren liberalizazioa iragarri da eta BB eta BV-ren arteko ezkontza botere-tsu honek dantzan ipini du banka guztia.




J.A. Sánchez Asiain eta Pedro Toledo-ren arteko besarkada. PSOE bi lagun hauekin pozik

1.992 urtea lan eta proiektu anitzen mugatzat har daiteke, Bartzelonako Olinpiadak ditugu, Amerikaren 'deskubrimendu'-inbasioa ospatzeko Expo-92a antolatu da Sevillan, EEE-k ate guztiak irekiko dizkio Estatu Espainolari, gisa berean, Europako banka indartsuek Estatu honetako banku ahulenak irensteko oztoporik ez dute kausituko eta, honez gerò, alarma joa izan da. BB-k hartu du inizatiba eta Banesto-rekin ezkondu baino, irenketaren bila joan izan da. Asmotan soilik geratu da.

BB eta BV arteko lehia amorratua

Elkar ongi ezagutzen duten bi banku hauetatik sortuko den *holding* berriak ez du aldaketa berezi handirik suposatuko, lan beretsutan ziharduten bi banku hauetan arituko bait da 'Banco Bilbao-Vizcaya S.A.' ere, baina tamaina erraldoiago batez, Estatu mailako ranking-ean lehen postua erdietsiko du, Europa eta munduko banku boteretsuen artean ipiniko delarik. Orain arte, lehia latza zuten bi hauen artean (sektore berdinekoak izateaz gain, bezero beretsuekin egiten bait zuten lan) eman den hurbilketak Neguriko fameliek gauza ororen ginetik diru etekinak ipintzen dituztela adierazten du. Eta hori ez da inoiz gauza berria izan.

Europako bankuei zaien izuak bul-tzatu du batze honetara, europear tibu-roiek (espekuladoreek) Estatutuan arrain txiki ugari bait dute, hortxe ditugu burua ezin altza dabiltzan bankuak, hala nola Hispano Americano, Popular, eta beren buruak saneatzen ari diren Banca Catalana (BV honen akzio kopuru handi batez jabetu da), Banco Cen-



BB-BV ezkontzarekin zerbitzu bikoizketak emango dira. Langileek beren lanpostuekin ordainduko dute

tral... Banku estatalen arteko lehia alde batera utzi eta batasunerantz emango dira urratsak, dagoeneko eman ez badira urrats gehienak. BB eta BV-k ekin diote laisterketari, atzean geldintzen denak irensketa edota mixerian gelditzea du patua.

Isilpeko birmoldaketa aspaldi martxan

Gutxienez, 3.000.000 langabetu duen Estatu honek pairatzen duen krisi garai honetan, banka alorrak etekinak besterik ez du jaso. 1.987. urte bukaeran, zergak ordaindu baino lehen, BB eta BV-ren artean 80.000 milioiko irabaziak lortu zituzten baina azken sei urteotan 6.000 langile kaleratu dituzte, era batera edo bestera. Estatu mailan 23.000 langilek zori bera ukan dute.

Eman den fusioa eta 'domino efektua' espero diren ondorengo fusioek lanpostu berririk ez dutela sortuko garbi adierazi du BBren lehendakaria den José Angel Asiain-ek, «gure gizarteak eskatzen duen proiektu hau aurrera ateratzeko, sakrifizio eta estualdi batzuz izango dira baina etorkizun bat izan nahi badugu egin beharrean gaude finantza talde sendo bat lortu ahal izateko». Honelako hitzen aurrean oso kezkatu agertu dira sindikatoak, ELA eta LABen ustez, ezkontza hauek emanez gero, lanpostu murrizketa erraldoi bat emango da, 'Egin' egunkarian iragarrienez, BB-k Banesto irentsi nahi izan zuenean UGT-k eginiko txosten batetan bi banku horien langile kopuru osoaren %30a galtzea espero zen, 1.300 banku bulego itxi beharrean izango zelarik.

Batzutan birmoldaketaz mintzo dira, bestetan estualditaz baina azken finetan, lanpostuak galduko direla aitor-tzea besterik ez dago.

Bestalde, akzionistei, hauei bai, etorkizun handiko enpresa baten partaide izatea eskeintzen zaie, enpresa sendoa, errentablea alegia. Errentabilitasun erizpideak dira jaun eta jabe.

PSOEn bedeinkapenez banku ezkontzak

Azaroaren 19an aurkeztu zuen Bancobao-k José Angel Asiain-en bidez, Banesto irensteko asmoa baina hau iragarri baino lehen, xake jokuan antzera, bere peoiak mugitu zituen. 'Solomon Brothers' amerikar bankuari moeta honetako irensketa eredu baten azterketa eskatu zitzaion, Uria-Menendez legegizonen bulegoetara jo zuen informazio eske eta azkenik, Felipe González-ekin Moncloan burutu zuen bilera bat. Gobernu espainolaren bedeinkapena eta laguntza eskatu zen, eta baita lortu ere. PSOE gobernuak begi onez ikusi ditu ekintza hauek eta finantza neurriak errazteko aukerak emango dituela agindu du.

Sozialista hauekin harreman onak dituzten banku kudeatzaile lagunak behar ditu PSOEek. Botere politikoa kontrolatzeko aginte ekonomikoa menderatu behar dela argiki azaldu da, gobernuak bankuen esanetara makurtu beharra dauka, bankaren nazionalizazioa pentsa ezinezko burutazioa bait litzateke dagoen indar desoreka eta gobernuak erakusten duen borondatearekin.

Lehen ezkontza eman da, baina mu-

BB-Vren menpeko enpresa nagusiak

Banco de Vizcaya


Plus Ultra
Ayamonte
Estrella Polar
Eurocard
Autop. Vasco-Aragonesa
Laboratorios Serono
Naviera Química
Inmobiliaria Eurobuilding
Inmobiliaria Bancaya
Valca
Vidrala
Petrogás
Hidroala
Sevillana elec.
Bancaya Promoción Española

Banco de Bilbao

Aurora Polar
Brilen
Eguren Comercial
Espasa-Calpe
Euroseguros
Conservas Garavilla
Industrial Santa Bárbara
Naviera Química
Prom. de Recursos Navales
Técnicas Reunidas
Kas
Koipe
Knorr Elorza
Metalquímica del Nervión
Seffinova La Collephane

Elkarrekiko partizipazioak:

General Química, Naviera Vizcaina, Petronor eta Iberduero



Neguriko familiek etekin handiagoen tr...

Neguriko klanak Administralgo Kontseiluetan nagusi

BANCOBAOko familia nagusiak

Sánchez Asiain
de Ibarra y Churruca
de Aguirre y Alonso
Collar Zabaleta
Alzola y de la Sota
Yurreta y Gamboa markesa
de Chavarri y Poveda
Delclaux Barrenechea
González Rivero
Lezama Leguizamón
Concejo Alvarez
Zubiria Mac Mahon

BANCAYAKo familia nagusiak

Toledo Ugarte
de Ibarra y Oriol
de Gortázar y Landecho
Superunda kontea
de Zubiria y Uhagón
de Muguruza y Madariaga
Prado Urquijo
Lipperheide Wicke
Eulate Mac Mahon
Arriluce de Ibarra markesa
Basterra Andersch
Delclaux Oraá

til edota neska zahar gutxi espero da. Zortzi banku handi zeuden Estatuan eta 'Bilbao-Vizcaya S.A.' holding-a sortu eta, Banco de Santander, Central, Banesto eta gainerantzekoek ezin atzean geratu. Mugimenduak hastear daude eta 1.988. urteak bankaren ezkontzak eta birmoldaketa burutzeak ekarriko ditu. Etekinak nortzuren eskuetara joango diren bezalaxe, ordainak nork pagatuko dituen ez dago zalantzarik.

Iceberg-aren tontorra azaldu besterik ez

Bankako langileak kaleratu ez ezik, gertatu eta gertatuko diren fusioen eraginak gizarte guztia lekuz mugituko du. BV eta BBren artean Estatu osoko asaguru etxe alor gehiena kontrolpean dute, elektrika alorra zer esanik ez eta beste batzuen artean, itsas garraioak, petrokimika eta inbiliarrietan esku

hartzeko handia dute. Bankuetan ezkontzak eman badira, kontrolpean dituzten enpresen fusioak ere itxaroten dira, «holding honen sorketarekin, finantz sistimaren mekanismoa hedatuko da, beste sistema produktiboen eragile serratuko delarik. Gizarteari eskeintzen diogun lorpena da», dio BBren lehendakariak.

BB-k kontrolatzen dituen 'Aurora Polar' eta beste hainbat aseguru etxea eta BVren 'Plus Ultra', 'Estrella Polar', 'Ayamonte' etab. batuz gero, kontrol osoa beren eskuetan gelditzen da. Iberduero, Fecsa, Sevillana de Electricidad... elektriketan akzio eta Administralgo Kontseiluan esku hartze erabakikorra ere erdiesten dute. BBren lehendakariak agintzen duen bezala, beste sistema produktiboetako enpresak batuz gero, zerbitzu bikoizketa barra-barra agertuko da, beste birmoldaketa berri bat, alegia.

Ondorioak langileek ordaindu eta lanpostuak dantzan jarri behar. Errentabilitasun erizpideak, berriz ere, nagusi.

Neguriko klanen 'euskalduntasuna'

Krisi garai hauetan garrantzitsuena ekonomia berrindartzea surtatzen denean, esan behar, bankuek etekin handienak garaiotan lortzen dituztela, ezkontza honek bertako politikari, alderdi eta prentsaren onespina eskuratu duelarik ere. Honelako iniziatiba 'euskal' banku bi hauek bultzatzea ohore behar luke euskaldunontzat, baina Herri honetako azken urteetako Historiak erakutsi duenez, bi banku hauek kontrolatzen dituzten Neguriko fameliak hala nola, Ibarra, Declaux, Zubiria, Oriol, Lipperheide eta abarren 'euskalduntasuna' ederki asko frogatu da. Bizkaiko iraultza industria garaian noren alde jo zuten eta 36. go gerlan noren aurka aritu ziren ikusi besterik ez dago.

Diruak ez du inoiz aberririk izan, efikaziak balio du, hots, «efikazia, kontrolpean dauden arriskuak korrituz, etekinen sortzea eta sarritan inguruak eragiten dizkigun arazoak gainditzea da», irakurriko du fusio egunean BBren Asiain lehendakariak. Zertarako 'euskal' bezalakoak ipini, dirua besterik inporta ez zaion jendeari?

Euskalduntasuna eta betidanik izan dituzten famelia arteko tira-bira guztiak alde batera utzi eta etekinak lortzeari ekin diote Negurikoek, ia denen onespina dute, eromen iheskor giro batetan bizi dira. Batzuen izerdiekin besteak dirua egiñaz dio Benito Lertxundiren knta zaharrak.




ren arteko lehiak ahaztu dituzte

N. ARRASTOA

Mikel Lejarza, ETBko programa arduradun

«Inprobisaziotik ihes egitea da gure desafioa»

Bilboko 'Radio Euskadi'tik ETBra ailegatu zen iragan Irailean. Orduan, 'aterri-zatu' berria zegoela eta une egokiagorik aurkituko genuela solaserako. Orain, ETBko programa arduradun dugu, kirola eta informatiboak landa gainontzeko programen arduradun. Apirilerako programazio berria prestatzen ari da egunotan.



ARGIA.— Nola ikusi duzu ETB? Une kritiko batean iritsi zinen...

MIKEL LEJARZA.— Irailan heldu nintzen eta ordurako prestatuturik zegoen programazio guztia, edo ia prestatuturik. Nahiko pribilijiatua sentitzen naiz. Jende askok ez dauka aukerarik lanez aldatu eta gauza berriak ikasteko. Oso pozik etorri nintzen. Mundu berria zen niretzat. ETBri buruz banenkien zer-bait, baina telebistari buruz ez.

Gabonak arte pittin bat ikasi egin nahi nuen. Etxea, gauzak... Gabonetarako programazio berezia prestatzea izan zen nire lehen lana... Bueno, zelan ikusi dudana telebista? Larri, larri. Benetan larri. Arrazoi asko daude larritasun hori azaltzeko. Baina gero eta hobeto.

A.— Ze larritasun somatu dituzu?

M.L.— Iraganaz ezin dut hitzegin, baina bueno. Etxe hau informatiboak egiteko eta telesail batzuk emateko jarri zen martxan. Bost urte pasa dira eta orain sei informatibo daude egunero, programa ugari dago, telesail ugari... Bi programazio betetzen dira egunero. Etxea handitu da, programazioa handitu da... baina azpiegitura edo bitartekoak ez hainbeste.

Gero... aldaketa asko izan dira. Bost urteren buruan lau zuzendari nagusi izan dira... Eta gero ikusi behar da ze gizartetan gauden. Euskal Herriak ez dauka oso argi bere hizkuntz politika. Euskal Herriak ez daki oraindik aidentzia Forondan ala Sondikan jarri be-

har den. Asunto horiek ETBra pasatzen baditugu... Hemen ez gara jakintsuak. Ez gara gizartearen gainontzekoa baino jakintsuago, eta kontraesan horiek ETBn ere badaude.

Dena dela, oinarri batean, tresnak handitu gabe programazioaren handitzea da arazorik larriena. Hori zelan konpondu? Nire ustez konponbide zaila ez dago. Nahiko erraza da. Erabaki behar da zenbat ordu egin behar dugun, ze eduki behar duen telebista honek... eta hori erabakitakoan tresnak jarri eta kitto! Plan bat egin behar da. Ezin gara inprobisazio jarraian ibili. Horixe da orain gauden taldearen asmoa. Esaterako, orain ari gara prestatzen udako programazioa. Sekula ez da horrelakorik

Presupostu ezaren gora-beherak

Urtarrilaren erdialdera berri bat iritsi zen gure belarrietara: ETBko programen presupostua %30 batean jeitsiko da. Urtean 100 milioi zituenak bere programa egiteko 70 milioirekin konpondu beharko luke aurten.

Berehala hasi ginen jeitsiera horrek zer ekarriko lukeen galdetzen, beti ere produktoaren kalitate eskasago bat ateratzen zitzaigularik ondorio bezala. Hau da, kaleko erreportaiak eskatzen dituen saio batek diru gutxiago manejatuz iteera gutxiago egin beharko litzuke. Hau da, erakargarriak darabiltzan saio batek kantari 'merke' bat ekarri beharko luke beste erakargarriago baten orde. Horrela presupostuak uzten duten tartean barnean kokatu ahal izan arte.

Egia da diru gutxirekin egin daitezkeela kalitate handiko gauzak, baina hau espezioa da eta ez da ETB eredu izan honetan. Orain arte diru premia gordinki planteatu izan dute ETBtik iragandako zuzendari guztiek. Denek aitortzen dute gehiegi eskaintzen duela ETBk daukan azpiegitura laburrerako.

Presupostu murrizketa bat, beraz, katastrofiko gerta daiteke ETBrentzat. Areago telebista kate pribatuaren etorrera eta TVEren eta Telenorte-Telenavarraren birmoldaketak gainean ditugunean.

Zer gertatzen da 1988ko presupostuekin?

ETBren 1988rako presupostu orokorrak, EITBren Administrazio Kontseiluan eta Gasteizko Parlamentuan aurkeztu direnak bere onarpenerako, joan den urtekoaren parekoak dira, bizitzaren igoeraren arauerako gorakadarekin.

Hori horrela bada, eta programe tarako presupostuak %30 batean jeisten badira, non inbertituko da diru hori?

Ez dugu erantzunik jaso galdera honentzat, baina aipatzen diren hipotesiak dira Durango-ko egoitzaren berritzea eta Miramongo etxearen birregituratzea.

Oker ibiliko ginatke ordea hipotesiak egiten bakarrik arituz gero. Oraindik orain onartu gabe bait daude 1988ko presupostuak Gasteizko Parlamentuan. Jakina den bezala birritan bota dira hauek atzera EITBren Administrazio Kontseiluan PN-Vren sostengua baino izan ez dutelarik. Gasteizen ordea PSOeren laguntzaz —paktoa medio— aurrera aterako direla espero da.

Dena dela, eta gauzak bere tokian kokatzeko, ETBn produzio arduradun den Maite Iturbek ezeztatu egin digu arestian aipatutako berria. «Hori ez da horrela. Pasa zen urrian, programak hasi ziren rutina batekin, gastu batzurekin, eta horrela jarraituz gero, geneukan presupostuarekin ez ginen iristen. Urte honen hasierakoan kosto hori eman behar genuen. Baina hori, jestino batzuk egin ditugu eta hori ez da horrela izango. Gainera ehuneko hogeita hamarra, esaten duzuna, hori ez da

sekula horrela izan, eta gainera %30 sekula ez da fijoia izan. Hori bulo bat izan da. Etxe barnean ibilitako datu bat izan da baina ez da egiazkoa horrela».


Programek dauden bezala jarraituko dutela ziurtatu zigun, presupostua ez dela gutxitu azpimarratuz. «Presupostua daukagu jestionatu eta eskatu genuena. Gertatzen da mugatu egin behar garela presupostu horietara. Eta badakigu denak mugatu egin behar garela. Baina hori ez da erreduzio bat planteatu dela. Hori da errealitya moldatau egin behar garela. Ezin garena da orain arteko gastutik pasatu. Linea horretan jarraitu behar dugu. Gastuak ez gehitzearen linean».

ETBko beste arduradun batek esan zigunez «programetarako dirua ez da murriztuko. Hori bai, kanpoan ETBrentzat lan egiten duten enpresek orain artekoa baino gutxiago kobratuko dute hemendik aurrera».

Ez da erraza jakiten murrizketarik denentz. Are eta gutxiago zertan erabiliko diren diru-partida horiek.

Produktoan antzemango dugu denbora asko pasa baino lehen. Oraingoz, zerbait mugitzen ari dela soma daiteke.

I.U.



Programen presupostua murriztu bada, non sartuko da dirua? Durangoko egoitza berritzea da proiektuetako bat.

gertatu hemen, nik dakidala behintzat.


Hori da gure desafioa. Inprobisaziotik aldegitia. Bueno, beti egongo da inprobisazio tarte bat, azken orduko zerbait sartu behar duzula derrigorrez interes handia duelako... Baina koktail horretatik atera behar dugu gure plangintza.

A.— 1988. urtea oso garrantzitsua izango da ETBrentzat ezta? Pribatuak datoz...

M.L.— Bai, baina urtebetean ez da egingo bost urtetan egin ez dena. Urte-

beteen gauza asko egitea da gure asmoa, baina hamabi hilabete baino ez dira. Hala ere, urte honetan lortu behar duguna... Ikusten baduzu TVE jakingo duzu filosofia argi batez markatuta dau-

katela programazioa: astelehenean konkurtsoa, asteartean pelikula, asteazkenean telesaila, luzemetraia eta debata ostegunean... 'Un, dos tres' amaitu eta beste konkurtso bat hasiko da. Mar-



Aukera pertsonal ederra iruditu zaio Mikel Lejarzari Bilboko 'Radio Euskadi'tik ETBra pasatzea.

lon Brando amaitu eta beste ziklo bat hasiko da, baina egunez ez dute aldatuko. ETBn horixe lortu behar dugu aurtentzen. Jendeak jakin dezala astelehenean zer izango duen ETBn eta asteartean zer. Gure estiloa lortu behar dugu.

Horretan gabilta. Luzemetraiarentzat jarri dugu egun fijo. Bigarren urratsa zikloak prestatzea izango da. Telesailak ere egun batean fijo izan daitezela. Eztabaidak beste egun batean...

A.— ETB-2n izango al da aldaketarik?

M.L.— ETB-2n hasiko da Antton Urrusolo programa berri batekin, 'Siri-miri'. Erdaraz izango da baina Euskal Herrikoa. Polita izango da, benetan.

Gabonetan ETB-1ean informatiboak euskaraz hasi ziren. ETB-2n ordea la-

“ ETBn ez gara jakintsuak. Ez gara gizartearen gainontzekoa baino jakintsuago. Gizartearen kontraesanak hortxe daude ETBn ere ”

runbat eta igandetan ez geneukan oraindik erdarazko informatiborik. Orain hasiko dira otsailean.

Horrekin batera Parlamentuei buruzko saio bat ere hasiko da ETB-2n. Gasteiz, Madril eta Europako Parlamentuetako informazioa jasoko du saioak.

A.— Eta ETB-1ean?

M.L.— Martxoan Aste Santua dator eta ez da aldaketa handirik izango. Apirilan bai. Badauzkagu pentsatuta programa batzuk. Esate batera, umeentzako konkurso bat jarri nahi dugu 'Pausoka' izenarekin. Ikastola bateko haurrak beste batekoen aurka ihardungo dira, oka jokoa bezala, bide batean aurreratuz galderak eginez e.a. Behar dugu halako zerbait ETBn. Haurrentzat programa asko dauzkagu, baina haurrak espektadore gisa bakarrik hartu izan dira orain arte. Parte hartzea nahi dugu.

Beste programa aldaketarik ez da izango. Programak hobea egotuz egin nahi ditugu. 'Ezbaian' esaterako, ziklo bat egin nahi dugu. 'Laino guztien azpitik' en, hilean pisuzko norbait ziurtatu nahi dugu. Zinemaldiak direnean hantxe bertan egotea... Cannes-en, Berlin-en...

A.— Ez al dago hori kontraesanean egun hauetan aipatzen ari den presupostu jaitzierekin?

M.L.— Ez... Ez dira izango programa berri batzuk, eta programa berriak izango dira esponsor-a (publizitate sostengua) dutelako. Baina hori, presupostuena, ez da egia-egia. Nahiko konplikatu da baina programek orain daukaten presupostua bera izango da geratu-

“ Hemendik urte batzutura ez dakit zenbat telebista kate ikusi ahal izango den hemen, baina badakit euskaraz bat baino ez dela izango ”

ko dena. Berdina izango da.

A.— Antena parabolikoak gero eta zabaldago daude eta gutxi berru etxe gehienetan izango da Espainiako pribatuz gain nazioarteko kate mordoak harrapatzea. Nola ikusten duk ETB desafio horren aurrean?


M.L.— Hemendik bost hamar urtetara ez dakit zenbat telebista ikusi ahal izango den hemen, baina badakit euskaraz bat baino ez dela izango. Ez 'Canal 10'ek ez TVEk ez beste inork ez du egingo programaziorik euskaraz. Eta hori da gure helburua. Hori da Euskal Telebista. Programazio standar bat eman behar dugu guk ere. Beste inork ez du inoiz euskaraz emango. Dena den euskara bakarrik ezin dugu kontutan hartu. Telebista ona egin behar dugu bestela ez du ikusiko jendeak. Euskarak nortasuna emango digu, baina programak ere ikusi behar ditugu nolakoak egin. BBCrekin ezingo dugu dramatikoa konpetitu, baina jakin behar dugu hemengo bizitza hemengo ekin-tzak, hemengo asmoak isladatzen. Horretan izan behar dugu onen.

A.— Euskaldunentzat zoko-zokoan geratuko den telebista lokal baten itxura du horrek. Une honetan ere, esaterako, audientzia handiagoa dauka ETB-2k ETB-1ek baino.

M.L.— Zer saltzen da gehiago 'Egin' ala 'Hemen'? 'Deia' ala 'Eguna'? Hori hor dago. Hori gizartea da. Azken finean ETBk izango duen etorkizuna euskaraz izango duen etorkizuna da. Hemendik hamar urtera jendeak ez badu euskaraz egiten alferrik izango da euskarazko telebista bat. Baina orain baino gehiago hitzegiten bada euskaraz orain baino telebista gehiago ikusiko da.

INAKI URÍA

ARGIA



K O M I K I A

91. zenbakia

BOKARTA

Morau Txeroki


EZ DAKIZUE ZEW GARRANTZITSUA DEN IKERTZAILEARENTZAT ONDO MOZORROTZEN JAKITEA, EGIAZKO NOTASUNA EZKUTATUATZ LORTZEN BAIT DUGU ASKOTAN GURE LAMA ONDO BETETZEA.



EZETZ ASMATU ORAIN GUZTI HAUETATIK NOR EZ DEN BOKARTA.



LA CASA DEL CAFE



Zure Etxeko Kafea

San Martzial 19 Telf. 424512

DONOSTIA

EZ UTZI IRAKURRI GABE



NEMO TXIKIAREN ametsak ezagutzen al dituzu?
Larogei urte dituen komik honek, beste larogei urtetan irrifar
eta goza araziko dizu

TTARTTALO Argitaletxea





ERRETRETA ANTOLATUKO DUT ...

ZER ?



BARKATU PACHA, BAINA EZ DUZU PENTSATUKO ARMADA ERRUSOAREN KONTRA BURRUKATUKO DUGUNIK GURE SOLDADUEKIN.

ERRUSOA ZARA ZU, EZ ?



BAI, ERRUSIAN JAIOA NAIZ, BAINA NAZIONALITATEA DIRUA DUT, GAINONTZEKOA EZ DA ATOLIK. ZURE ALDE EGINGO DUT BURRUKA... ORPAINTEZIN DIDAZUN BITARTEAN.



ZEIN PAPER JOKATZEN DUZU, ERRUSOA ?

BAINA... NEURE PAPERA, ETA MODU EZIN HOBEAN GAINERA !!!



ATZERA JO AHAL IZANGO BANU, BEREHALA EGINGO NUKE... DAGOENEGO BERANDUEGI DA ...



BURUGABEKO ABENTURA HONETAN ZOROEK BAKARRIK LAGUNDU AHAL NAUTE.



ZUEN BURUZAGIA ZEHARO BURUTIK

JOANDA DAGO. USTE NIEN NAHIKOA ZUELA EDOZEIN EMIRREN KONTRAKO GERRATXOA.

ERROMANTIKO HUTSA DA!



ENVER PACHAK TRONOA GALDU DU, ESAN OHI DENEZ... KEMAL ETSAIAREN KONTRA GALDU DU, TURKIAKO LEHEN-DAKARI BERRIA



... LEHEN AGIAN LAGUNA ZUENA... ENVER PACHAK ERRUSIA BOLTXBIKEAREN LAGUNTZA IORTZEA ESPERO ZUEN KEMALEN KONTRA BERA IZATEKO TURKIAKO LEHEN-DAKARIA BAINA EZ DA HORRELA IZAN, ERRUSIARREREK KEMAL NAHIAGO IZAN DUTE...



... ENVERREN GORROTOA PIZTUZ ETA, AZKEN SAIO GISA, POPULAZIO TURKO-ISLAMIARRA BILDI NAHI DU FEDERAZIO KASPIAR-KAUKASIAR HANDIA SORTZEKO NAZIOEN LIGAK ONARTURIK ...



... EZ DU LORTUKO... UNTZIA HONDORATZEN DENEAN IGERIAN IKASI BEHAR DA, ESATEN OHI DENEZ, ETA ARIN IKASTEN DUT NIK... TABAKO HAU SIKUEGIA DA

ULERTU DUT ETA...



PITASEME PARE GALANTA GARELA IKUSIRIK, ESATEN OHI DENEZ, HAR DITZAGUN NEURRIAK. NON DAGO ERREJIMENTUKO KUTXA ?



KA, KA, KA, KA, KA, KA,
KARABANA BATRA-
ZIARRA AILEGA-
TU DA.



GOARDIAK,
ZUEN POS-
TUETARA !!!



AZKAR, MAN-
BRI GERRARA
JOAN DA,
JUNDALA,
JUNDALA,
JUNDALA



EZ DAKI NOIZ ITZU-
LIKO DEN...



BARKATA
CADI RASPA,
ZER ESAN
NAHI
DU
HORREK
?

JAKIN
NAHIKO
ZENUKE
EZ ?



CHEVKET!

NOR
DA
HORI ?

BAHIAR
KORONELA
...



IRAGAN LABURREKO ETA
ETORKIZUN GABEKO
MENTURAZALEA !



SINESTEZINA
DA, ZURE AN-
TZA OSO
ZUEN BAT
AURKITU
DUT...

BADAKIT,
CORTO
MALTESE
IZENEO
BAT.



NOLATAN
DAKIZU
?

BADAKIT.



TIRA BA... ORDUAN
ENTZUN CHEVKET... CORTO
MALTESE HORREK BADAKI
NON AURKITU IKARAGA-
RRIZKO ALTXORRA.
ZITA DAUKAGU
HEMEN MUGAN,
ALTXORRAREN
TRUKE EMANGO
DIODAN NESKA-
TO ARMENIAR
BAT DUT
BAHITURIK
DAUKAT.



... ETA HEMEN HARTZEN
DUZU ZUK PARTE. ZURE
LAGUNTZA BEHAR DUT
FORTUNA HORI ESKURAT-
ZKEO. ZURE GIZONEN
LAGUNTZAREKIN LORTU
EGINGO DUZU ZEREN
BAKARRIK EZ BAIT
NUKEEN NOIZ LOR-
TUKO.

EGIA
DA.

BAINA NOLA EGON ZAITEZKE
SEGURU CORTO MALTESE
HONAINO AILEGATUKO
DELA? BIDEA ZEHARO
ARRISKATSUA DA
...



... BEREZIKI HABILA DA GIZON
HORI ETA MUNDUAREN BAZTE-
RRERAINO SEGITZEKO HAINAKO
GORROTOA DIT. HORREGATIK DA-
KIT SEGURU ETORRIKO DELA...



... ALTXORRARAINO ERA-
MATEN GAITUENEAN HIL
EGINGO DUGU... NESKATO
ARMENIARRA ZURE-
TZAKO OPARI BEREZIA
IZANGO DA CHEVKET.



BANG!



PRIMERAKOA CHEVKET, BAINA
ZERGATIK IZAN DA PASTUA
HORREN
GURE
KONTRAKO
HAINBESTE
DENBORAN
BANATURIK
EDUKI GAI-
TUELA??



BEGIKOΔ ZARA
CHEVKET KOMANDANTEA...
Δ 'MONJEΔ EZAGUTU
IZAN BAZENU...

ZEIN
MONJE?

Δ ZE
DOTORETA-
SUNA BI
HORIENA!



...BIZITZEN
ZEKIEN MORROI
BAT, MAISU BAT!
Δ, ZENBAT
GORANTZI!

ZER
GERTATZEN
ZAIZU,
MALENKOLLA
ΔTAKE
BAT?



HARA BA, BAI... BATZUTAN, ΔΔS-
KALIO ZERGATIK... BATZUTAN
TRISTURA ANTZERAKO
ZERBAITEZ
LARRINTZEN
ZAIT
ΔRIMA...



...BIZITZAREN MISE-
RIEN ΔURREKO ΔMIL-
TZEΔ, NOSTALGIA
GOXOA...
SAMURTASUNA
HITZ
BATETAN
...



... DENA KONTUTAN
HARTURIK EGUN
NIRE BURUA MI-
RESTEN DUT...





BURUTIK JOTA ZAIDE-LA GASTE DUT.
KONTUZ IBILI CORTO...ESAN NAHI DUT CHEVKET, HIL EGIN ZAITZAKET HORREGATIK...




NORA GOAZ ?
ITXARON APUR BATEN !



GELDI ! EZIN DA PASA, BAHIAARRREN AGINDUAZ !
AMA, KENDU HAKIT HEMENDIK !



NORA GOAZ ? NESKATO ARMENIAR HORREN BILA GOAZ.



HAR EZAZU NESKATXA ZUREKIN CAID...
ETA ZER EGINGO DUT ? GAZTETXOEGIA DA NIRE GASTORAKO !



EZ DIZUT HORRETARAKO EMATEN, CORTO ZURE LAGUNARI EMAN BEHAR DIOGU BERRIRO.



BAI !
OSO BERRI ONA... BERAZ CORTO INGURUTAN DABIL !? ?



ETORRI, TXIKITXO, ETORRI OSABA RASPUTINEKIN, AMA BEZALAKOA IZANGO DA ZURETZAT



ETORRI...GOAZEN ARINEKETAN URREZKO MENDIRANTZ !



GORA URREA !
ITXARA NAHIKO LERDOA DUZU ...

Little Nemo IN JUMBERLAND



O!

ZATOZ NIREKIN? EZ BELDIR IZAN!



NORA NARAMAZA, PAPA NOËL?

ISO! EZ ESAN EZER, EZ MUGITU ERE!




HEGALDITXO BAT EGINGO DUGU!

NON DITUZA OREINAK? EZ OTE DA ARRIS KUTSUA?



ARROPAZ ALDA ZAITEZ, FOLTA-GOMI EGONGO ZARA!

NIRE GURASOI EZ DIET EZER ESAN!



HONA AME-TSEN HERRIA, LEHEN ERE EGON ZARA HEMEN, EZ?

A, PAPA NOËL ZARA, JADA EZ NAIZ BELDIR!



TXAMINI, MORETTA! ZAITES BEHAR AL DUGU!

EZ ZAITES LARRI-TU NEMO!



TIRA... JAKINGO DU BERE OFIZIOA!

EZ BELDIRRIK IZAN, NEMO.



HARA...! JAUREGIAN GAUDE ETA!

BAI... PRINZESAREN JAUREGIA DA!



HEMEN ZINTZILIK UITZIKO ZAITAT, NEMO!

BI HAR ARTE? ZER ORRU DA?



AGIAN PAPA NOËL ZEN, JANTZI ETA ZOAZ IKUSTERA!

ZERBAIT ENTZAN DUT, ZIUR NAIZ NORBAIT DAGOELA!




HAI POZA, NEMO DA! MILA ESKER, PAPA NOËL...!

NI ERE POZIK NAGO, EGUBERRI ON, PRINZESA!



EGUBERRIA DA! ZUHAITZA IKUSTERA JOAN BEHAR DUT!

Bizkaiko Golkoaren Meteorologia Zentruko zuzendari, duela hemezortzi urtez ari da Usabiaga donostiarra gisa horretako lanetan, lehendabizi Las Palmasen, Igeldoko Behatokian ondoren, eta azkenik Donostiako Zentruan. Horrezaz gain, hainbat komunikabidetan egunero agertzen ditu bere eguraldi-iragarpenak, eta arlo dibulгатibo horri zor dio ezaguna izatearen zatirik handiena. Matematikak ikasi zituen Madrilen, eta Fisikako ikasketak ere burutu zituen ondoren. Asteburuetan ere hortxe ibiltzen da Usabiaga, ematen dizkioten hamaika datuak interpretatzeko ahaleginetan, igandeetan ere bere bulegoan sartuta, egun askotan 10-12 ordutako lan-egunak egiten dituela.



Usabiaga: «Eguraldia epe motzean asmatzeko probabilitatea 85%a da»

«Artzainek badakite ardiek modu batera edo bestera jokatzan dutenean horrek eguraldi aldetik zein esanahi duen, eta logika handikoa da».

GALDERA: Metereologia zientzia bat dela esan daiteke?

ERANTZUNA: Gaur egun gero zailagoa da berezte zeren den zientzia eta zer teknologia. Zientzia bat dela esan liteke, baina oso zientzia hibridoa, izugarri hibridoa. Oso interdisziplinarioa da Metereologia. Gaur egun Metereologiarekin zientziaren alor berezitu bat egin nahi izatea absurdoa da, beste zientzia askotatik edaten bait du. Areago, zientzia metereologikoaren inguruan garapen teknologikorik ez badago, Metereologiak ezin du inola ere aurrera egin.

GALDERA: Eman dezagun beraz disziplina bat dela. Disziplina gaztea, dena dela.

ERANTZUNA: Oso gaztea, bai. Oso urte gutxiko bizia dauka. Metereologiak nire ustez bi helburu nagusi ditu: datu-banku on eta homogeneo bat sortzea, eta eguraldiaren aurreikuspena egitea. Lehenengoari buruz, 60 urteko datu-saila izatea oso datu-banku ona izatea kontsideratzen da, eta 60 urtetik gorako datuak dituen zentzurik oso gutxi izango dira munduan. Bigarrenari buruz, eguraldia aurreikusteko orduan, ezinbestekoa da beste tokietan zer eguraldi egiten duen jakitea, eta beraz, Metereologiaren benetako jaiotza telegrafoaren sorrerari oso lotua izan zen. Telefragoa sortu baino lehen, zientzia hutsa egon zitekeen, baina ez inola ere zientzia operatiborik. Horregatik, lehenengo metereologi sarea 1855ean sortu zela esan liteke, telegramak bidali ahal izatearekin batera. Oso gaztea da, beraz.

GALDERA: Lehenago esan duzu 100 urteko datuak edukitzea oso ontzat eman daitekeela. Hemen ditugun zentruetan duela zenbateko datuak ditugu?


ERANTZUNA: Igeldoko Behatokiak datu fidagarriak eta homogeneoak 1928tik aurrera eman dituela esan genezake. 60 bat urte beraz. Askoz lehenagoko datuak ere badira, baina hutsarte handiekin, goizekoak bakarrik, 15 eguneko parentesiekin, eta horrela. Modu fidagarri batez, 60 urteko datuak ditugula esan daiteke. Datu-sail ona dugu, beraz. Eta Igeldok duen gauzarik onena, bere ingurunea urte guzti horietan oso gutxi aldatu dela da. Madrileko El Retiron, esate batera, askoz lehenagoko datuak ditugu, 100 urtekoak, baina ingurunea hainbeste aldatu da industrialtzarekin eta biztanlegoaren hazkunderarekin, ezin daitezkeela datu horiek fidagarritzat jo. Igeldokoa, alde horretatik, Estatuko onenetakoa da. Konklusioak atera ahal izateko urte-bitarte ona badirudi 30 urtetan koka genezakeela. Guk, beraz, bi ziklo osoak ditugu, eta ez da gutxi.


GALDERA: Igeldokoaz gain, Euskadin nola dago Metereologi zentruen egoera?

ERANTZUNA: Euskadi bi barrutitan banatua dago: Kantauri itsasora jotzen duten bailarak, eta Ebro bitartez Mediterraneoara jotzen dutenak. Zentzurik garrantzitsuena Igeldokoa da, eta gero Hondarribia, Foronda eta Sondikako aireportuetan behatoki bana daude. Oso estazio konpletua Arantzazuko Komentuan dago, oso tresneria on eta konpletua dute eta edozein mementutan has litezke agiriak zabaltzen edozein behatoki bezala. Gertatzen da ez dela ofiziala eta Arantzazuko fraileek eramaten dutela, baina instalazio aldetik onenetako bezala kontsidera daiteke. Hortik aurrera dauden instalazioak euriak eta tenperaturak neurteko besterik ez dira, osagarriak. Azken instalazio mota horretatik 80-100 bat izango dira Gipuzkoa-Bizkaian.

Oraingo banaketa ubide hidrografikoaren arabera eginda dago, eta horrek aldeko eta kontrako gauzak ditu. Esate batera, guk Nafarroako datu guztiak jaso nahi baditugu, batez ere Zaragozako Zentrura jo behar genuke, eta horrek prolema handiak sortzen ditu. Arabarekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Autonomi Elkartearen arabera banaketa eginez gero, hori hobetuko litzateke, baina alde txarrak ere izango litzuzke. Dena dela, ni erizpide hori aldatzearen aldekoa naiz, eta badirudi hala egingo dela.

GALDERA: Gai honi buruzko konpetentziak Estatuarenak al dira eksklusibo-ki?





ERANTZUNA: Bai, Konstituzioak esaten du Metereologi kontuak Estatuaren kompetentzia direla. Baina Autonomi Estuetan ere agertzen da Komunitate ba-koitzarenak izan daitezkeela. Politikoen gauzak, badakizu. Planteatzeko abilida-dea izan bazuten, izan dezatela ere kon-traesan hori praktikan konpontzeko abi-lidadea.

GALDERA: Infraestruturura hobetuz al doa?

ERANTZUNA: Gero eta gehiago. Garai batean oso txarra izan da, baina ez he-men bakarrik, toki guztietan ere bai. Esate batera, orain bulego honetan ba-dugu METEOSAT satelitearen imajinak zerbitzatzen dizkigun pantaila bat, eta ez da izugarritzko aurrerakuntza, baina zer-bait bada. Erradar meteorologiko bat montatzen ari zaizkigu, ordenagailuekin lan egiten dugu... duela bizpahiru urte ez genuen horrelako ezer. Erreforma planak egin zirenean (duela hiru bat ur-te), asmoak oso optimistak ziren, 4 edo 6 urtetan izugarritzko aurrerakada egingo zela, etabar... eta egia esan aldaketak uste baino motelago izaten ari dira, bai-na egia da ere aurrerakuntza nabariak nozitu ditugula.

GALDERA: Metereologiak badu alder-di zientifiko bat, baina badu beste alder-di nagusi bat, dibulgatiboa dei genie-zaiokeena, eguraldia aurreikustea alegia. Alderdi hori, halere, ez al da esker txarrekoena?


ERANTZUNA: Ez, ez. Nik ez nuke ho-rrelakorik inola ere esango. Niretzat, ho-rixe bait da gure eginkizunik nagusia.

GALDERA: Esker txarrekoa esaten ni-zun, zeren eta egingo duen eguraldia iragarrita huts egindakoan jendeak ez bait du erraz barkatzen...

ERANTZUNA: Hori lehen gertatzen zen. Nik uste dut gaur egun jendeak oso ongi dakiela zientzia hau ez dela exak-toa. Helburua hobetzea da, eta instala-zioak edo bitartekoak hobetuz doazen neurrian, asmatzeko portzentaia ere ho-betuz joango da. Baina jendeak badaki metereologoa huts egiten duten pertso-na dela. Azken finean, ditugun eskasia guztiak gainditzeko, 200 urte beharko ditugu.

Adibidez, guk datu batzu erabiltzen ditugu, eta datu horiek lantzeko ordena-gailuak ditugu eskuartean. Baina edo-zein ordenagailu mugatua da eta ezin

«Lehenengo metereologi sarea 1855ean sortu zela esan liteke, telegramak bidali ahal izatearekin batera; oso zientzia gaztea da, beraz».



dizkiozu nahi adina datu sartu. Beraz, lehenengo hautaketa bat egin behar duzu, eta bien bitartean, potentzia handiagoko ordenagailuetara jo. Alde horretatik, Europa guztirako ordenagailu bakarra edukitzea komenigarria da, askoz ahalmen handiagokoak, datuak zentralizatu eta konklusioak deszentralizatu egingo dituen. Bide horretan gabilitza, baina gehiena egiteko dago.

Orain lau aldagai bakarrik hartzen ditugu kontutan: presioa, haizea, hezetasuna eta tenperatura. Aldagaiak lau izan beharrean, zazpi balira askoz hobe. Gauza bera erabiltzen diren behatze-puntuen kopuruarekin. Hortxe izango da etorkizunerako diferentzia.

GALDERA: Hala ere, ahalik eta aldagaririk eta daturik gehienak erabili ahal izateko, irtenbiderik onena zure ustez datuak zentralizatzea izango litzateke?

ERANTZUNA: Bai, ni urtetan ari naiz hori bera esaten, eta joera horixe dela dirudi. Gaur egun ere, epe motzean eta erdi-epetan halaxe funtzionatzen du. Beharbada, datuak prozesatu ondoren interpretazioa egiteko norberak erabiltzen duen eredu desberdina da oraindik, eta hori ere bateratuz joan beharko du.

Gero, aurrerakuntza handienak teknologia aldetik etorriko dira. Orain amerikarrek orbitan jarri duten GOE satelitea beste galaxia bat da gure METEOSATEkin alderatuz gero, olatuen altura ere neurtzen bait dizu edozein tokitan. Ho-

rretatik sorpresa handiak jasoko ditugu aurki.

GALDERA: Zuk komunikabideetan egiten dituzun eguraldien aurreikuspenetan, esate batera, zenbatetan huts egiten duzu?

ERANTZUNA: Nik uste dut huts egiten dela. Baina hala ere, epe motzean 85%an asmatu daitekeela uste dut. Gainera, hemen eguraldia hain da aldakorra, ze gauza horiek oso erlatiboak izaten bait dira. Hemen askotan gertatzen da euritsu egotea goizetik, egunean zehar eguzkitsu, eta gauean berriz euria ari izatea. Euria izango dela iragarri, baina beharbada euria goizeko zortziak arte ari du, eta handik aurrera ez.

GALDERA: Jendeari axola zaiona, gainera, kalean ibiliko den 10 ordu horietan egingo duen eguraldia da...

ERANTZUNA: Kasu bitxiak udan ematen dira, hondartzako egunetan. Gau guztian euria ari du, goizeko zortziak arte, gero eguzkia dago egun guztian zehar, baina arratsaldeko zazpietan berriz ere auria. Egundak hori jendearentzat eguraldi onekoa izan da. Jendeak esango dizu eguraldi ona izan dela, eta igual 30 litro jaso dira egun horretan. Jendearen subjektibotasuna horretan inportantea da, baina horrekin kontatu behar da. Hala ere, garbi dago eguraldi-aurreikusenen sinesgarritasuna asko jaso dela.

GALDERA: Lau egunetarako iragarpenetan, gaur egungo asmatze-aukera zenbatean dago?

«Oso estazio konpletoa Arantzazuko Komentuan dago, oso tresneria on eta konpletoa dute eta edozein mementutan has litezke agiriak zabaltzen edozein behatokik bezala».

ERANTZUNA: Nik kalkulatu dut 75%an jar genezakeela. Epe luzerako kalkuluek ez dute baliorik iragarpenetan, estadistiko hutsak direlako, eta estadistikak behar bezala egiteko datu-sail txikiegiak ditugu, ehunka urtekoak behar harko genituzke. Gainera, epe luzean egindako iragarpen horiek lurralde-eremu zabaletarako egiten dira, eta gurea bezalako txoko batean aplikatzea ia zentzurik ez du.

GALDERA: Lehenago esan duzu hemengo eguraldia oso aldakorra dela. Estatu Espainoleko beste herrialdeekin alderatuz gero, adibidez, zer esan genezake, askoz aldakorragoa dela?

ERANTZUNA: Askoz aldakorragoa bai. Areago, Kantauriko Kostaldean bertan, hemen Galizian edo Kantabrian baino aldakorragoa dela esango nuke. Hemen daude aldagaiak oso bereziak dira. Bizkaiko Golkoan ematen diren baldintzak aldakorrenak dira, baina alde handiz gainera. Nik ez dakit hemen inoiz 20 egun segituan izan ote diren euririk izan gabe. Esatea erraza da baina hori inguruko beste inon ez da ematen. Eta bestaldetik, euria etengabe egun askotan segituan ere ez da maiz izaten. Aste bat hartu, eta hiru klima guztiz berezitu aurki ditzakezu oso maiz: euria-hotza-lehorrera, edo euria-elurra-lehorrera. Hori, sei eguneko epe batean. Euskadiko Kostaldea kenduta, oso toki gutxitan aurki daitetze horrelako aldaketak.

GALDERA: Horrelako eguraldi-aldaketak ikusita, jendeak askotan esaten du klima aldatzen ari dela, gero eta beroago ari dela... egia al da hori?

ERANTZUNA: Logikoena baietz erantzutea izango litzateke. Klima, oreka energetiko bati sortzen zaion erantzuna da, eta alde horretatik, oreka energetiko hori dinamikoa den neurria, klima ere aldatuz joango da. Hori halaxe da, ebidenteak. Noruntz aldatuz doa? Hortxe dago gakoa.

GALDERA: Gero eta beroago dela esaten da...

ERANTZUNA: Hori garbi jakin ahal izateko, datu-sailen prolema dugu berriz ere. Jakingo bagenu azken 100 urteotan eman diren datu guztiak nolakoak izan diren, konklusiorik atera ahal izango genuke, baina zoritxarrez ez dugu halakorik. 1985ko elurraldiak baino lehen jendeak maiz esaten zuen: «dagoeneko ez da inoiz elurrik izaten, hau ez da lehen

bezalakoa, e.a.». Eta bapatean, nahi adina elurra izan genuen. Guzti honetan, pertsonen subjektibitatea ez dugu ahantzi behar. Jendeak dio lehen baino bero handiagoa dagoela. Zein puntutaraino hala da, eta zein puntutaraino ez da kontutan hartu behar garai batean etxeetan ez zela kalefazioz izaten. 1950-60ean etxeak, lokalak, jazkiak, autoak... ezin dira parekatu gaur egungoekin. Orain jendea askoz beroago bizi da toki guzti horietan eta gizarte-baldintza horien ondorioz.

Nik frogatzen proposatuko nioke hainbati. Utzi pisu bat negu guztian hutsik. Negu pasata pisu horretara bizitzera joan, eta egon ordu bete alkandora hutsetan. Zein puntutaraino horrek ez ditu sententzioak aldaerazten?

GALDERA: Askotan esaten da, baina, kutsadurak berotasuna dakarrela.

ERANTZUNA: Bada gauza objektibo bat: eguratsa karbonikoz kargatzen ari gara. Eta karbonikoak, beste gauza batzuren artean, berotasuna jasotzen du. Alde horretatik, ukalezina da berotasun handiagorantz joan behar dugula. Baina ez nik eta ez inork ez dakiena beste hau da: zein puntutan egoera hori larritasunezkoa edo itzulezinezkoa izan daitekeen. Horretan, gusto guztietako iritzia daude.

GALDERA: Metereologia zientifikoak badu nolabaiteko konpetentzia herri mailan, herri jakiturian edota artzainek egiten dituzten eguraldi-iragarpenetan...

ERANTZUNA: Ez, niretzat ez dira konpetentzia. Artzainek edo nekazariak egiten dituzten eguraldi-aurreikuspenetan alderdi oso logiko bat badago. Haien naturari begiratzen diote, eta belaunaldi askotan ari dira naturari beha, eta badaukite ardiek modu batera edo bestera jotzen dutenean horrek eguraldi aldetik zein esanahi duen. Eta dudarik ez dago ardiek ekaitzari ipurdiz ekiten diotela, edo mendian gora egiten dutenean eguzkia datorrela. Zoologoek jakin behar lukete zergatik ardiek iragartzen duten guzti hori, eta hori ikertzeko dago. Eta ez ardiak bakarrik, goroldioak eta landareek datu inportanteak eman behar dituzte. Baina kontuz, gu ere hasiak gara guzti hori ikertzen. Gure prolema nagusietakoa da, baita gizartean ere, oso dogmatikoak gara, eta honetan ere oso dogmatikoak izan gara orain arte, horretatik zer ikasi bagenuela pentsatu nahi izan gabe.

JOSU LANDA

«Jendeak badaki metereologia huts egiten duten pertsona dela; azken finean, ditugun eskasia guztiak gainditzeko, 200 urte beharoko ditugu».

Adin-nagusigabekoen
erreforma zentru honek
40 gazte babesten ditu Donostian

UBA, heziketari ateak zabalik

Martuteneko espetxetik gertu dagoen UBAko erreforma zentruaren itzaletan 40 gazte adin-nagusigabeko bizi da egun. Ohizko kartzela itxurako erreformategiak ez bezalako bost txaletetan hain zuzen. Hezitzaile, irakasle, tailerretako maisu eta administratzaile zenbaiten ardurapean pare bat urte pasako dute bertan gehientsuenek kaleko bizitza normalerako prestatzen. Gero gerokoak.

Benefizientzi erakunde moduan funtzionatu du betidanik Ubako erreforma zentruak. Sasoi batean kaputxinoen eskutan, 60. hamarkadan elizbarrutiak hartuko zuen José Luis Benedito egungo zuzendariaren eskutik. Berak aitortu digunez, «urteak daramatzagu gaztetxo marginatu, gatazkazaleak, nolabait esateko, oinarri pedagogikoen bidetik heziketaren bitartez motibatzen».


Beste erreformategietako sistema errepresiboetatik urrun, erabat baztertua izan zen erreforma zentru honetako lana 79a bitartean. Urte honetan hain zuzen, akordio bat sinatzen dute Madrilgo Gobernuarekin. «Ametzagaña benefizientzi Fundazio pribatu moduan lanean ari ginela etorri zen akordioa —jarraitu da Benedito—, eta akordioarekin batera gure egoeraren normalakuntza». Hego Euskal Herrian esistitzen

den erreformategi (bost txalet dotorez jantzitako erreforma zentrua hain zuzen), bakarra dugu orain eta gaur.

Bost txaletez jantzitako erreforma zentrua

28 hezitzaile, 5 irakasle (OHokoak), bi erizain, atezaina, bi sukaldari, laguntzaile bat, eta administralgoa daramaten hiru eta arduradunak osatzen dute Ametzagaña Fundazioaren erreforma zentruko ekipoa, zeintzuek 20 gazte adin-nagusitugabekoekin lanean ari diren gau eta egun. 40ren bat izango dira orotara. Antonio Rodriguez Hernandez, Jokin Isasti eta Joaquín Pérez Iriarte, Ametzagañako hezitzaile eta pertsonalaren arduradun direnekin solastatu gara bi 'ekipo' horietaz.

«Adin-nagusitugabekoen Zuzendari-



Bost txalet hauek osatzen dute Ametzagaña

tza Juridikoarekin dugun komenioaren arabera epailariak hona bidaltzen dizkigun gaztetxoen ardurua hartzen dugun neurrian erreforma zentru bilakotzen gara —dio Antoniok—. Babes zentru bezala ere funtzionatzen dugu, pisu babestuetan egon behar lukeen jendea (oso giro txarreko fameliak dituztenak kasu), hemen dauden momentutik». Txalet hauetan bizi diren gehientsuenak hala ere, lapurretan sarritan aritutako 'mutur zikinak' ditugu, horietatik zenbaitzu drogazaleak. 18 urte bitartean, egindakoak egin, kartzelatik libre bizi direnak, «eta ederki dakite hori» bota du Jokinek.

«15 urterekin bidaltzen dizkigute gehientsuenak, kartzelarako bidea hartuta, maltzurak oso», argitu digu Antoniok, «11, 12 eta 13 urterekin legearekin jolasean hasitako gazte adin-nagusitugabeak epaileak prozesatzen dituenarako 15 urte igual izango ditu eta!».

Heziketaren bidez portaera desegokiak baztertzen

«Gure lana, hona etortzen den gaztearengan defentsak sortaraztea litzateke», mintzatu da Jokin. «Ni ez naiz gazte horren ez lagun ez aita eta ez ama. Arauak jarriko dizkionak baizik. Ha-



dazioaren erreforma zentrua.

«reman estuak mantentzen ditugu, hori bai...». Antoniok hartu dio hitza: «Beren logela egiten erakutsi behar zaie, duxatu daitezen behartu.. Kaka egin eta bonbari tiratzen erakutsi, gero gainera ipurdia garbitu dezan gainean egon, jateko orduan itxuraz moldatu dadin saiatu... Egundoko gerra ematen dute!». «Puntu-puntu jartzen zaituzte. A ze pazientzia gurea!». esan didate aho batez hirurak. «letxes! —Joaquin-ek—, ma-trailekoren bat ere joaten da tartean, ez pentsa».

Hobetu behar diren portaera desegokiez mintzatu zaizkit hezitzaileak segidan. «Portaera desegoki horiek analizatu eta bestela jokatu dezaten errekurtsio zerbaiten bidez motibatzen jarduten gara». Jarrera aldaketa bat bultzatzen alegia, «guzti hau, gazte bakoitzak behar duen heziketan funtsatzen dugularik». UBAko erreforma zentruan sartzan denetik segimendu zehatz bat egiten zaio gaztetxoari, bai hezitzaileek nola tailerreko maisuek eta OHOKo irakasleek eguneroko jardunean taula bartzuren bitartez neurtzen dutena. «Gazteak egindako aurrerapenak neurtzen ditugu, elkarbizitza, bortxa, autokontrola, laguntasuna, eta bestelako mailak aztertuz», argitu du Antoniok.

Hiru multzotan banaturik omen dituzte gazteak, heziketa behar dierenteen arabera hain zuzen. Batetik, klase mailako heziketa daramatenak ditugu, zeintzuei OHOKo bigarren zikloa ematen zaien. Gutxiengoak dira. Bigarren taldean aldiz, eskola sutan jarriko luke tenak biltzen dira. Lanbide heziketa ematen zaie hauei, tailerrean lan batean jarduten direlarik. 16 urtetatik beherako mutikoz osatutako taldeak dira biok. Hirugarrena berriz, lan kontratu batez lanean ari diren gazteena genuke. 16 urtetik gorako gazteak hauek. «6 orduz aritzen dira, empresa normal batetan ari baitliran», aitatu du Antoniok.


Lana gaztea motibatze giltzarria

Jarrera aldaketa bideratzeko erreformazu edo motibazioen artean indartsuena


lanarena omen dute gazteok. Motibazioa eragiteko giltzarria dela dio José Luis Beneditok: «Jarreraz aldaraziko diena azken batean. Mutilek lan kontratuak dituztenetik, berreskurapen maila oso altua da, %70etik gorakoa.

Lan hori urtebetez mantenduz gero, eta UBAtik kanpora inongo arazorik ez duten heinean, maila haundi batean, kaleko bizitzarako prest ditugu». Entrepresek eskeintzen dizkieten lanetaz baliaturik 22 gaztek soldata bana eskuratzen dute egun, erreforma zentruan dauden hiru tailerretan lan eginez. Errendimendu ona edukiz gero gainera, gehitu egiten zaie soldata, bikoizteraino. Jokinek dioenez, «soldata kontu korronte batean sartzen diegu segidan, nahi duen bezala erabil dezaten».

Lanak opatzen dituen ondorio ezin hobekak medio, proiektu berri bat gau-



Lana bilakatu da gazte istilutsuon motibatze giltzarrik bikainena.



Oinarrizko heziketaren beharrean etortzen dira adin-nagusigabeakoak UBARA: oheak egin ditzaten ginean egon behar izan dute hezitzaileek.

zaten hasi berriak dira aurtengoan UBako erreforma zentruan: «Oraintsu arte 16 urtetik beherakoak besterik ez bagenituen jasotzen —kontutan hartu hiru urtetaraino luza daitekeela hauen heziketa—, aurtengo saioan, gure eskeintza 18 urtetatik 21era bitartekoetara zabaltzea lortu dugu», adierazi digu José Luis Beditok. Mandamendu judicialaren bitartez espetxetik bidaltzen dituzten gazteak dira hauek. «Joan den astean bi ekarri nituen Martutenetik», eta lanean hasiak dira jada, soldata batek tentatuta. «Gazte hori kartzelatik kanpo egoteak, besterik ez bada ere, izugarritzko balioa du guretzat», azaldu digu zuzendariak halako batean. Atertzear dagoen adin-heldugabeakoen legegak babestuko ote du esperientzia piloto hau? Ez omen da kartzela baino garestiago ateratzen dio Beditok, «eta lan batek kaleko bizitzarako prestatzen ez dituenik ezin uka».

Diruaren hotsarekin kontent

Lan tailerretarako bidea hartu nahi izan dugu erreportai honi amaiera eman asmoz. «Ni Gazteizko erreformategian egona naiz lehen. Handik ihes egin ondoren hona ekarri ninduten», esan digu konposagai elektronikoko batzuk maneiatzen ari zen txima luze batek. Diru bat eskuratzen duen heinean pozik dago, «nere gauzetarako diru bat badut eta beno... Ondo, ondo». «Normal egiten baduzu lan, dezente diru ateratzen duzu», jarraitu da beste bat, «indarrean aritzen gara lanean, e!». «Guai, guai... hemen giro ederra dago», dio hurrengoak. «Lapur galantak ere baditugu gure artean, ez pentsa. Gure artean lapurretan ibiltzea ere...». «Neri urte bete geratzen zait, kontratua berritzen badidate ondo, eta bestela etxera», entzun diot beste bati.

«Ikusten ari zaren hauei, zentru honetako zaharrenak ditugunez, besteei baino askoz ere gehiago esijitzen zaie, soldaketa lanak direla...», argitu digu tailerreko irakasle batek. Ondoan dituzte, beste tailer batean, lanbide heziketaren bidez jarduten diren 16 urtetatik beherakoak. Lanean jo ta ke, giltzak plastifikatzen dituen makina bati helduta zortziren bat. Hauek inongo lan kontraturik ez duten arren soldata bat jasotzen dute, beti ere egindako lanaren arabera, «asko eginez gero asko. Guk ez ditugu engainatu nahi. Jakin dezatela hemendik kanporako lanetara ohituzen», esan du altutik tailerrekoak. «Eta argi geratu dadila guzti honetatik ez dugula guk, Ametzagaña Fundazio-kook alegia, inolako aberastasunik erdiesten», elkarrizketetan beti present egon den zuzendariaren hitzetan.

UBA eta gero, zer?

Makina bat gazte izango da Hego Euskal Herriko lau probintzietan, gazte-gaztetandik, «bide txarretik hasita», inongo konponbiderik eman ez zaiela (18tik 21 urte bitartean izango dira orain), Basauri, Langraitz, Martutene edota Iruñeko espetxetan daudenak. UBako erreforma zentruan hasi berri duten proiektuak gazte hauek bereganatzen eman ditu jada aintzin pausoak. Hala ere arrisku bat ikusten dio Beditok lan honi: «lege berriaren arabera, demagun, gazte mordo hori hona bidaltzen dutela, bada UBako espetxe bat soilik bihurtuko denaren beldur naiz».

Iaz Madrilekin egin komenioan 80 gazte adin-nagusigabeako hartzeko aukera eskaintzen zuen UBak. Badute oraindik lekua soberan beraz. Urtero egiten dituzten komenioen esku dago hori. «Praktikan, Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten du zubitzat gu eta Madrilen artean (Foru Aldundiak ordaintzen ditu langileen soldatak, eta Madrilak adin-nagusigabeakoen gastuak). Berri dagokiona mutil koskorrei leku bat zihurtatzea, agian hasiera batean egon ginen UBako egoitza tzarreko ateari ireki beharko ditugu...».

«UBAn gazteari baliogarri suertatu zaiona, zerbaiterako balio izango al dio kalean?», galdetu digute hezitzaileek. Kontutan hartu, %90etik gora giro txarretako senitartean bizi direla, heuren kuadrilak dituztela eredu bakarrak bestalde, paroa besterik ez zaiela antzematen aurrera begira... Kartzela berriz, birritan erratzu gero. Atzean geratuko dira gazte hauengan UBako giro lasaia, askea maila handi batean (kalera egiten dituzten paseoak direla, asteburuetako irteerak...), atzean geratuko zaizkie 16 urteak...

LOREN ARISTI

'Ez isildu, ez txepeldu, adoreak bizkortu, kateak apurtu' lemapean

Emakumeen erasoaldien lehen topaketak Iruñean

Iruñean, asteburu honetan hainbat emakumek eskuhartuko du lehengo bider erasoaldien topaketetan, otsailak 6 eta 7an. Topaketak bukatzeko Iruñetik zehar manifestapen bat antolatu nahi dutelarik. Euskal Herriko Emakumeen Asanblada feministek, beste gaien artean, aurtengo honetan erasoaldiei lehentasuna ematea erabaki dute.

Zergatik aukeratu dituzten erasoaldiak bereziki, eta hauen erantzuna, urtetan makina bat emakume etortzen dela eguneroko gertakizun hauek kontatzen eta orain arte, emakumeen artean oso gutxitan plazaratu direlako da. Erasaldiak sarritan ixilpean geratzen dira eta ordua iriñsi da denok erasoaldiei bortizki heltzeko. Plazaratu diren erasoaldiei gutxitan eman zaie irtenbide zuzena eta hainbat eta hainbat kasu geratu dira argitzeke. Oraindik go-goan izan ditzakegu hainbat kasu, Ana Gaminderena, igogailuan bortxatzen utzi ez eta bere bizitzaz ordaindu behar izan zuena, edo eta Ana Tere Barrueta Loiuako baso batetan zihoala bortxatu eta hilik aurkitu zutena, hau ere inoiz argitu ez den eta inoiz argituko ez den kasu moduan paperetan ahaztuko duguna da. Errenteria aldean ere txakurradak omen hainbat eta hainbat emakumeri bortxaketa zein bortizkeria burutu ondoren, salatu eta inoiz ez dira frogatuko, bertan behera geratuko direlarik.

Erasoaldiak eguneroko ogia

Baina egunerokoak ere, hain ikusgarriak ez badira ere, bulegoetan pilatzen ari dira, eta lekukotasunak hortxe dau-



de. Arruntenak emakume bereiztuak eta senarra bisitatzen etortzearekin batera, ohetik pasa erazten dutenak dira edo emakumeak alde eginez gero, senarrak denuntzia ipini eta emakumea espetxeratzen lortu duen kasuak ere ugariak dira, Balmasedako emakume bati gertatu zitzaion bezala edo eta bi umerekin alde egindako iruñar emazteki bati, honek gartzelan bukatu zuen. Lesbianak ez dira erasoaldi hauetatik

salbatzen eta orain urte bete Donostian sekulako jipoiak jasan behar izan zituzten. Lan-munduan ere adibide aipagarriak daude. Hala nola edozein emakumeri eskatzen zaio berarekin oheratzea baldin eta bere lana atxiki nahi duen, bestela kale gorrira, lan postua gordezko prezio gordineraz ordaindu behar, nolabaiteko txantaje sexualez.

Horrelako ekintzak eta lekukotasunak jasotzen dituzte Nafarroako emakumeentzako dagoen 'Andraize' bulegoan edo eta Barakaldon funtzionatzen ari den ofizinan.

Emakumeok bortxagai potentzialak

Hala ere, bulego hauek nahikoak ez izaki, Asanblada feministak salatu baino aideratu nahi ditu eguneroko eta lan-munduan jasaten diren bortxakeriak. Bortxakeria hauek gizarteak bultzatzen eta onartzen dituela kontutan edukiz, publikitateak emakumearen irudia dela medio, edo eta pornografian darabilten emakume-irudiak bortxagai potentzial eta onartuak bihurtzen gaitu. Hau dela eta, bortxatzailea ez da pertsona "anormal" bat, edonor izan bait daiteke eta erasoaldiak ez dira gertakizun indibidualak, fenomeno kolektibizat jotzen dituzte asanbladakoek. Orain arte ahopeka eta izkutuan gorde izan badira erasoaldiak, orduak jo du salatzeko, kaleratzeko eta denon jakinaren gainean ezartzeko. Asanbladak antolatu dituen topaketen helburu hain zuzen, emakume askoren lekukotasunak plazaratzea eta hauei irtenbide kontsekuente bat ematea da. Ildo bereetik segituz, hauxe izanen dute aurtengo lema, "ez isildu, ez txepeldu, adoreak bizkortu eta kateak apurtu."

E. MADARIAGA

Itzulpen irakurtezinak

Kaixo ARGIAko lagunok!
Nire eritzia plazaratu nahi nuke eta horretarako hain zuzen idazten dizuet.

Euskaraz argitaratzen diren liburu asko irakurri ohi dut eta noski, gauza guztietan bezala, badaude onak eta ez horren onak; baina zoritxarrez badaude irakurtezinak, horietako bat «*Li-geia. Izu ipuinak*» izanik (M.A. Unanua delako batek E.A. Poe-ren itzulitako ipuinak).

Poek berak liburuan dioen bezala, Unanua honen lumaren bitartez «*Itzultzerakoan kontsideratu behar den kuestio bat badago. (...) Bertsoa, zuzendurik dagokizkion irakurleak hunki ditzan egon behar litzateke moldatua, originalak, zuzendurik zihokakiten irakurleak hunki zitzakeen adina bederen.*»

Egia esan, ez dakit itzulpen honek hunki dezakeen inor ba ote dagoen Herri honetan, benetan ez-dakit-nondik-ateratako-hizkera zailez idatzita bait dago; eta hau bere «*graphia bitxia*» kontutan hartu gabe.

Laburtzeko esan nahi nuke horrelako gauzekin ezin dela jendea irakurketara zaletu eta itzulpenen batekin ausartzen denari mesfidantza sorrerazten zaiola. Azken finean, liburu baten zabaluntza lortu beharrean, bitxitasun bazterrean zokoratzen bait du.

ROBERTO CUESTA

Ikastolen Elkarteari gutun irekia

Adiskideok:

Lotsaz eta minez itzultzen dizuet, sinatuberrri duzuen Hitzarmenaren testua. Beti uste izan dut, Ikastolak euskaraz ikasteko eta ondorioz euskaraz lan egitera iristeko nahiz euskaraz funtzionatzeko (eta funtziona eratzeko) sortuak izan zirela.

Orain aldiz ikusten dut, euskaldunon Gobernuaren omen delako Eusko Jaurlaritzaren izeneko erakunde baten eta AIE, BIE eta GIE izeneko beste erakunde batzuren artean sinatutako Hitzarmena, espainera hutsean sartu diguzuela guraso guztioi. Ez daukazue barkaziorik! Ez Eusko Jaurlaritzak ez eta Federazioek ere. Lehenak bere obligazioa ez betetzeagatik eta zuek ez exijitzeagatik. Indarrean dagoen 1982ko Eusko Legebiltzarraren Euskaren erabilpena Arauzkotzeko Legea bera exijitzeko ere ez zarete kapaz izan!

Zer eredu bikaina eskaini diezuen guraso eta guraso izateko bidean dauden erdaldunei Euskara ikastea ezinbestekotzat har dezaten! A zer eredu Euskal Herriko gainerako pertsona eta taldeentzat, Ikastolen Federazioak erdara hutsean inongo kezurik gabe funtzionatzen ikustea! Edukina dela garrantzitsua esango didazue, baina horrek ez dit balio. Hori aitzakia huts-hutsa da.

Nola fida naiteke ni papelean soilki idatzitako edukinean, berori kaleratzeko erabilutako hizkuntza, bitarteko guztiak eskura dauden garaian eta lekuan, helburu duguna ez denean?

Euskaldun guztion eskubiak zapaltzen lagundu diezue, lege-mailako testu bat euskaraz ez exijitzean. Lotsarik ez diezue eta besteok lotsa erazten gaituzue. «Lea Vd. en cristiano», «Funcione

Vd. en cristiano» bota diezue muturrera guraso euskaldun guztioi eta hori gaur eta hemen ez dago barkatzetik.

ANDONI SARRIEGI
(Ikastolako gurasoa)

Zuzenketak

Joan den astean Andolin Eguzkitzak argitaratu zuen «Txillardegiren alde» artikuluan, traskripzioaren okerra dela kausa, zenbait esalditan hainbat huts agertu ziren. Hasteko, «...eta ARGIA aldizkariakoei argitaratzen eskatzeko deliberamendua hartu dut» esan behar luke, eta ez «*jaso* dut».

«Ez bait nau Txillardegirekin inongo kidetasun politikorik daukakedalako» gaizki dago bistan denez, eta «ez baina Txillardegirekin...» behar zuen. Era berean, «ez diot beraren alderdiari *bozka* ematen»en ordez, «ez diot beraren alderdiari *boza* ematen» aditu behar da. «*Sinetsirik*» ere gaizki idatzia zegoen, «*sinetsirik*» behar zuen eta. Andolin Eguzkitzak «euskaltzale *ona*» pluralean idatzi zuen, eta beraz esaldiak honela agertu behar zukeen: «Peixoto bezalako euskaltzale *onak* egoteagatik».

Ondoren, «Gipuzkoako euskaltzain urgazleen artean hasi da *jendea* bilatzen» zioen jatorrizko testuak, eta ez «*eritziak* bilatzen».

Laugarren parrafoaren hasieran, «zein ez dateke *ustekabea* orduan» esaldian, «*ustekabea*» hitza falta zen.

Geroago, «euskal literaturaren suspertzaile *nagusia*» dagoen tokian «suspertzaile *nagusiak*» jarri behar zen. «...Garapen *ederra*»ren ordez, «garapen *ederraz*» zen zuzena; eta «liburu *interesgarriak*»en lekuan, «liburu *interesgarriaz*». Aurrera segituz, «eta *gazte hauek* aukera gehiago» gaizki emanda dago, bere ordez «eta *gazteagoek* aukera gehiago» behar zuela.

«Ez naiz ni *izanen*» hasi behar zuen azken parrafoak, eta ez «ez naiz ni *izan*». «Lasagarriak esanen duena» esaldian hitz bat falta da eta esaldia osaturik honela izango litzateke: «*lasagarriak direnik* esanen duena». Bukatzeko, «Herri Batasunaren izenean *botatakoak*» behar zuen, pluralean, eta ez «*botatakoa*».

Barkamenak eskatzen dizkiegu gure irakurleei, eta bereziki Andolin Eguzkitzari.



Klasikoak plazaratu Euskal Editoreen Elkarteak

Eusko Jauraritzako Kultur Sailaren babesaz euskal literaturako beste hamahiru klasikoren berrargitalpena ekarri du argitara Euskal Editoreen Elkarteak, iazko zazpiekin batera hogeitaz liburu bilduma osatu dela honez gero, urteroko hamar klasiko plazaratze asmoak borobilduz gisa honetan.

1850. urtetik 1950.a bitartean izkiriaturiko klasikó hauetarik hiru mila aleko argitalpenak gauzatu dira liburu, moldatzaile espezialistaren hitzurrez, eta salneurri eskuragarri. Idazle klasikoaren artean dira horrela, Gregorio Arrue, Txomin Agirre, Elissamburu, Duvoisin, Orixe, Jean Etchepare, Juan Joxe Mogel, Soroa, Jean Baribier, Abeliño Barriola, Arrese Beitia, Urruzuno eta Iturriaga.

PNV eta AEKren arteko negoziaketak aurrera

Gasteizko gobernuaren eta AEKren artean eten-dako akordio harremanak bere orekara bideratzen saiatzeko helburuz, Eusko Alderdi Jeltzaleko eta Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeko ordezkarien arteko negoziaketak hasi ziren iragan diren hilabeteotan. Nahiz eta zehazteko gauza asko dagoen oraindik, aurre-akordio batetarako urratsak eman dira dagoeneko, dirudenez bi aldeetatik itxaropentsu direla, bitarte horretan zenbait ezadostasun azaleratu izan baldin badira ere.

Oraingoz, hiru urtetako akordio batetara ailegatzeko proposamenak luzatu dira, betiere AEKren egungo egoera erregulariza dadin, dirulaguntzei, funtzionamenduari eta Administrazioari dagozkion beste hainbat gai buruz.

EKAINEN BILTZAR SORTZAILEAZ GERO 96 ITZULTZAILE BAZKIDE BATU DIRA

Euskal Itzultzaileen Elkarteak lehen Biltzar Nagusia burutu

Joan den larunbatean Donostian eginiko lehendabiziko Biltzar Nagusiarekin eman zaio sorrera ofiziala Euskal Itzultzaileen Elkarteari, iaz mamitu eta gauzatutako estatutoak Madrilen legeztatu eta onartu ostean.

Iazko ekainean burututako biltzar sortzailearen ondoren, ia ehun bazkidez osatutako Euskal Itzultzaileen Elkarte sortu berri da ofizialki pasatu den astean Donostian eginiko lehen Biltzar Nagusian, non, estatutoen ezagutaraztearekin batera, elkarte buruen hautaketari heldu zitzaion, Juan Mari Lekuona izendatuz zuzendari, Xabier Mendiguren zuzendari-orde, Josu Zabaleta idazkari eta Ramon Etxezarrera diruzaindaria.

Dagoeneko 96en bat itzultzaile bazkidek osatzen dute elkarte, honen funtzionamendurako hainbat sailtan

banatu dituztela eginbeharrak, besteak beste komunikabideei, interpretariei zein liburugintzari dagozkienak. Halaber, egitasmoen berri eman zen, bai eta aurrekontuarena ere (8 milioi urte honetarako), interpretatzaileen arazoak nola itzulpen politikoa gauzatzeko markoaz mintzatzeaz gain.

Hilabete barru burutuko da hurrengo biltzarra sail bakoitzak bere proposamen bereziak luza ditzan, apirilean bartzartuko direla gero APETIko (Asociación Profesional Española de Traductores e Intérpretes) ordezkariekin Madrilen.

Aste honetan

Txillardegia oraingoan
ere kanpoan
(46. orrialdea)

Fermin Valencia
solaskide
(49. orrialdea)

«Mugre»ren hurrengo
diskoari begira
(50. orrialdea)

Leitzatango autobia
kontrako maskarada
(51. orrialdea)

Kulturaren Aste
Borrastea
(52. orrialdea)

Munduaren zabaletik
kultura
(53. orrialdea)

1980.EAN ALTUNARENTZAT LOJENDIOK UTZITAKO TOKIA, ETA LEKUONA ETA SARASOLAK BEREGANATU ORAINTSU BESTE BIAK

Azken bozketarekin hirugarren aldiz ukatu Txillardegiri euskaltzain aulkia

Koldo Mitxelenak utzitako euskaltzain-oso aulkian Ibon Sarasola eseriko da aurrerantzean Euskaltzaindiak orain astebete burutu biltzarreko bozketan erabaki bezala. Piarres Lartzabalek lagatako tokia betetzeko apirilean ekingo zaio beste bozketari bati, zeina lapurtar bati dagokion usadioz.

Koldo Mitxelena eta Piarres Lartzabal zendu zirenetik Euskaltzaindiako hogeitau aulkietarik bi hutsik ziren, iragan den ostiraleko biltzarrean burutu zela lehenak utzitako lekua betetzeko euskaltzain-osen arteko aurkeztu hautagaien bozketari. Haritschelhar, San Martin, Villasante, Barandiaran, Knörr eta Salabururen eskutik Ibon Sarasola izan zen hautagaitzat aurkeztua; eta Txillardegiri bestalde, Xarriton, Irigoien, Zabaleta, Davant eta Krutwig-en partetik.

Emandako hogeitabat botuetatik, bostek baino ez zuten Txillardegiren aldera egin, bakarra zela zuria, eta Sarasolarentzat gainontzekoak, azken hau izendatuz gisa honetan euskaltzain-oso. Txillardegiri hautagaitzat hartu dutela hirugarren aldia izan den arren, berriro ere kale egin dio aulkiaurreko bietan legez.

1980.eko euskaltzain hauteskunde katramila

Dagoeneko 31 urte dira Txillardegiri euskaltzain urgazle bezala izendatua izan zela

(1957), hauen artean urterik gehien egin duena izaki. Euskara batuaren prozesua bideratze sasoian eragilerik nagusienetarikoen artean zen, tartean zirela baita ere Aresti edota Lafitte, besteak beste.

Gogora ekartzeko modukoak dira Baionako bilera haiek (60. hamarkadan), borroka horretan Mitxelena eta beste hainbaten ausentziak bezala. Baina bere merezimenduak ez dira horretara bakarrik murrizten, halaber gerraondoko euskal narratibagintzan ere berriztatzaile nabarmenentzat jotzen bait da.

Merezimenduok kontutan hartuz, 1980. urteko apirilean Haritschelhar, Krutwig eta Irigoienek aurkeztu zuten

estrainekoz euskaltzain-oso hautagaitzat Lojendiok lagatako aulkirako. Ostera, badi-rudi orduko hartan oraindik zeharo askatu gabeko korapilorik suertatu zela: Txillardegiri omen zen hautagai bakarra, nahiz eta, arratsaldean burutzekotan zegoen bozketaren aurretik, bazkal orduan, zenbait euskaltzain bigarren hautagai bat aurkeztu ahal izateko sinadura bila aritu ondoren, Patxi Altunaren izena agertuko zen.

Euskaltzaindiaren apolitikotasuna kolokan

Orduantxe hurreratu zitzaion Txillardegiri euskaltzain osoetariko bat —bere izena ez da inoiz ezagutzera eman— esanaz, borroka armatuarekiko bere jarrera ideologikoa aldatzen ez zuen bitartean ez zela euskaltzain osotzat sekulan onetsia izango. Erizpide akademikoez gain badira, itxuraz, beste zenbait baldintza 'Euskaltzaindiaren' begiko izan ahal izateko.



Txillardegik lan eskerga burutu zuen euskararen batasuna sendotzeko bidean; argazkian, Bergarako Biltzarrean hizlari.



San Martin, Salaburu eta Haritschelhar izan ziren beste zenbaiten artean Ibon Sarasola hautagaitzat aurkeztu zutenak.

Segidan, arratsaldeko bozketari ekin, eta Txillardegik ez zuen izendatua izateko derrigorrezko 13 botuen kopurua erdietsi. Kontuak horrela, prozedurarekin konforme geratu ez, eta euskaltzainburuari gutun bat igorri zion bere kexua adieraziz eta, bidena-bar, bera gehiago ez aurkezteko eskaria luzatuz. Uztai-lean hautagai bakarreko beste bozketa bati ekin zitzaion, Patxi Altuna euskaltzain bihurtzen zela ondorioz.

Ostean, haatik, euskaltzain izateko paradarik ukan du beste bitan: iazko abenduan, Manuel Lekuonaren ordezkoi Juan Mari Lekuona hobetsi zutenean, eta pasatu berri den urtarrilaren 29an azkenik.

Hiru euskaltzain-osorekin solas bi

Euskaltzaindiako aulkien azken boladatak hutsunez hiru euskaltzain-osorekin

ihardun dugu, segidakoak di-rela haiengandik jasotako pasarte labur batzu.

Alfontso Irigoieni galdetu genion ze eritzi merezi dion azken bozketa honetan Txillardegiren aldeko botuak bere aurkezleen aldetik bakarrik jasotzeak: «Pentsatzekoa da, bai, hautagaitzat aurkeztu genuen bostok bozkatu genuela Txillardegi. Besteen botuak ez ditut ezagutzen, baina nik neurea eman niola badakit. Txillardegiren garaiko belaunaldia oso garrantzitsua dela iruditzen zait gerraondoko eboluzioan, eta ez dut uste belaunaldi hori behar den moduan primatu eta kontutan hartu denik. Gainera, pentsatzen dut belaunaldi hori aurretik zegoela, beste belaunaldi bat baino».

Jean Haritschelhar-ek bere aldetik, hauteskundeotako prozedura demokratikoa azpimarratu nahi izan zuen bereziki: «Nik pentsatzen dut hautagaiengan denetarik badela. Izan dira mementu batzutan hiru kandidatu ere.

Bakoitzak baditu bere merituak. Batzuk eritzen dute batzuk besteak baino merezimendu gehiago duela, eta orduan horren alde bozkatzeko du. Orain, badakit nola agertzen diren prentsan kontu ugari. Nik erran nahi dut, nolaz Euskaltzaindiak hautatu du Patxi Zabaleta Aita Intzaren ordezkari? Bon, bada esplikaziorik? Tira, Euskaltzaindiak pentsatu bait du meritu gehienik zuela Zabaletak, eta besterik ez!».

Jean Louis Davant-ekin hurrengo aulkari buruz mintzatu ginen: «Nire iduriz euskaltzainaren erizpidea ez da absolutu bat, baina orain arte ohi-tura jarraitu eta euskaltzain ordain bat eskeini izan zaio. Iduri zaut egokiena dela Iparraldekoek lehenik beren artean hautagaiak mintzatzeko. Nik behintzat nahi nuke. Orain, ikusiko dugu bestek zer erraiten duten. Elkarrekin eztabaidatu beharko genuke Haritschelhar, Hiriart-Urruty, Emile Larre, Xarriton eta bostok».

Txillardegik ez omen luke besteren lekurik nahi

Apirilaren azken aldera burutuko den bozketei buruz, dagoeneko Lartzabalek utzitako aulkiarako hautagaiak nortzuk izan daitezkeen zurrumurruak haizartzen hasiak dira. Landart, Oihartzabal eta beste aipatu dituzte jadanik, hala eta guztiz, bestalde, Txillardegik laugarren aukerarik ukan deza-keela ere aitatu den arren.

Zurrumurruari jarraikiz ordea, entzun dugu halaber Txillardegi ez dagoela inondik ere prest usadioz bederen lapurtarren bati dagokion lekua bereganatzeko. Antza denez, behin bakarrik gertatu ei zen euskalki erizpideari jaramonik ez egitea, hain zuzen Olabide arabarraren ordezkari Antonio Arrue frankista izendatu zenean, diplomatikoki a propos eritiziz.

GORKA ARRESE

A trebentzia ez bada

Txillardegik ez ote meritu nahikorik?

ASKOK hala uste arren, ez da ez oraingo ez aurrekoan Txillardegi euskaltzain oso aukeratua izan.

Hala ere, kanpotik begiratuta bera bezalako batek baluke zer esanik Euskaltzaindiak oraindik eginkizun daukan bitan, hots, euskararen standartzazioaren arloan, orain arte erakutsi duen maisutasunagatik.

Baina zerk eragin du jadanik hiru aldiz baztertua izateko? Ez zaio Euskaltzaindiari Txillardegi bezalako hizkuntzalari-idazlerik interesatzen? Ez ote du meritu nahikorik euskaltzain oso izateko?

Euskaltzale asko eta askoren ahotan arduraz hartu da Euskaltzaindiaren erabakia. Eta euskalgintzaz kanpoko arrazoiez hitzegiten hasiak dira. Penagarri deritzaio Euskaltzaindiaren zeinahi erabakik horrelako zerbait pentsatzera eramanez.


Hizkuntzak ideologiaren ginetik izan behar duela maizegi esan da, euskaltzain izateko ere ez litzaioke ideologiari begiratu behar, euskararen preminei baizik.

GOTZON AURREKOETXEA

ELHUYAR

ZIENTZIA ETA TEKNIKA

Hurrengo alean



**VENEZIA SALBATZEKO OBRAK
HALTZA ZUHAITZ BITXI HORI
BIZKAIKO AZKEN BETIZUAK
ANDREI TUPOLEV, ABIOGINTZAREN AINTZINDARI
IZOTZAUSLEAK
NOLA AZKEN DA BASOA?
TRENBIDEAREN ETORKIZUNA EUROPAN**

**eta ohizko sailetatik aparte, 16 orrialdeko eranskin berezia,
"NATURAREN BABESA EUSKAL HERRIAN"**

Otsailaren batean zure kioskoan

"Elhuyar. Zientzia eta Teknika" aldizkaria jaso nahi dut. Urtean honen sei ale jasoko ditut gainera doan "Elhuyar" aldizkariaren bi ale.

Izena.....

Hebidea..... Lanbidea

Hiria..... Telefonoa

Ordainketa:

Errenboltoz

Kontu korrontea k/k: zenbakia..... Bankua:.....

- 1.988.erako 2.400 pta. Euskal Herria eta Frantzia
- Bi urterako 4.300 pta.
- Hiru urterako 7.000 pta.
- 1.988.erako 3.000 pta. beste herrietan.

Harpidetza-txartela: ELHUYAR Kultur Elkartea. P.K. 361. DONOSTIA

EUSKAL KANTA BERRIAREN GARAIKO ISLADA NAFARRA

Fermin Valencia: «Orain erdaraz kantatzea onartuago dago»


Aski nabarmen gertatzen da Nafarroatik Bizkai-Gipuzkoetara kantuaren arloan, diskogintzan edo taldeen ugaritasunean izan den eta dagoen aldea. Fermin Valencia dugu garai batean horretan zebilen bakarretakoa. Lehenaz nahiz litekeen geroaz mintzatu zaigu oraingoan.

Jendeak ez du gehiegi eza gutzen Bilbo eta Nafarroa kenduta, Oskorriekin nahikoa jaialdi egina bera. Langileriaren eta nazioaren arazoei lotutako musikarekin gehien bat. Euskal poesia batzu musikatu, besterekin bildu kantatzeko, erdaldun kantal sortu e.a. «Errepresioa Iruñean indartsuen zebilenean tokatu zitzaidan gehiena kantatzea». 35 bat kantaldi galerazi zizkioten eta baita «Tafallako zerriarena» kantu famatu erderazkoa ere. Lauz-pabost urtetako lanaren ondoren kantuegile anitzi gertatu bezala, konturatu zen espresabide berri batzu hartu zituela jende askok eta kantatzen segitzeak halako profesionalizatzea eskatzen zuela, edo batzuren gustuko gurdira igatea. Lan bat bilatu eta bazter samar utzi zuen kantua. Orain noizik eta behin kantaldi zenbaitera joaten da.

Erdaraz kantatzen zuten euskal kantariak jasandako bazterkeria eta kritikak ere pairatu zituen Ferminen garai batean: «gainera talde politiko konkretu batekoa izateak eragina zuen horretan, gaur egun hori aldatu da. Garai hartan gainera pentsa Nafarroan zer eredu behar ze-

nuen, zuk espresatu egin behar zenuen, eta erdara behar jendearengana heltzeko». Erribera bestalde, hizkuntza arloan prolematikoa izateaz gain aberatsa gertatu zen berretzat esperientzien aldetik eta. Han euskaraz kantatzeak arazoak zekarzkion

Lehenago kantu mugimendua berrituko den esperantza du Ferminen.



kantariari, baina berak hala ere euskaraz kantatzen zuen. «Arazo sozialak salatzeko zituzten kantu erdaldun batzuk eragin handia izan zuten eta horri ezin uko egin».

Euskal Kanta Berriaren eragina

Inportantea izan zen, Nafarroan ez bait zegoen deus, eta eragin handia izan zuen. Langileria munduan Imanol gogor sartu zen, ondoren Oskorri, lan handia eta kalitatekoa egin zuena. «Ez dok hamahiru» bukatu zenean bera zen gainontzeko herrialdeen ordezkari. «Besterik ez zen izan, ni eta kitto».

Ferminen ustez kultur mugimendua ez zen inguru euskaldunean gertatu, eta gutxi ziren euskaldunak kultur giro hartan. «Hara Leitzu, han bada kultur mugimendu bat eta gainera bada euskal kultura zahar bat, herri interesgarria. Zuk eraman mementu hartan Iruñean egosten zena egungo Leitzara eta gauza hagitz interesgarriak aterako ziren, baina...».

Musikaren finantziario istuzionala dela ta, hainbat talde edo txarangari partitzen zaiena aurpegi garbitzetako dauka: «kultur diruarekin egiten dena lotsagarria da, Olibeteo jaialdietan sekulako dirutza gastatzen da, jende gutxi parte hartzen du. Hemengo bultzatza beharrean edo kontserbatorioak sortu beharrean, gero abandonatuko diren kultur etxeak egin ditu Gobernuak Erriberan. Hori ez da kultur politika, justifikazio hutsa baizik».

Kantuaren beharpena geldieraztea

Bestalde, hemengo kultura gehiago bultzatzeko beste herrialdeetako artistekin harremanetan zerbait egin behar litzatekeela dio, baina ihes egiten omen dio Gobernuak horri politika hutsagatik, horrek nazio kontzientzia gehiago indartzen baitu.

Nafarroan indar antxean dabilen kantu txapelketa dela ta, asmoa sozioekonomiaren egoerak ekarritako kantuaren beharpena geldieraztea dela diosku. «Kantuak erreperatu eta jendea animatu ikasi eta kanta ditzan, gero plataformarena eta, uraz bestaldeko sua da».

Era berean, antolaketa eta harremana beharrezkotzat ikusten ditu euskal kulturako jendearen inguruan: «ideologi diferentziaz gain badira oso eremu konkretuak kultur munduan elkarrekin lan egiteko».

INAKI CAMINO

BERE GAI BERRIAK
EUSKARAZ EGINDA

«Mugre» taldea euskal diska bat ateratzeko asmoz

«Mugre» taldeak euskal rockanrolean kokatzen du bere musika, horregatik euskaraz abesten hasi da eta bere gogoko gauzarik handienetariko bat prestatzen ari diren LPa grabatzea litzateke.

Hala ere, euskal musikaren panorama beltz xamar ikusten dute, batez ere diskoetxei dagokionez. Oportunitate eza, beste gauza batzuen artean, gehien kritikatzeko duen gauza bat da.

David, Grugi, Juanjo eta Patxi, Burlatakoa den «Mugre» taldea osatzen dute. Orain dela seispazazpi urte hasi ziren gazte hauek rockaren mugimenduan, ia-ia kitarra jotzen ikasi zutenetik. Hasiera hartan «Mugre»koek kanpotar bertsoak baino ez zuten egiten, Johnny Winter, Proli Gallagher, Jimmi Hendrix, beste batzuen artean beraiek gogokoak zituzten. Gero aurreratzean, berezko kantak hasi ziren egiten, duela lauren bat urte.

«Mugre» taldea ez da estilo bakar baten barruan sartzen, behintzat ez du definitu nahi eta egiten duen musika zabal da. Gai batzuk oso heavy egiten dituzte beste batzuk berriz blus antzekoak dira, talde honen gustoak oso zabalak bait dira, horregatik heavy eta beltzen blusen artean kokatzen dira sarritan. «Mugre»k egindako hitzak oso sentiberak dira, sentibe-

regiak agian beraiek esaten duten bezala, baina azken finean bere helburua kalitateko musika egitea da jendeak ondo pasa dezan eta gustora egon dadin bere kantak entzuten eta jaialdia ikusten duen bitartean.

Duela gutxi talde honek bere lehendabiziko LP-a kaleratu du «Dale caña a los pies» izenarekin, erdera hutsez, hala ere, prestatzen ari den LP-a euskara hutsez izango da. Oraingoan lau kanta euskaraz dituzte horko bi «Itzalak» eta «Ehun metro» izenekoak. «Ehun metro» konkretuki oso ona, eta jendea oso gustatzen zaio. «Kanta hau egitea "Ehun metro" filmean ikusterakoan bururatu zitzaizgun eta bideo bat egitea pentsatu dugu». Bideo hau oso ona litzatekeela dirudi, baina gazte hauek ez dute medioren proiektua aurrera eramateko. «Horretarako dirua behar da eta guk ez dugu, dena den egitekotan jadanik pentsatuta dugu nola izango litzatekeen, "Ehun metro" filmean eta taldearen eskenak tartekatuz».

«Mugre» eta euskal rockanrola

«Mugre»ren ustez euskal rocka delakoa momentu on batetan aurkitzen da, baina matizazio batzuek egiten ditu eta ez dagoela euskal rocka izenarekin ados esaten du. «Euskal rocka etiketa bezala hartuta dago. Euskal Herrian

guar egunean egiten ari dena euskal rocka deitu arren ezin da rock kontsideratu zeren eta orain egiten ari den musika punk eta ska da, gehien bat».

«Mugre»koak, nolabait larriturik daude euskal musikaren mugidan egiten denarekin. «Badirudi gaur egun Euskal Herrian musika egiteko eta, batez ere, jotzeko mugida politiko konkretu baten barruan mugitu behar duzula, horregatik gu bezalako talde askok ez du irtenbidetik. Honekin ez dugu esan nahi guk politikoki argi ez dugula, baina bai askotan politikaren bidez kalte batzuek konsagratu direla Euskadin».

Diskoetxeen jarrera mugatua

Beste aldetik «Mugre»koek diskoetxeak kritikatzeko dituzte, beraien eritziz oso eroso jotzen bait dute eta diskoetxeen lanak dirua ateratzeko helburu bakarra duela iruditzen zaie. «Diskoetxeak euskal rock radikalaren etiketa asmatu dutenak dira, horrela oso leku estu batetan murgiltzen dira eta talde askori promozionatzeko esparrua galeratzen diote, nolabait».

Kritika guzti hauen gainetik «Mugre» nafar talde on bat bezala koka daiteke, ondo jotzen du eta gainera garbia da. Bere helburu bakarria berari gustatzen zaion musika egitea da, musika ona eta Euskal Herrian, bere herria delako eta askotan oso erreza ez izan arren ez dute itxaropenik galtzen eta euskaraz kantatzeko beharra oso argi ikusi dute.

MARTA DIEZ



«Mugre», nafar talde on bat da, ondo jotzen du eta gainera garbia da.

EZPELETAN AURKEZTEN DA OTSAILAREN 6-AN «PATXA»K ANTOLATURIKO «ROCK EGUNEAN»

Leitzarango autobiarene aurka mintzo den maskarada berria

Leitzarango bailaran egin nahi den autobiarene aurkako koordinakundearen borrokaren sostengu gisa, 45 neska-mutilek maskarada bat prestatu dute «Sebastopoleko Titiritero»en babesean, Ezpeletan hasita Euskal Herria, herriz herri, korritu asmoz.

Iruñetik Donostiara bitartean Leitzarango bailaratik barrena, Gipuzkoako eta Nafarroako Foru Aldundiek bat eginik gauzatu nahi duten autobiarene alde nahiz aurka asko egin eta hitzegin da aspaldiko partean. Duela hila-bete batzuk, autobiarene aurkako Koordinakundeak maskarada batetan pentsatu zuen, aurtengo kanpaina berria girotzeko arma egokia bezain interesgarria izan zitekeelakoan. Prest dute jada.

Leitzarango inguruko ohituren atzetik

Antzerki munduan ari diren batzuk, langabetuak, ikasleak, irakasleak, rock talde zenbaitzuetako partaideak, kazetariren bat... 45 gazte bildu dira denetara, maskarada hau aurrera ateratzekoan. «Garbi daukagu autobia hau erokeria bat dela», dio partaide batek. Argi dutena Leitzarango bailararen afera lau haizeetara aldarrikatzeko modu arras egokia dela heurrek aukeratua. «Bestalde esan behar dugu —jarraitu da beste partaide bat—, hauta-

bilduma egin du, zenbait liburu eta dantza taldeekin egon ondoren». «Beste zenbaitzuk doinu zaharrak eta bertsoak bildu dituzte base-rietan eta. Jantziak egiten aritu da beste talde bat...», diote batak besteari hitza kenduz. «Ordenadoreak, bideoa, fokoak, soinu ekipo eta guzti honekin izugarritzko maskarada ikusgarria preta-



Ekosistema eta usadioak babestea bezalako xedeak ditu «Leitzarango Maskarada»k.

keta honek Leitzarango inguruko ohiturak, dantzak eta kantak ikertzeraz bultzatu gaituela».

Taldeetan banaturik egin dute guzti hau: «Batzuk gidoia prestatzeaz arduratu ziren», «beste batek dantzen

tu diagu, adi!», bota du beste batek harrotasunez.

Donostia eta Iruñearen arteko amodioa

Maskaradaren barruko trajea adierazten jardun zaizkigu segidan. Leitzarango mas-

karada'k Euskal Herriaren garapenaren berri emanen digu, «Jesukristok puzkarrak bota zianean sortu huen natura —esan du 'Lupax'ek farrari ezin eutsiz—, gero harriak herri egin hituen, hiriburuak segidan, kapitalistak barra-barra, paper olak ireki zizkiaten...», eta hariari jarraituz, non sartzen duzue autobia? «obraren atal. batean amodio bat ematen da Donostia eta Iruñearen artean, (matinada bat, ziur!) eta nola gauzatu amodio hori? autopista baten bidez alegia, zeinak natura guztia zapalduko duen». Ohizko maskaradaren aldean heurenak egundoko martxa duela aitatu ditate.

Hainbat herritako zimen-duak astinduko dituztelakoan daude. Goizean goiz hasi eta egun osoz iraungo duen festa luzean girotuko da maskarada. Entzun, entzun: «Goizean kalejira bat egingo diagu maskaradako partaide guztiok, arratsaldean bapo bazkaldu eta gero ordubete pasea irauten duen maskarada antzezteko kaleko berotasunean». Gau giroan ikus-entzunezkoak, bideoa nahiz filmiak izango dira, beti ere Leitzarango autobia gaitzat hartuta, «manifak, kontzertuak... Hau duk hau mogida, hi!».

Ezpeletan estrainekez

Esan bezala, Baionatik gertu dagoen Ezpeletan aurkeztuko dute. Gerora autobiarene eraginez kalteturik suertatuko lirakekeen herrietan ematea dutelarik asmo, hala nola Irurtzun, Billabona, Leitza, Andoain... «Gu prest gaude deitzen diguten edozein lekutara joateko», argitu digute.

Diru kontuez amaitu dugu elkar hizketa. «Orain arterainoko gastuak guk antolaturiko jaialdi eta abarretan ateratako diruarekin ordaindu ditugu, baina beno, honekin ez da askorako iristen ze gurea nahiko muntaia konplexua bait da». «Autobia ez, maskarada bai» izan dira heuren azken hitzak.

JUAN PETRIKORENA

Paperetan idatziak

KRIKIKA

Urliarentzat 1987ko urtea euskal literaturan nobelaren urtea izan bada, Sandiak peto-peto esango digu ipuingintzaren urtea izan dugula, eta Berendiak ere muturra behar ez duen tokietan sartuz, lirikan lan aberatsak argitaratu zirela iaz ziurtatuko digu, aurpegirik serioenarekin. Kritiko edo mitikoen arteko desadostasunak beti izan dira interesgarri bezain aberasgarriak. Azken batean, musu-gozo klase guztientzako kritikoek balantzaka eginiko balantzeak argitaratu ziren. Nobelan zein poemagintzan zein ipuingintzan aurki ditzakegu atsegineraz irakurri izan ditugun liburuen izenik. Desberdintasuna, aberastasunaren aztarna omen dugu.

Jon Kortazar, («Eguna», 88-I-28).

UNIBERTSATEA

Bultzada haundia ikusten dut gaurko ikasleengan. Baina pentsatzen dut unibertsal egitura ez dagoela prestaturik arriskua eta iniziatiba saritzeko. Oso tristea da hogeituroko pertsona baten ilusio guztia funtzionario on bat izatean jarriko dagoela frogatzea. Eta garbi gelditu bedi ez dudala ezer funtzionalgoaren aurka.

Pedro Miguel Etxenike, («El Correo Español-El Pueblo Vasco», 31-I-88).



AEK-EAJ HITZARMENA

AEK euskalduntze eta alfabetatzearen plan-teiamendu akademizista eta profesional soila gainditzen saiatu da, hori herri osoaren bidegintza eta herrigintza gisa ulertuz; hau da, alfabetatzea eta euskalduntzea eta kulturazko berpizkunde osoaren testuinguruan gauzatuz. Guzti honen adierazgarri dira AEKk antolatutako dituen euskararen aldeko mobilizazioak, manifestazioak eta herri mailako beste ekintzak, guztiak trebetasun handiz antolatutako, ene aburuz (Korrika, jaialdiak, e.a.)

Paulo Agirrebaltzategi, («Hemen», 88-I-29).

ITZULTZAILEAK

Hizkuntza guztietan errekreatzen da obra itzultzerakoan itzultzailea, baina euskaraz beti ere esfortzu gehiagorekin. Zentzu horretan itzultzailea ez da zaputzen, baina bai gizartearen inkonprensiogatik. Jatorrizko testuaren protituitzailetzat joa izan da, hori gutxienez, historian zehar. Ez zaio definizio zuzenik eman, ez eta ez zaio justiziarik egin bere lanari zeina autorearen parekoa edo hobeia izan liteken. Askok falta da irakurleak autoreari ematen dion kontsiderazio bera emateko itzultzaileari. Duela hogeitabost urtetik hona itzultzailearen izena agertzen da liburuetan; eta gerora, azalean azaltzera paseak dira itzultzaile oso garrantzitsuen kasuak, autoreari egiten zaion bezala itzulpenaren kritika egitea falta da. Zeren egile-kideak gara, egile eskubideak, legalki, kobratu bait ditzakegu.

Xabier Mendiguren, («Deia», 31-I-88).



Joxe Mari Otermin

Xipri
Arbelbide-ren
galderak
Baionako
Gure Irratian

Duela bost urte sortu da Euskadi Irratia. Bost urteren buruan zertan zaretze?

— Momentu honetan, eta bost urte horien on-

dorio bezala, esango nuke emisora heldu baten aurrean gaudela eta emisora heldu bat bizi dugula. Alderdi horretatik bide bat egina dagoela eta bide horretan ez dagoela gehiago atzera egiterik. Nolanahi eta bost urte horiek bide bat egiteko balio izan baldin badigute ere, balio izan digute beste maila batean baita oraindik egiteke zer daukagun ikusteko. Eta hor piska bat izutu egiten naiz, baina esan dezaket gauza asko dugula egiteko. Orain bertan —eta nik badakit gure programazioan eta hogeitalau orduz ari garelarik— ordu batzuk, bada, ongi samar daudela, asentaturik daudela, patsada bat badutela, baina oraindik ere ordu asko daukagu, nolabait ere, mamiz eta haragiz hornitzeko. Eta falta zaiguna egitea batetik, eta horrez aparte, orain bertan guk ditugun hutsuneak ikustek ezkatzen nau eta horretantxe gara: bide bat egina, baina asko falta zaigu oraingoa borobiltzeko eta oraindik beste gauza asko ere egiteko.


— Non daude zuen irrati-entzuleak?

— Gipuzkoan zalantzarik gabe. Gipuzkoan eta kolorerik gabe esango nuke. Eta bigarren mailan, distantzia eta alde handi batean Bizkaian. Araban, Nafarroan, ez dakigu zenbat entzule diren, gutxi gora behera bai, bainantestimonial samarra da gure presentzia. Batez ere Araban, Nafarroan entzule gehiago dugu eta Iparraldean, zoritxarrez, ez dakigu, ez daukat orain ber-

tan ideia bat, zenbat izan ote ditzakegun. Iparraldean entzule batzuk baditugula jakin badakit, momentu honetan kopuruaren berririk ez, eta ez dakit egunen batean posible izango zaidan hori jakitea. Baina, berriro diot, eta zuri erantzunez, neurri handi batean Euskadi Irratia, orain bertan, Gipuzkoari loturik dagoela.

— Jin gaiten irratiaren mamirat. Zer prolema berezi du euskal irrati batek?

— Irrati batek ez dakit. Baina euskaldun irrati batek prolema nabarmen bat du hegoaldean. Eta da entzulegoarena. Euskadi Irratia sortu zenean bagenekien, guk, entzulego jakin bati bakarrik luzatu ahal izango geniola gure mezua. Eta hori, gure gizartean, lautatik bat bakarrik izango zela. Besteak erdaldunak direlako, edota frantzesia edo espainola. Alde horretatik, gogorra da guretzat hori jakitea: lautatik baten-tzat bakarrik ari naiz ni mintzatzen momentu honetan. Eta ez hori bakarrik, irrati egiteko momentuan lautatik bat bakarra da nire mikrofonoetara etorri eta euskaraz mintza daitekeena. Nik uste, arazoak baditugu baina nagusienetako bat hau dela. Gure gizartean lautatik bat bakarrik kontutan hartu beharra mezua igortzeko momentuan eta baita, nolabait ere, irrati egiteko momentuan ere. Hori da arazo latza, eta hori ikusi egiten da, hemengo profesionalak tarteka negar egiten dute esanez, " behar bada gaur ni eta beste bat lan beretsua egiten aritu gara, eta besteak nik baino luzimendu gehiago izan du, eta ni beti bigarren izan naiz eta izango naiz ere bai". Alderdi horretatik, nik uste euskararen egoeraren ispilu dela irrati egitea eta euskaldunon arantzak behin eta berriz eskuetan edukitzea dela euskara hutsean egindako irrati bat. Alderdi horretatik esango nuke prolema latzena, gogorrena eta luzarora gogoeta eta erreflesioa eragin behar diguna horixe dela.



— Bost urtez aldaketak izan dira irratian. Zein izan dira aldaketa handienak, esperientzia bilduz egin dituzuenak?

— Begira. Euskadi Irratiak urratsak eta saltoak eta jauziak eman ditu, bainanetan dezaket poliki-poliki egiten joan den irratia izan dela. Alderdi horretatik, egia esan, ez genekien guri egun batean posible izango zitzaigunik hogeitalau orduz egotea. Lehen esan dut guk ordu batzuk betebeharrak baditugula eta hobeki hornitu beharrekoak baditugula. Hori bai. Baina, esate baterako, zaila egiten zitzaigun guztioi hogeitalau orduz boletinak eman ahal izatea. Eta gaur hori normaltasun osoz egiten dugu. Zentzu horretan, esan liteke poliki-poliki joan den irratia bat izateaz aparte, poliki joate horrek berak erakutsi digula zer egin dezakegun eta zer ez. Hasieran ikusten genituen gauza batzuk: dramatikoak esate baterako, kontakizunak eta errelatoak egitea. Hasieran ikusi genuen egin behar genituela, gerora ikusi dugu hori oso zaila dela eta behar bada beste gauza batzu egin behar genituela. Esate baterako informazioa. Informazioa, hasera batean nik ez nuen uste posible izango zitzaigunik hogeitalau orduz egitea eta orain ikusi da posible dela. Poliki-poliki joate horrek berak erakutsi digu posible zitzaigula, ez boletinak egitea bakarrik, baita duintasun batez egindako irratia eskeintzea ere bai. Lehen esan dut lautatik batek bakarrik jasotzen duela guk igorritako mezua eta guk irratia egiteko momentuan lauta-

tik bat bakarrik dugula solaskide izateko moduan. Hori egia da. Baina, hala ere, eta nik uste bost urte horiek erakutsi dute, Xipri, posible dela duintasunez egindako irratia bat Euskal Herri honetan. Mugatua. Ados nago horretan eta konforme. Mugatua eta mugak nik neuk eman ditut lehen, bainan duintasunez egindako irratia bat posible dela bost urte hauetan.

— Aldaketak izan dira irratian, pentsatzen dut zure gogoan ere. Duela bost urte Herri Irratian zinen, beraz irratia elebiduna eta espainol asko, euskaldunak baino gehiago, orduan bazenuen euskal irratiaz ikusteko modu bat, orai beste bat. Zer aldaketa zure gogoan?

— Beno. Alde batetik, nerretzat, egokiera eta modu haundi bat euskara hutsean egindako irratia bat zuzentzeagatik. Euskal munduan ibilitako jendeak beti bagenuen, "posible izango ote zaigu egunen batean guk euskara hutsean egindako irratia batean lan egitea?", hori beti izan dugu gutxi edo asko euskal irratia munduan ibilitako jendeok. Alderdi horretatik aukera bat izan dugu guztiok euskara hutsean egindako irratia bat landu ahal izateko. Diferentziak eman diren ala ez? Kasu honetan, Arbelbide jauna, pentsatu behar da irratia publikoa ere ba dela hau. Eta gauza batzuk utzi egin behar izan ditugula. Esate baterako informazio munduan iritziak ematea, oraingoz eta gure partetik, baztertu egin behar izan dugu. Eta hori jendeak uste duen baino salto haundia goa da, informazioa bereiztea batetik eta eritzia bestetik. Eta esate baterako Herri Irratitik hona, alderdi horretan, diferentzia nabarmen bat dago. Horrez aparte, beste erizpide erabat nabarmena hau da: gu aurretik ibilitako irratietan diruak asko zezakeen eta programazioa, neurri batean, finantza iturrien arabera egiten zen, emisora pribatuak zirenez.

Karmelo Landak puntua jarrita



Iñaki Zabaletari



— Duela gutxi zeure eritzia agertu duzu, euskal kazetaritzan eta, oro har, komunikabideetan, ikerketaren premia azpimarratuz. Nolako ikerketa proposatzen duzu, eta non egin beharrekoa?

Euskal komunikabideak eta ikerketa, bi hitz garrantzitsu eta bietan pobre izanik, bi bide ezberdinetan zehar txertatu eta eraman behar ditugu aurrera, ene ustez.

Bide bat: euskal komunikabideetan kazetaritza ikerlaria bizkortu behar da, hau da, erreportaia inbestigatiboak, kritikoak, Euskal Herriko gizarteaz, eta horretan euskarazko berri agentzia beharrezkoa da.

Bide bi: euskal komunikabideetaz ikerketa egin unibertsitatean; honetarako «Ikerketa Instituto» bat unibertsitatean egokia da, komunikabideekin harremanak edukiz eta hauei proposamenak eginez. Ikerketa arlo nagusiak hauek izan daitezke: mezuen hizkuntza periodistikoak eta estilo liburuak. Ikerketa metodo nagusiak, berriz, hauexek: laborategi esperimentuak, eduki analisiak eta adituen inferentziak.

Puntako argitalpenak

Gasteizko «Axular» liburudendak emandako datuak

Literatur liburuak:

- 1.— «Udazkenaren balkoitik», Joan Mari Irigoien. Erein.
- 2.— «Tobacco Days», Anjel Lertxundi. Erein.
- 3.— «Marinel zaharrak», Joseba Sarrionandia. Elkar.
- 4.— «Irene», Pako Aristi. Erein.
- 5.— «Londresen nago nire aitonarekin», Joxemari Iturralde. Erein.

Orotarikoak:

- 1.— «Euskal Herriko inguru gordeak», Miguel Angulo. Elkar.
- 2.— «Kamasutra». Anonimoa. Elkar.
- 3.— «Urtekaria 87». Egin.
- 4.— «Lapurdi historian», Manex Goihenetxe. Elkar.
- 5.— «Hiztegia aberasten», Elgoibarko Euskara Mintegia. Elkar.

«Hautaketa», Idrissa Ouedraogoren lehen luzemetraia Burkina-Faso-n

Burkinako zinegile honen lehen laburmetraiak mutuak ziren kasik, 'irudia hobeto lantzeko' dio berak. «Hautaketa» dokumental gogor baten moduan hasten da, eguzkiak erretako parajeak, disenteriak jotako herritar mordo nazioarteko laguntza erakunderen baten kamioiaren zai, egoera horri aurre egingo dion patriarka baten historia kontatuko digularik. Sahel inguruko Afrikari begirada sarkor batez begiratu dio Ouedraogok. Bertakoen begiez.

Neel Doff holandarra, prostituziotik idazlanera

Neel Doff, prostituta holandarra, letrarik gabekoa, pintoreentzat posatzen inguratu zen artegitzara. Azkenean 1942. urtean hil zen errenta handi baten jabe zelarrik. Bitartean bere memoriak idatzi zituen. Frantzesez. Memoria hauen azken liburua birrargaratu berria da Frantzian, 'Keetje' izenburua daramalarik. Historia bera kondatzen da hemen, holandar miserable eta analfabeta baten historia. Prostituzioan hasi eta literaturan bukatuko duen emakume baten historia. Desoreka handiak dauzka Neel Doff-en obrak. Mende hasieran asko goratu zen baina berehala ahaztu zen gero. Herritarrek ez zioten barkatu frantzesez idaztea, frankofonoek berriz neerland-keriaz salatu zuten. Halaz eta guztiz ere bere trilogia autobiografikoak merezi du irakurtzea.

'Vati' rekin ('Aita') Peter Schneider-ek nazismoarekiko polemika piztu Alemanian

Nazismoaren herentzia zela nola libratu izan da Mendebaldeko Alemanian 'Vati' liburuaren argitaratzeak ekarri duen polemika. Peter Schneider-ek gehien bilatu izan den Josef Mengele kriminal nazia erabili du aitzeki bezala. 1985. urtean iragarri zen Mengele hil zela eta bere semeak identifikatu zuela. Berrogei urte luze pasa ondorengo aita-semeen elkar-topatzean oinarritu du liburua Schneider-ek.


Picassoren 'Avignonoko neskatalak' New York-etik Bartzelonara Parisetik paseaz



Aukera paregabea izango du pinturama-noak Picassoren 'Avignonoko neskatalak' koardoa ikusteko New York-era joan gabe. Temperatura kontrolatutako kutxa berezi batean sartu, urria baino garestiago aseguru eta abioian sartu zuten New Yorken Pariserako bidetan. Apirilaren 18a bitartean egongo da Thorigny kaleko Picasso Museoa. Bartzelonako Picasso Museoa berriz maiatzaren 10etik uztailaren 14a bitartean. Bestalde, Picassozalearentzat, honen azken obrak, 1953-1957 aldikoak, Beaubourg-en egongo dira otsailaren 18tik aurrera.

Roman Polanski antzerkigintzan, zinegile baten 'metamorfosia'

Hainbat film ezagunen zuzendari izandakoak Franz Kafkaren 'Metamorfosia' antzezten ari da egunotan Gregor Samsa pertsonaiari bizia emanaz. Steven Berkoff izan da Pragako juduaren nobela famatua antzerkira bihurtu duena eta Roman Polanski-k aukera izan du antzerkira itzultzeko.



Roman Polanski Gregor Samsarena egiten 'Metamorfosia'n.

Izan ere ez da Polanski antzerkigintzan dabilen lehenengo aldia. 1947. urtean hasi zuen bere karrera Krakobian, Valentin Katayev-en 'Erregimenaren semeak' antzezlano paperik nagusienean. Poloniako guduan erdian antzerkigintzan ahalegindu zen, baina antzerki-eskolatan onartzen ez zuten hasi zen Lodz-eko zinema-eskolan. 1971an 'Macbeth' antzeztu zuen Britainia Handian, Alan Berg-en 'Lulu' 1974an, Verdi-ren 'Rigoletto' Munich-en 1976an.

Dena dela bere herriko antzerki herrikoiaz duen nostalgiak eragin du gehienbat Kafkaren 'Metamorfosia'n Gregor Samsaren papera onartzera. 'Historiak kontatzea' dakien antzerki herrikoia eta eskena-mina izan dira itzultzeraren eragin dutenak. Peter Shaffer-en 'Amadeus' antzezteko gogoz zebilen hain zuzen Samsarena egiten hasi dezan.

Parisen estreinatuta den obran, eskenategiaren hondo hondoan agertzen da Polanski pertsonaia nagusiek bere historia kondatzen duten bitartean haren aurrean. Aktoreek Gregor-en bizitza ematen dute keinuka kolore beltzaren gainean eraikitako pertsonaietan. Musika neurtu batek ematen dio oinarri eta eskaintzen dio erritmoa, batetik bestera lotura papera ere egiten duela. Antzerki modu berezi bat lortu du-

te: eskenografia zahar-itxura baten (duela hogeituroko edo) eta Ingmar Bergman-en estiloaren arteko gune bat bezalakoa.

Testua buruz ikasi berea ez den hizkuntzan

Gregor Samsa gehiagotan agertzen da lurtean, lau hanketan, zutik baino. Intsektu bilakatu behar du Roman Polanskik, hankak eta besoak zabalik, tri-paz gora batzutan, ahozpera bestetan. Eskenategiaren sakonean dago Gregor Samsaren gela, estradu baten gainean, aurrean familia, aita, ama, arreba. Atzeritarra bere familian. Intsektu bilakatu da.

«Arazo larri bat izan dut —aipatu du Polanskik—. Neurea ez den hizkuntza batean aritu beharrak asko zaildu dizkit gauzak. Beste aktoreek hitzen bat aldatzea daukaten bitartean nik ez daukat tokirik inprobisazio bakar bate-tarako ere. Buruz ikasi behar izan dut testua, irakurriz. Nahiago izaten dut testua eskenategian bertan ikastea, gehiago lotzen zaio honela testua ekintzari. Eskena batean testuan pentsatzen hasten bazara galduta zaude. Autoa eramaterakoan bezala, hobeto joango zara pedaletan pentsatu gabe».

J.M. HERITZ

Julian Retegi falta zaion txapela preziatuaren bila

Bakarkako eskupilota kanpeonatuan zortzi alditan txapeldun izan den Julian Retegik ez du gero eta desiratuagoa bilakatu den binakako konpetizioko txapelarik sekulan kokoteratu ahal izan. Hain zuzen, binakakoaren arrakasta esan liteke sari falta horri esker ziurtatu dela, alde batetik beste pilotarientzat txapelarik lortu ahal izateko kanpeonatu aproposa gertatu delako, eta Retegik azken aldian ipini duen adore bereziagatik bestalde.


SENPERRENAK pasatu dituzte Retegi II.ak eta Errandoneak binakako eskupilota txapelketa finalerako txartelak erdiesteko. Urtarrilaren 23an Galartza III. eta Bengoetxea III.aren kontra Tolosako Beotibarren jokaturako partidua derrigorrez irabazi behar zuten, gutxienik sailkapen berdinetara iristeko. 17-19tik 19-19ko markagailuari buelta eman behar izan zioten amaierako 22-20ean amaitzeko.

Desenpatea Anoetan ipini zuten gero joakoan, sei egun berantago, urtarrilaren 29an, ETBko kamarak bertan zirela. Orurako, Ladutxe eta Martinikorenak eskuratu zuten heuren finalerako ticketa, Eibarko Astelenan Bengoetxea IV. eta Maiz II.ari gailenduta.

Bazirudien Retegi II.enak Anoetako frontoia ikusi, eta bere burua txapelpean somatzen zuela. Bestelako partidu bat izan zedin erabaki zuten, Galartza ahantzi eta Bengoetxearen aurka bakarrik jokatu balu bezala aurrekaldeko kuadrota mugatuta. 15-7ko alde atera zuten hasiera batetik kontuari tinko aurrea hartuta. Bueltarik izango zuten ordea, abantaila 15-14era laburtu zietenean, nahiz eta jarraian 22-14 arterainoko jokaldietan nagusitasuna noren eskutan zegoen argi erakutsi.

Retegi lehendabizko aldiz finalean

Ladutxek iazkoan irabazi zuten txapelketa honetako azkena Tolosarekin batera, aurtengoan Martinikorenarekin ailegatu dela. Iparraldekoa sasoi boteretsuan ote dagoen errepikatzen du zenbaitek, baina ez dirudi Retegi nola edo hala tanturik egiten lagako dionik. Errandonea gaztearekin lehendabizikoz finalera heldu eta hauxe irabazteko promesa bizi du bere baitan. Baina atzelariak berak ere erabaki lezake lehia, deskuidatuz gero.



Asteartean aukeratu zuten otsailaren 5ean Anoetan jokatu den matxerako pilota sorta. Honez gero dirua sutan da!

G.A.

erronka barik

Bixitaldi monarkikoa Leitzatik pasata

HARRAULTZA uretan pasata bezala geratu zen Iñaki Perurena joan den larunbatean Donostian burututako «Euskadiko Sei Ordu»etan 305 kiloko harri koskorra altxatzera zihola galtzak tarratatu zitzaizkionean. Urduritasunak heldu zizkion tripa barrenak, eta Sansoni ilea moztu izan balio bezala geratu zen indarge, pentsatuz akaso hurrengo saioaldian pratetako zulo hura areago zabalduko zitzaioala esfortzuaren poderioz. Mundu guztiaren aurrean ipurdia begibistan uztea baino nahiago izan zuen errekor berrirako entsegua beste batetarako lagatzea. «Desilusionatuta nago» esango zuten segidan kazetarien grabagailuen aurrean, benetan «lotsatuta» zegoela adierazi ordez. Belodromoan bildutako milaka pertsonok adore apur bat eskatu zioten («berriro!, berriro!», lanean saiatu arren baina, tarrataren konplotak bere giharreek baino indar gehiago zuela demostratuz.



HARRAULTZA uretan pasata bezala geratuko ote da berriro Iñaki Perurena hurrengo saioan? Dagoeneko zenbait mihi-gaiztok aitatu du-eta Estatu espainoleko monarken Nafarroarako bixitaldian izango dela 'euskal arrazaren' indarra erakusten! Egia baldin bada, zutabe honetan izkiriatzen duen honek ez dio magia beltza egiteari etsiko datorren astelehen, astearte eta asteazkena bitartean, ea gisa honetan berriro ere galtzak tarratzen zaizkion eta, beste erremedioren ezean, behin betirako ausartzen den ipurdi galant hori duintasunez erakusten. 'Kuxidadezko' jendaurrean behintzat...

GORKA ARRESE

Bankaren irabaziak

1

Azpitik dabil hatzapar beltza
hain mandataris isila
interesaren morroi leiala
inori kentzen habila
gure diruaz egiten dute
milaka milioien pila
eta fusio hauekin doaz
askoz gehiagoren bila

2

Europar dauden bankuek dute
indarra eta kemena
hauek diote: gurea berriz
horienaren laurdena
txikiak batu indar daitezen
irtenbide hobereana
gutxi ajola hau izan arren
txikiagoen kondena

3

Bide hontatik laister bakarra
lehen lau ziren lekuan
eta jakina ahulena galtzen
gisa hontako tratuan
berdintasunik ez da ernaltzen
diru goseen jokuan
aurki hemengo ondasun denak
inperialisten sakuan

4

Ta langileak? zenbat lanpostu
galduko zaizkigu deman?
ahaztu hori, ba al dakizu
negozio hau zenbat dan?
bota kalera sobra daudenak
lau-bost txajur haundi eman
horra zer geran langileria
kapitalisten sistemari

5

Bi zuzendari zeuden tokian
bakarra da bat eginik!
bai, baina hoiek dena daukate
jaun eta jabe izanik
ta langilea bizirik dago
ez zer jan eta ez lanik
esklabu batek nola ez daukan
erantzuteko baimenik

6

Lehen urratsa gure herrian
orain gutxi gertatua
hori dela ta jende asko da
kezketan barneratua
Lankide Aurrezki bat badaukagu
Euskal Herriko frutua
kooperatiben geroa zein da?
hor dago orain kontua

7

Dirueteak bateratzean
irabaziak ugaltu
Euskal Herrian inbertitzeko
asmorik inork ba al du?
zer da helburu, Euskal Herria Europar
zehar zabaldu
edo emaitza bakarra dugu
lanpostu mordo bat galdu?

8

Diferentziak ugaltuz doaz
nola ez nabari minik
lagun urkoa etsipenetan
intzirik bizi ezinik
bihotzak ez du pentsamentuen
eremuan zer eginik
dirua bada jaungoiko bakar
ez daukagu zereginik

INAKI MURUA

OHARRA: Hemendik aurrera, gure ohizko sail honetan saio berri bat betetzeko asmoz gatzokizue. ARGIAK gaia emanda, astero-astero bertsolari desberdin bati bertsoak eskatuko zaizkio. Estreinaldiko saioa Iñaki Muruari tokatu zaio, eta izango du ondoren. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi bestelako bertso-paperak argitaratuko ez ditugunik. Beraz, ez etsi eta bidali nahi badituzue, animo!

JELOSKORRA

Senarrak emazteari:

— Esaidazu egia, txakurra ni baino gehiago maite duzu, bai ala ez?

— Jose Mari, Jose Mari! Hamaika aldiz esan dizut biak berdin maite zaituztedala!

AUTOESKOLAN

Galdetzen dio maisuak gidari karne-
ta atera nahi duen ikasleari:

— Zer esan nahi du barnean bi haur kartera banarekin dituen hiruki batek?

— Eskolatik irten direla —erantzuten du.

— Kontxo! Irten, irten... sartu ere sar zitezkeen, ez?

— Ez, maisu jauna. Haurrak korrika doaz.

NOLANAHI ERE ISUNA

Basozainak arrantzan harrapatzen du gazte bat.

— Mila pezetatako isuna debekatutako tokian arrantzan aritzeagatik.

— Barka, barka, beha beza berorek baino ni ez nabil arrantzan. Zizareei igerian erakusten ari naiz.

— Ikus al ditzaket zizareak?

— Nola ez? Begira.

— Hala ere mila pezetako isuna ordaindu beharrean zaude.

— Baina, zergatik?

— Hau ez delako zonalde nudista eta zuk zizareak bainujantzirik gabe daukazulako.

HOBEAGORA

Sendagileak gaisoari:

— Lasai egon zaitezke, atzo baino askoz ere hobeto egiten duzu eztula.

— Eta harritu egiten al zara gau guztian entrenatzen pasata gero?

EROA BAI BAINAN

Goizean goiz hantxe omen doa gure eroa bere karretilarekin, bainan gurpilak gora begira dituela. Gurutzatzen da lagun batekin eta:

— Bainan, bainan, hi, erotu al haiz edo? Zer habil horrela karretilarekin?

— Hik zer uste duk ba? Atzo beste aldera begira neraman eta hondarrez bete zidaten.



Le-Keiti-Ho-ko antzararak ferratzen

HIRU elementu hauek ez zuten arrazoin faltarik. Aurtengo neguak ez du negu izenik ere merezi, urtarrila bukatzerako kostaldeko haranak loratan, eta gainerako landare eta arbola guztiak ere sekulako despistearekin. Goizean esnatu, besoa luzatu, irratitari eragin eta «Bilbon hamabost gradu, Donostian hamalau, Iruñean hamaika...». Otsail hau ez daukagu pasaturik! Udazkena bukatzen ez dela eta seguruenik negua uztaila bitartean luzatuko den beldurrez, hiru tipo hauei eman diete Madalena jaiak Kandelarietara aurreratu eta festak prestatzeko agindua. Hor daukazu, irakurle maitea, Le-Keiti-Ho-ko edozein ataritan beren antzararak prestatze lanetan.

Ezkerretakoa, Asteasuko oilaferratzailearen iloba propioa; antzararak ferratzen ez omen du parerik. Beste bien aldean mutur beltza dauka gizonak, baina ez da harritzekoa: hola-ko ondorio gaiztoak ekarri ohi ditu nikotina zerri horrek. Bokilarekin berandutxo hasi hazela, txo. Eskubitakoa Iparraldetik jaitsi berria da Le-Keiti-Hora. Erreparatu al diozu bere ezkerreko besoari? Antzarari lepoa luzatzeko hori abildadea. Makinatxo bat pate goxo egina dugu urrea balio duten bere bi esku horiekin. Prolema batzuk ba omen ditu frantses produktuekiko boikota dela eta ez dela, baina bere antzarei karrakako batzuk atera erazten dizkien bezain pronto ohartzten dira denak bitxo horiek Mauletik honuzkoak direla, hori bai, «erre» frantses hori kenduko dien kristorik ez dago.

Erdiko tipoa da, hala ere, hiruetan maisu. Zertarako egon antzararen gibela usteldu eta itxura patetiko hori hartu arte zain? «Le-Keiti-Hon ez dute antzararen ez paterik eta ez barrunberik jateko usadiorik. Hemen jendeak okelari begiratzten zio, eta batik bat lepoari, adiskide!». Hasi hadi horri kontra egiten. Eta hola konformatu dira: eskubitakoak mantendu, ezkerretakoak akabatu eta lumatu eta erdiko mozolo horrek «pategaia» xurrup! eta irentsi. «Madalenak orain, alkate hau erotuta diagok» dio eskubitakoak. «Txalupatik uretara erortzen denak igerriko zio», erantsi ezkerretakoak. Erdikoa ere ez dago gozoa: «Holaxe jango dizkiet gibelak kontzejal artaburu horiei».

MARTIN ARANA

osasunaren arduraz

Haserrea eritasun-sortzaile

HIRUREHUN bulegari-
ren laneko estiloa, osasuna eta lan-historiala aztertzerakoan, Kanadako Montreal-eko ikertzaile batek aurkitutako datuen arabera langile energiko eta urduriek eta tenperamentuz patxarosoak direnek lan-kopuru berdina egiten dute. Baina lehendabizikoek burutzen duten esfortzua handiagoa den bitartean, bigarren taldekoen lana kalitatez hobea da.

Bestalde, haserretzen garenen, sumindura-sentsazioa etorri bezala joaten bada, gaitzerdi. Baina sentimenduak hor irauten badu, kanporatu eta lasaitu gabe, gorputzean noradrenalina jariatzen da, bihotzeko asalduratan eta apoplejian zeri-kusirik eduki dezaketela pentsatzen den hormona potentzialki toxikoa.

Noradrenalina (bere senide adrenalinarekin batera) baliagarria da arrisku-egoeratan, muskuluetara odol gehiago bidaliz gorputza ekintza azkar eta gogor baterako prestatzen bait du. Baina haserrealdia isilean joaten bada, garunak noradrenalinarekin ekintza potentziatuz jarratzen du, eta hau bihotzarentzat kaltegarria izan daiteke. Tratamendu posibleetako bat sentimenduak kanporatzea izaten da. Hau posible ez balitz (askotan gertatzen dena) ez da erremedio makala ariketa fisikoa egitea: horrela kaloriak erretzen dira, baina baita osasunaren kalterako diren hormona horrie ere.

XABIER AGIRRE

Txillardegia eta HBri erantzunez

(Iparraldeak bere hautuak egin ditu)

HERRI Batasunaren izenean, Txillardegiren ahotik entzun ditugunek ondorio onik ekarri ote dute gure Euskadiko parte ttipi, ahul, kontzientzia gabekoari...?

Batzuek mintzaldi horretan ikusi dute, Herri Batasunaren aldetik, Ipar Euskadiz axolatzeko nahikeria bat. Aspaldiko denboretan beha eta beha ziren noiz etorriko zitzaigun izarra. Baina beldur naiz orain ere beha direla.

Bertaldea, polemika bakarrik sorrazten duen deklarazio batek ez du borroka den mendrenik ere aintzinarazten. Aise konpreni dezakezue mintzaldi horrek Iparraldean den abertzale mugimendua ez duela azkartu. Eta berdin ahul lezakeela ere ez bagintu gure kontzientziatzearen araberako egiturak xutik ezarriak.

HORRETAZ aparte, erran behar dut halere, damugarri dela, HerriBatasunaren ordezkaritza bat, demografia, ekonomia, eta kontzientzia aldetik Iparraldeak dituen ahulezia haundiak Hego Aldeari nahitarat konpara ditzan eta horretan oinarri dadin aurrunt beste zerbaiten baieztatzeke. Dena den zuek baino hobeki dakigu naski zertan giren Iparraldean, egun guzietako borroketan kontestuaren kondutan hartze beharretan bait gaude eta gure ahulezietaz aspaldian ohartuak bait gara.

Bainan, arestian aipatzen nituen polemikak laburtuz, jin gaitzen egiazko problematikara. Zer balio du arrazoi-namendua konparaketa batean oinarrituz, Ipar Euskadi mimetismoan eroria dela erraiteak? Nori sinetsaraziko diozue Iparraldean den borroka har-

matuaren kontra zaretela mimetismoarengatik? EMA kritikagarriztat daukazuela mimentismoarengatik?

Mimetismoaren giblean gordetzeke ordez erran behar dena da, sozial eta askatasunerako mugimenduak Iparraldea baliatzen duela Hego Aldean eremaiten den borrokarentzat eta hemengo borroka helburu horrekin berearekin mugatu nahi lituzkeela. Hori estrategia hau garrantzitsu bat da eta ez zait iruditzen hau dela gauzak xehekiago aztertzeke lekuri egokiena.

Halere jakin behar duzue, Iparraldean borroka ari direnek konprenitua dutela hau hori eta beti gure erranetan, eta obretan, kontutan hartzen dugula. Gure xedea bait da Hego Aldean bermatzen den askatasunerako mugimenduak, parte haundienak, *irabaz dezan*, baina, argi izan gaitzen, hori parte bat baizik ez da! Iparraldeak halabainan bere problema bereziak ditu eta hori ezin uka. Hori kontutan hartuz beraz, gure nahikeria da Iparraldean bermatzen den abertzale mugimenduak eta Iparraldeak, nahiz eta parte ttipia izan, bere lekua ukan dezan eta gure helburua da hark *ez dezan leher egin*.

HORIEK oro ez dira hitzetan mugatzen noski, Hala nola, ahoan bilorik gabe eta zuenganik lausengurik xerkatu gabe, Hego Aldean KAS inguruan dabilzan taldeak sustengatzen ditugun; Gure lehen Biltzar Nagusitik landa, KAS alternatibaren aldeko agiri bat zabaldu genuen; hala nola ere, joan den urriko ihizketatik lekora prentsurreko ba-

tean erran genuen iheslarien gordezea gure eginbidea zela.

Bainan gure engaiamendua ez daiteke horretan muga. Zernahi erranian ere Iparraldeak bere hautuak eginak ditu. Egiturak badira: Seaska, Gau eskolak, Kooperatibak, Herrikoa, EMA, Iparretarrak... Hor dira eta nehorik ez ditzake uka. Minoritatetik atera nahi dugu eta ateratuko gara bestenaz berrogeitamar urteren buruan, Baiona ez da beila leku bat baizik izan Hego Euskadiko euskaldunentzat. Eta jakin ezazue tresna guziak on direla Iparraldean nazional kontzientziaren indartzeko. Bere aldetik EMAk abertzale hautetsi-gaiak presentatu zituen azken bozketan. Heldu diren Herriko eta kantonamenduetako bozetan parte hartuko du. Kanpainak antolatzen ditu: presoen alde, ikastolen alde, langilen alde...

HARA beraz, nola Iparraldeak, nahiz eta ttipia, ahula eta kontzientzia gabekoa izan, laguntza ekartzen duen Hego Aldeko borrokari eta ber denboran bere borroka eremaiten duen bizirik ihardokitzeko. Dena den, bi eskualdetako ezker abertzaleko mugimenduek, noiz behinka elgar atxemen balezate, ez litzateke Euskadi Batuarentzat batere gaizkiago.

ALAIN IRIART
(EMA)





GK:

GIPUZKOAKO KUTXA • • • • • CAJA DE GUIPUZCOA

● Hauxe da Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren irudi berria. Eta gure izen berria Gipuzkoako Kutxa da. Gu garen eta izan nahi dugun guztiaren sinbologia. Iritsi bait da etorkizunari adarretik heltzeko ordua. Eta gure esperientziak erakutsitako onena bilduko dugu, aro berri bati esperantzaz beteta ekiteko. Guk ez dugu atzera begiratzen eta saiatuko gara, jo ta ke, Gipuzkoak aurrera egin dezan. Gu garelako Gipuzkoako Kutxa.

**Gipuzkoar guztiekin gaude
etorkizunari begira**

HERRI GINTZAN



CAJA LABORAL POPULAR LAN KIDE AURREZKIA

- ▶ Euskal Herri osoan ordezkaturik dagoen Kutxa bakarra gara.
- ▶ Euskal Lehen Enpresa-Taldearen bultzatzaile garen Entitatea.
- ▶ Eta gainera... hona gure gaztetasuna:

1959

1987

Lehen Bulegoa	175 Bulego
Lehen Bezeroa	700.000 Bezero
Lehen Milioia	185.000 Milioiko aurrezkia

▶ Horrexegatik, Lan Kide Aurrezkia
"Euskadiko Kutxa" da.

Zatoz elkarlanean parte hartzera

ZURE NOMINA
LAN KIDE AURREZKIAN HELBIDERATUZ

HELBIDERATZE-TXARTELA

Lan Kide Aurrezkiaren ko
bulegoan daukadan kontu korrontearen bidez
kobratu nahi dut nere soldata.

IZENA

N.A.N.

ENPRESA

SINADURA:

Kupoi hau ebaki eta hona bidali:
LAN KIDE AURREZKIA, Marketing-eko Dptu. a
J. M. Arizmendiarrrieta, Pasealekua z/g
Arrasate, Gipuzkoa.

Itxaron gabe, bete
eta bidaliezaguzu
ondoan doakizun txartela.



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA**

Euskadiko Kutxa